



IKUS DITZAGUN GALDERA-ERANTZUN BATZUK EKAINAREN 30EKO 8/2022 LEGEARI BURUZ: EAE-N JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO LANBIDEETAN SARTZEARI ETA JARDUTEARI BURUZKO LEGEA

(Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu da, 2022ko uztailaren 19an).

Ohar garrantzitsua: AGIRI HAU INFORMAZIOA EMATEKO BESTERIK EZ DA. EZ DU BALIO JURIDIKORIK.

AURKIBIDEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK.....	3
II.- JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO LANBIDEETARAKO KUALIFIKAZIOAK.....	17
III.- GORPUTZ-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA	23
IV.- KIROLETAKO MONITOREA	25
V.- KIROLETAKO ENTRENATZAILEA	27
VI.- KIROLETAKO ZUZENDARIA	31
VII.- KIROL-LANBIDEETAN SARTZEA ETA JARDUTEA	33
VIII.- LEHEN SOROSPENAK	39
IX.- FEDERAZIO-PRESTAKUNTZAK. KIROL-FEDERAZIOEK KUALIFIKAZIOAK ESKATZEA	45
X.- KUALIFIKAZIOAK ESKATZEKO DATA. BITARTEKO ARAUBIDEAK (TRANSITORIOA)	50
XI.- ARAUHAUSTEAK ETA ZEHAPENAK	58
XII.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA	62
XIII.- URETAKO SOROSLE-LANBIDEA, BAINA EZ KIROL-ARLOKOA	66
XIV.- KIROL-ZENTRO JAKIN BATZUETAN DERRIGORRA DA KIROL-ZUZENDARIA EDUKITZEA	67
XV.- EUSKARA	69
XVI.- DENETIK PIXKA BAT	71

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1. Zer xede du 8/2022 Legeak (EAEn Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Lanbideetan Sartzeari eta Jarduteari Buruzko ekainaren 30eko 8/2022 legea; aurrerantzean, "8/2022 Legea")?

8/2022 Legearen xedea da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbide jakin batzuetara sartzeko funtsezko alderdiak arautzea; batez ere, aitortuz zein diren jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbide horiek, zehaztuz zer lanbide-kualifikazio behar diren haietara iristeko, lanbide bakoitzari eremu funtzional espezifiko bat esleituz, eta dena delako lanbidean jarduteko baldintzak ezarritz.

2. Zer helburu du 8/2022 LEGEAK?

Kirol-zerbitzu profesionalak eskatzen edo erabiltzen dituen orok eskubidea du zerbitzua ematen duenak ezaguera tekniko espezifikoak aplikatuz egin dezan lana, hartara, kirola arriskurik gabe egin dezagun, eta kirolariek edo zerbitzu horiek baliatzen dituztenek ez dezaten inolako kalterik jasan ez osasunean ez gorputzean. 8/2022 Legea, bada, eskubide hori zaintzeko da.

3. Zergatik behar da lege bat, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetarako?

Kirola eta jarduera fisikoak egitea onuragarria da pertsonentzat, baldin eta osasuneko eta segurtasuneko baldintzak betetzen badira. Jarduera antolatuetan, jarduera horiek zuzentzen dituztenen erantzukizuna da kirolgileen osasuna eta segurtasuna bermatuko dituzten baldintzak ezartzea, eta, beraz, ezinbestekoa da pertsona horiek prestakuntza egokia edukitzea, zuzentzen dituzten jarduera horietarako egokia alegia.

4. Zein administrazio publikok du ardura 8/2022 LEGEA erregelamendu bidez garatzeko?

Eusko Legebiltzarrak onartzen du 8/2022 LEGEA, baina, gero, Eusko Jaurlaritzari dagokio erregelamendu bidez garatzea.

Hori horrela da, baina, kirol-zerbitzuak eman behar dituztenean, gainerako administrazio publikoek ere erabiliko dituzte jarduera fisikoko eta kiroleko profesionalak, eta, halakoetan, beste administrazio horien erantzukizuna ere bada legea betetzen den begiratzea.

5. 8/2022 LEGEAK zuzenean nori eragiten dio?

Lanbide hauetan jardun ohi duten guztiei: Gorputz Hezkuntzako irakasle; Kirolerako monitore; dena delako modalitate edo diziplinako entrenatzaile; eta Kirolerako zuzendari.

6. 8/2022 LEGEAK nola eragiten die, nagusiki eragin, lanbide horietako profesionali?

Jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan jardun nahi duenak, oro har, eta salbuespenak salbuespen, baldintza hauek bete beharko ditu:

- a) Gutxieneko lanbide-kualifikazioa eduki behar da ("kualifikazio profesional" ere esaten da).
- b) Legeak jartzen badu jendearekin aurrez aurre lan egin behar duela, lehen sorospenetako prestakuntza ere eduki behar du.
- c) Dagokion elkargo profesionalean sartu beharko du, Estatuko lege batek hala xedatzen badu.
- d) Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea EAeko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan.
- e) Erantzukizun zibileko aseguruia edukitzea, hirugarrenei eragin diezazkiekeen kalteak estaltzeko.
- f) Legez agintzen diren betebeharrak profesionalak betetzea.

7. 8/2022 LEGEaren arabera derrigorra al da lan-kontratua edukitzea jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan zerbitzuak emateko?

Ez. Lege horrek ez ditu lan-harremanak arautzen. Gainera, horrelako lanbide batzuetan, norberaren kontura ere jardun daiteke, edo autonomo gisa (jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideez ari gara).

8. 8/2022 LEGEak ezartzen al du kirol-arloko titulu berririk edo arautzen al du ikasketarik edo titulaziorik?

Ez, 8/2022 LEGEak ez du kirol-arloko titulaziorik sortzen, aldatzen edo arautzen. Gaur egun, kirol-arloan titulu edo ziurtagiri ofizial asko daude (unibertsitateko titulazioak, lanbide-heziketako titulazioak, ziurtagiri profesionalak edo profesionaltasun-ziurtagiriak, araubide bereziko eta behin-behineko kirol-irakaskuntzak), baina legeak gauza bat bakarrik egiten du: zehaztea ea prestakuntza edo ziurtagiri ofizial horietako zeintzuek egiaztatzen duten nahikoa kualifikazio lau lanbide horietako bakoitzean jarduteko.

9. Zein da lege honen aplikazio-eremua?

EAEn lanbide horietan hasteko orduan eta normalean lanbide horietan jarduten denean aplikatuko da legea.

10. Noiz ulertzen da norbaitek ez duela normalean Euskadin lan egiten?

Dena delako profesional hori beste autonomia-erkidego edo herrialde batetik dator, eta gutxi batzuetan edo noizik eta behin bakarrik lan egiten du Euskal Autonomia Erkidegoan.

Esate baterako, kontu egin saskibaloietan edo Frantziatik Euskadira datorrela euskal talde baten aurka adiskide-partida bat jokatzera; edo Alemaniako eskubaloietan edo Euskadira datorrela Europako lehiaketa bateko partida ofizial batean lehiatzera. Halakoetan,

entrenatzaile horiek normalean ez dute Euskadin lan egiten.

11. Kontu egin plataforma birtualen bidez lan egiten dudala, spinning-eko monitore gisa adibidez; noiz ulertzen da Euskadin profesionalki jarduten dudala?

8/2022 LEGEaren arabera, plataforma birtualen bidez edo informazioaren eta komunikazioaren teknologien bidez egiten den lana Euskadin egiten dela joko da baldin eta zerbitzu horiek ematen dituzten pertsona fisiko edo juridikoen egoitza edo helbidea Euskal Autonomia Erkidegoan badago, eta, horretaz gain, bertan bizi diren kontsumitzaile edo erabiltzaileek erabil baditzaizkete zerbitzu profesional horiek.

Bi baldintzak bete behar dira: profesionalaren egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan egotea, eta EAEn bizi den jendea izan ahal izatea zerbitzu profesional horien hartzailerik.

Hau da, spinning-eko monitoreak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi bada, eta zerbitzu profesional horiek Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek erabil baditzaizkete, jardun profesional horretan 8/2022 LEGEA bete beharko da.

12. Kontu egin profesional bat beste autonomia-erkidego edo herrialde batean bizi dela baina Euskal Autonomia Erkidegoan lan egin ohi duela; 8/2022 LEGEA bete beharko du?

Bai. Normalean Euskadin lan egiten badu, 8/2022 LEGEA aplikatuko zaio, edozein lekutan bizi arren edo edozein nazionalitate eduki arren.

Adibidez, Beran bizi da (Nafarroa), edo Hendaiako (Frantzia), baina Irunen lan egiten du. Bada, 8/2022 LEGEA bete beharko du.

13. Kontu egin entrenatzailea naizela, frantziarra, Hendaiako futbol-talde batean lan egiten dut, baina Zubietara nator (Gipuzkoa), nire taldearekin aurre-denboraldia prestatzera: 8/2022 LEGEA bete beharra daukat?

Ez. Profesionala baldin bazara eta zure kirol-erakundea EAetik kanpora baldin badago, normalean EAEn lan egiten baduzu bakarrik eskatuko zaizkizu 8/2022 LEGEko kualifikazioak.

14. Entrenatzailea naiz, Araban bizi naiz, baina Errioxako talde bat entrenatzen dut. Batzuetan, EAEn lehiatzen dugu, euskal taldeen aurka, estatuko lehiaketa batean. Nahitaez bete behar al ditut 8/2022 LEGEko baldintzak?

Ez. Kirol-talde edo -elkarteren bateko profesionala baldin bazara eta estatuko edo nazioarteko lehiaketa ofizialen batean parte hartu behar baduzu baina EAEn, kirol-erakunde horrek egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan baldin badauka bakarrik eskatuko zaizkizu lege honetako kualifikazioak.

15. Beste kasu bat: Kantabriakoa naiz, monitore lan egiten dut, eta, batzuetan, Kantabriako emakumezko bezero-talde batekin EAera joaten naiz, asteburuetan Nordic Walking egitera. 8/2022 LEGEA bete beharra daukat?

Ez. Beste autonomia-erkidego edo herrialde bateko profesionala baldin bazara, eta gutxi batzuetan edo noizik eta behin lan egiten baduzu Euskadin, eta Euskaditik kanpora bizi direnentzat gainera, ez zaizkizu eskatuko 8/2022 LEGEko kualifikazioak.

16. Entrenatzaile pertsonala naiz, enpresa bat daukat Miranda Ebron (Burgos), baina gure zentroetako bat Gasteizen dago, eta hor lan egiten dut beti. 8/2022 LEGEA bete beharra daukat?

Bai. Izan ere, profesionali 8/2022 Legean ezarritako kualifikazioak eskatuko zaizkie, baldin eta Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako zentroetan lan egin ohi badute, zentroaren titulartasuna edozein dela ere.

17. Euskadin nago kolegiaturik: Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Euskal Autonomia Erkidegoko Elkargo Ofizialaren. 8/2022 LEGEA bete beharra daukat?

Ez du nahitaez horrela izan behar. Elkargo profesionalean, normalean, lan egiten ez duen jende asko egoten da; edo, lan egiten dute, baina ez 8/2022 LEGEan araututako lanbideetan, beste batean baizik. Adibidez, elkargokideen artean, baliteke unibertsitateko irakasleak egotea, edo jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan lan egiten ez duten pertsonak eta abar, eta, beraz, ez dira aritzen 8/2022 Legean araututako lanbideetako batean, eta, hortaz, ez daude lege horri lotuta.

18. 8/2022 LEGEaren ondorioetarako, zer da lanbide-jarduna (jardun profesionala)?

8/2022 Legean, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbide jakin batzuk daude araututa. Bada, lege horren ondorioetarako, lanbide horietako berezko zerbitzuak eskaintzea eta, ordainetan, dirua irabaztea da "lanbide-jarduna"; baina ez kiroltako monitoreek, entrenatzaileek eta zuzendariak egiten duten lana boluntario modura, lagun artean, familian eta antzera.

19. Ondorioz, jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan borondatez aritzen direnek ez al dute kualifikaziorik eduki behar?

Legearen artikuluetan ez da ezer arautzen borondatez aritzen direnez, baina bai xedapen gehigarrietan, alegia, badituzte kualifikazio-betebehar batzuk, baina aurrerago azalduko dugu.

20. Kontu egin nire semeak auzoko ume-talde batean jokatzen duela. Zer gertatzen da noizbehinka haien entrenatzaile aritzen banaiz dohainik?

Hasiera batean behintzat, lagun artean, familia barruan edo antzeko egoeretan egiten diren jarduerak ez daude lege honetan arauturik.

Jarduera horiek, ordea, erakunderen baten barruan egiten badira, eta borondatez bai baina sarri-sarri egiten badira, legeak ezartzen dituen kualifikazio-eskakizunen mende egongo dira.

21. Klub batean aritzen naiz entrenatzaile gisa. Ordain txiki bat besterik ez didate ematen, joan-etorrietarako. Hori zer da, kirol-profesional modura aritzea?

Ez. Gastuak berdintzeko ordain bat besterik ez badizute ematen, borondatez ari zarela jotzen da.

Har dezagun 8/2022 LEGEA, eta ikus dezagun zer den borondatez aritzea:

“boluntariotza da pertsona fisikoek borondatez eta askatasunez egiten duten kirol-jarduera edo -jardueren multzoa, lan-, funtzionario- edo merkataritza-harreman batean kausarik izan gabe, Boluntarioei buruzko ekainaren 25eko 17/1998 Legean zehaztutako baldintzetan, inolako ordainsari ekonomikorik jaso gabe, aipatutako legeak ezartzen dituen gastuengatik ordainak izan ezik.”

Hortaz, lege honetan araututako lanbideen zereginetan aritzen bazara edozein erakunde edo antolakundetan, eta, harekin, laneko edo merkataritzako harremana edo ordainsaria dakarren beste edozein harreman baldin baduzu, zu ez zara, inola ere, boluntarioa.

22. Klubak ematen didan dirua zer da, ordain ekonomikoa edo ordainsaria? Zenbatean dago muga?

8/2022 LEGEAK ez du muga hori ezartzen, boluntariotzari buruzko euskal legeriara jotzen baitu, eta hark ere ez baitu muga ekonomiko hori ezartzen, ez eta Estatuko eta beste autonomia-erkidegoetako boluntariotza-legeek ere.

Hala ere, legeetan begiratzen badugu, zer edo zer aurkituko dugu. Adibidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak (1. atala, 2011-12-20 epaia, 2850/2011 erre.) eta Bilboko Lan Arloko 6 zenbakiko Epaitegiak (2011-06-09ko Epaia) adierazi dute zer edo zer (erreferentzia hutsa da, ez baitzuten jurisprudentziarik sortu). Honela zioten Bizkaiko futbol-klub bateko monitore batek hilero jasotzen zuen ordain ekonomikoa buruz:

“En cuanto a tales cantidades, la Magistrada autora de la sentencia dio por probado que se entregaban no como remuneración por la actividad o a cambio de ésta, sino a título de compensación por los gastos de desplazamiento y otros que el demandante tenía que hacer para asumir para hacer de monitor del equipo de fútbol infantil que entrenaba, aparte de las de tipo de gestión administrativa predichas, sin que se haya desvirtuado tal aseveración, que efectivamente ello se corresponde con la propia entidad de tales pagos (**ciento sesenta euros al mes** por ambos tipos de actividades) y la frecuencia y entidad de los desplazamientos que imponían las citadas actividades, pareciendo razonable suponer una mayor cantidad si se pretendía retribuir como salario diecinueve horas al mes de promedio de "trabajo", aparte aquellas gestiones administrativas”.

23. Eta araubidea (erregimena)? Zer araubide dute jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideak borondatez edo antzera betetzen dituztenek?

Boluntarioak ez daude behartuta Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan izena ematera, baina baldintza batzuk bai bete behar dituzte, parte-hartzaileen osasuna eta segurtasuna bermatzeko:

- a) Arau orokor gisa, profesionalen kualifikazio profesionala izan beharko dute. Baldintza horretan badira salbuespen batzuk, baina aurrerago azalduko ditugu.
- b) 8/2022 Legean araututako lau lanbideetako batean dihardutenean, kirol-jarduera egiten den lekuan bertan egon behar badute, egiaztatu beharko dute egina dutela lehen sorospeneko prestakuntza.
- c) Horretarako erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, erregelamenduz

aurreikusitako baldintzetan.

24. Eta kualifikazio berbera izan behar al dute? Alegia, boluntarioek eta ordainduta diharduten profesionalak kualifikazio bera izan behar al dute?

Hasiera batean behintzat, bai. Boluntarioek kirol-jardueretan parte hartzeko bete beharreko kualifikazio profesionalen baldintzak, oro har, 8/2022 LEGEan profesionalentzat ezarritako berberak izango dira, jarduera horietan parte hartzen dutenen osasuna eta segurtasuna bermatze aldera. Izan ere, jendearen osasunak eta segurtasunak ezin dute inoiz ezbaian egon zergatik eta monitoreak edo entrenatzaileak baja hartu duelako, edo alta, edo ez diotelako ordaintzen eta abar.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak, aurretiaz eskaera arrazoitua egiten badiote, bere esku du boluntario-talde jakin batzuk salbuesita uztea 8/2022 LEGEAN eskatzen den kualifikazioa bete beharretik, eta bestelako kualifikazio batekin ere gaitasuna aitortzea dena delako jarduera burutzeko.

25. Jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan, ordea, zenbaitek osagarri- edo lagungarri-lan hutsa egiten du. Haiek ere 8/2022 Legearen eremuaren barruan al daude?

Ez. Bada salbuespenik, baina azalduko dugu aurrerago. 8/2022 Legean arautu diren lanbideetan funtzio jakin batzuk bete behar direla erabaki da, baina, funtzio horietatik at beste zeregin osagarri edo lagungarri batzuk betetzen dituztenak ez dira egongo lege horrek dakarren betebehar-araubidearen mende.

26. Zer adibide jar daiteke kirol-arloko jarduera osagarri edo lagungarri gisa?

Lagungarri gisa jarduten dute, adibidez, desgaitasuna duten kirolariei laguntzeko dauden guztiek. Izan ere, jarduera fisiko eta kirol egokituan bada hainbat jende laguntzaile dabilena, kirol-teknikaria izan gabe, eta horiek denak 8/2022 Legearen eremutik at daude, legean bertan berariaz jartzen duenez.

Eta legearen aplikazio-eremutik kanpo geratzen dira orobat entrenamendu eta partidetan entrenatzaileei kirol-materialarekin edo partida-estatistikekin eta abar laguntzen ibiltzen diren guztiak.

Hori ez da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan aritzea.

27. Baina, esan dugunez, kirol-arloko lanbideetan, laguntzaile batzuek ere kualifikazioa eduki behar dute. Nork?

Eskola-adineko kirolarien multikirolean zeregin tekniko osagarriak betetzen dituzten monitore eta entrenatzaileek. Eskola-adineko jarduera fisikoko eta kiroleko programetan teknikoki laguntzen ibiltzen dira: entrenamenduetan, lehiaketetan eta gainerako jardueretan.

28. Monitore edo entrenatzaile laguntzaile horiek zer kualifikazio behar dute?

Eskola-adineko multikirolean laguntzen ibiltzen diren monitore eta entrenatzaileentzat ez baldin badago titulu ofizial, ziurtagiri profesional edo profesionaltasun-ziurtagiri espezifikorik -edo daudenak nahikoa ez badira-, Kirolaren Euskal Eskolak berariazko prestakuntza-ekintza batzuk sustatuko ditu eskola-adinekoentzat jarduera fisikoko eta kiroleko entrenamenduak, lehiaketak eta gainerako jarduerak garatzen laguntzen dutenentzat. Lurralde historikoetako foru-organismoekin adostuta egingo du, eta ezertxo ere kendu gabe lurralde horiek eskola-kirolaren arloan arauak garatzeko eta betearazteko dituzten eskumenei.

Prestakuntza horiek gainditu izana egiaztatuz gero, eskolako multikirolean monitore- eta entrenatzaile-lanetan laguntzaile ibiltzeko gaikuntza izango dute. Hastapeneko edo oinarrizko eskola-kirolean ere laguntzaile-lanak egin ditzakete, baina modalitate bakar batean, eta, betiere, dena delako diziiplina horretan prestakuntza espezifikoa edo nahikoa eskarmentu baldin badaukate.

Legea indarrean jarri aurretik, edonola ere, foru-aldundiek beste prestakuntza-ekintza batzuk ere eskaini izan dituzte eskola-adinekoen jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan; bada, jarduera horiek gaindituta dauzkatenak ere gai dira eskola-adineko kirol anitzeko jarduera fisikoetan eta kirol-jardueretan laguntzeko monitore eta entrenatzaile gisa. Gaikuntza horrek 2026ko urtarrilaren 1era arte balioko du.

29. Umeen eta beteranoen taldeei futbol-lehiaketetan laguntzen aritzen naiz. Taldearekin joaten naiz, aldaketak egiten ditut eta gauza gutxi gehiago. Ez ditut entrenatzen, eta ez ditut Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak izenekoak aplikatzen. Nik ere behar al dut kualifikazio profesionalik?

Ez, ulertzen baita kasu horretan funtzio lagungarri hutsak egiten dituzula, eta ez monitorearen edo entrenatzailearen berezko funtzio teknikoak.

Baina, entrenamenduetan edo partidetan beste funtzio tekniko batzuk ere betetzen badituzu eta haietarako bai behar baldin bada Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak izenekoak aplikatzea, dagokizun kualifikazioa beharko duzu.

30. Nori eragiten die 8/2022 LEGEAK: administrazio publikoek antolatutako jardueretan dihardutenei soilik, ala erakunde pribatuak antolatutako jardueretan ari direnei ere bai?

Jarduera profesionala erakunde pribatuetan garatzen dutenei ere aplikatzen zaie 8/2022 LEGEA. Berdin dio arlo publikoan edo pribatuan lan egiten duzen; legea berdin-berdin aplika dakizueke. Berdin dio zuen entitatea publikoa den edo pribatua den, edo dirua irabazteko asmoa duen edo ez; legea berdin-berdin da aplikagarria.

31. Eta jarduera fisikoa edo kirola egiten dutenak (praktikatzailleak)? Legeak arautzen al du, nolabait, haien jarduera hori? Betebeharrik izango al dute?

Ez. Lege hau kirola egiten dutenen onerako da, haiek dira azken onuradunak, ez dute inolako obligaziorik, baina jarduera zuzentzen, programatzen edo ikuskatzen dietenak kualifikaturik egongo dira.

32. Eta kirol-erakundeei eragiten al die nolabait?

Erakunde horretan, norbaitek legean araututa datozen lanbideetan badihardu, bai; orduan bakarrik. Hala bada, zer egin beharko dute erakundeek?

- Bermatu beharko dute pertsona horiek, profesionalak izan edo boluntarioak izan, betetzen dituztela legean ezarritako prestakuntza-baldintzak eta sorospen-baldintzak.
- Erabiltzaileei argi eta garbi azaldu behar diete, ondo ikusteko moduan (webgunean, iragarki-taulan, etab.), zer kualifikazio profesional duten monitoreek, entrenatzaileek eta abarrek.
- Erantzukizun zibileko aseguru sinatu beharko dute, beren profesionalak hirugarrenei kalterik eragiten badiete ere, ordaina estaltzeko. Boluntarioen kasuan ere halaxe jokatu beharko da, baina kasu horretan, ez 8/2022 legeak berak hala ezartzen duelako, baizik eta boluntarioei buruzko EAEko legedian horixe xedatzen delako.

33. Zer lanbide arautzen ditu 8/2022 LEGEAK?

8/2022 LEGEAK lau lanbide arautzen ditu:

- Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidea
- Kirol Monitorearen lanbidea
- Entrenatzaile-lanbidea
- Kirol Zuzendariaren lanbidea

34. Zergatik ez dira arautu kirolarekin lotutako beste lanbide batzuk, besteak beste epaile, arbitro edo kirol-agenteak?

Ez dugu dena arautu nahi izan: zerbitzu profesionala baliatzen duen horren osasunean eta segurtasunean argi eta zuzenean eragiten duten ogibideak bakarrik arautu ditugu (jarduera fisikoaz eta kirolaz ari garelarik, jakina).

35. Eta kirol-instalazioen edo kirol-erakundeen kudeatzaileei eragiten al die 8/2022 Legeak? Eta administrazio publikoetako teknikari edo langileei?

Garatzen dituzten jardueren arabera. Hau da, jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien ezagutza eta teknikak aplikatzea eragiten ez duten zereginak soilik betetzen badituzte (administrazioko, ekonomiako, laneko, instalazioen mantentze-lanetako edo antzekoetako lanak egiten badituzte, esaterako), ez dute lege honetan ezarritakoaren eraginik jasango. Ordea, kirol-zuzendaritzaren berezko eginkizunak garatzen badituzte, nola partzialki hala osorik, jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatuz (kiroleko zerbitzu edo jardueren zuzendaritza tekniko, plangintza, koordinazioa edo ikuspena), Legearen eraginpean izango dira, eta kiroleko zuzendarientzat ezarritakoa bete beharko dute.

36. Eta kiroleko klub, federazio eta antzeko kirol-erakundeetako buru eta zuzendariak eragiten al

die lege honek?

Aurreko erantzunean bezala, garatzen duten jardueren arabera izango da eragina. Berez kirol-arlokoak ez diren zuzendaritza-lanak soilik egiten badituzte, hau da, plangintza eta zuzendaritza estrategiko edo orokorreko zereginak, edo ekonomia, lan, administrazio... zereginak, ez dute lege honen eraginik jasango. Baina, berez lanbide horiei dagokien beste funtziorik ere betetzen badute klubean edo federazioan, eta jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatuz egiten badute, kualifikazio profesionaleri dagokionez 8/2022 LEGEA bete beharko dute.

37. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua daukat, eta kolegiatuta nago, baina kirol-materialaren ordezkari edo komertzial gisa lan egiten dut. Bete behar al dut 8/2022 LEGEA?

Ez.

Ez nahastu titulazio akademikoak eta lanbideak. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua unibertsitateko titulazio akademikoa da, ez lanbidea. Eta kolegiatuta egoteak ez du esan nahi, nahitaez, jarduera fisikoko eta kiroleko lanbide batean ari zarenik.

Hau da, ez baldin bazara lanean ari 8/2022 Legean araututako lanbideetako batean, ez duzu lege hau zertan bete, nahiz eta zure titulazio akademikoa gradu hori izan.

38. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua daukat, baina irakaslea naiz: jarduera fisikoaren didaktika irakasten dut, unibertsitate-zentro batean. Bete behar al dut 8/2022 LEGEA?

Ez. Irakaskuntzako lanbide bat bakarrik dago 8/2022 LEGEa lotuta: Gorputz Hezkuntzako irakasle-lanbidea, LOEren hezkuntza-etapa guztietan.

Hortaz, ez baldin bazara lanean ari 8/2022 Legean araututako lanbideetako batean, ez duzu lege hori zertan bete.

39. Udaleko funtzionarioa naiz. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua daukat, eta, nire lanpostuaren profilaren arabera, udaleko kirol-instalazioak kudeatzeaz eta udalerriko kirol-erakundeekiko harremanez arduratzen naiz. Bete behar al dut 8/2022 LEGEA?

Ez. Kirol-instalazioen kudeaketa edo kirol-erakundeen kudeaketa ez dago 8/2022 Legearen aplikazio-eremuan; izan ere, 8/2022 Legearen ondorioetarako, kirolaren berezko lanbidetzat hartzen dira, soilik: kirolaren barruan agertzen edo kokatzen diren eta jarduera fisikoaren zientzietako ezagutzak eta teknikak aplikatzea eskatzen duten lanbideak.

Hortaz, ez baldin bazara lanean ari 8/2022 Legean araututako lanbideetako batean, ez duzu lege hori zertan bete.

Hala ere, kirol-instalazioen kudeaketan kirol-zuzendari baten berezko lanak egiten badituzu, orduan bai, 8/2022 LEGEA bete beharko duzu.

40. Zer dira Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak?

Arlo hauek jorratzen dituzten diziplina zientifikoak dira: giza motrizitatearen oinarriak eta funtzioak; kirol-entrenamendua; fisiologia; ariketa fisikoaren alderdi psikologikoak eta mekanikoak;

teknologia berriak kirolean nola aplikatu; eta antzeko gaiak.

41. Euskadiko udal bat gara, eta kirol-teknikari plaza bat konbokatu nahi dugu. Bete behar al dugu 8/2022 LEGEA, Jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideei buruzkoa?

Ikusi egin behar zer funtzio profesional dauzkan lanpostuak. Funtzio profesional horiek kirol-arloko lanbideetako bati berez dagozkionak badira, 8/2022 LEGEA bete beharko da, baina, kontuz! Kirol-arloko teknikari guztiak ez daude, beti, kirol-arloko lanbideen eremuan. Baliteke kirol-teknikaria, adibidez, kirol-erakundeei dirulaguntzak emateaz arduratzea, edo kirol federatuaren programaz (federazioen jarduera kontrolatuz), orduan, ez da lanean ari jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetako batean.

42. Eta Berregokitzaile fisikoaren lanbidea? 8/2022 Legean araututa al dago?

Lanbide berezko eta independente gisa, ez. 8/2022 Legeko 9.8 artikulua, hala ere, entrenatzailearen espezialitate baten gisa jasotzen ditu fisikoa berregokitzeko funtzioak, eta, kasu horretan, "berregokitzaile fisiko" ere dei dakioke.

Zehatz-mehatz, artikulua horren arabera, entrenatzaileak bere lana egiten baldin badu kirolarien egoera fisikoa berreskuratzeko eta hobetzeko, lesioak prebenitzeko, lesio ostekoak berregokitzeko eta berriro hezteko, eta balorazio-testak eta antzekoak egiteko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduaren kualifikazio baliokideren bat eduki beharko du.

Era berean, 9.8 artikulua xedatzen duenez, entrenatzaileak gorputza berregokitzeko edo berrezteko zerbitzuak soilik ematen dituenean, "Berregokitzaile Fisikoa" ere deitu ahal izango zaio.

43. Eta Entrenatzaile Pertsonalaren lanbidea? 8/2022 Legean araututa al dago?

Lanbide berezko eta independente gisa, ez. 8/2022 Legeko 8.1 artikulua, hala ere, kirol-monitorearen espezialitate baten gisa jasotzen du. Artikulu horretan jartzen du, zehazki, kirol-monitoreak entrenatzaile edo prestatzaile pertsonalen funtzioak ere egin ditzakeela, lehiaketarako ez bada.

44. Eta kirolari bat entrenatzeko edo banan bana prestatzeko lan profesional hori lehiaketarako baldin bada?

Lanbide hori, orduan, entrenatzailearena da.

45. Helduak entrenatzen ditut maratoi herrikoietan parte hartzeko. Jakin nahiko nuke ea zer lehiaketek kualifikatzen duten entrenatzaile izateko: lehiaketa federatu ofizialek bakarrik?

Ez. Pertsonen eta taldeen prestakuntza fisikoa lehiaketara bideratuta badago, entrenatzaile gisa ari zara lan egiten, lehiaketa edonolakoa dela ere: ofiziala, edo ofiziala ez; profesionala edo amateurra; lurraldekoa, autonomia-erkidegokoa, estatukoa, nazioartekoa; federatua, unibertsitatekoa eta abar.

46. Egin dezagun kontu pertsona batzuen prestakuntza fisikoa daramadala. Batzuk, lehiaketarako prestatzen ditut; eta, beste batzuk, sasoia hobetzeko besterik ez. Zer lanbide da nirea?

Beste lan-eremu batzuetan bezalaxe, pertsona bakar batek kirol-arloko lanbide bat baino gehiago izan dezake. Pertsona bera, adibidez, unibertsitateko irakasle izan daiteke goizez, eta abokatu arratsalde; eta, gisa berean, beste pertsona bat Gorputz Hezkuntzako irakasle izan daiteke goizez, eta kirolerako monitore edo entrenatzaile arratsalde, eta abar. Era berean, pertsona batzuen monitore izan zaitezke (prestatu egiten dituzu, baina ez lehiaketarako), eta beste batzuen entrenatzaile (lehiaketarako prestatzen dituzu).

47. Euskal Autonomia Erkidegoan araututa al dago Gorputz eta Kirol Hezitzailearen lanbidea?

Ez. Hezkuntza-arloko lanbide bakarra dago: Gorputz Hezkuntzako irakaslea.

48. 8/2022 Legean araututako lanbideen izenak nahi den bezala erabil al daitezke?

Ez. Lege horretan jartzen duen bezala lan egiten denean bakarrik erabil daitezke izen horiek.

49. 8/2022 LEGEA indarrean jarri aurretik ere lanpostuek bazuten izenik. Zer gertatzen da izen horiekin, lanpostuaren funtzioak ez baldin badatoz bat 8/2022 LEGEko lanbide-izenekin?

Lanpostuen izen horiek mantendu daitezke, baina, ikusi beharko da benetan zer funtzio betetzen dituzten, eta, gero, kualifikazio-baldintzak egokitu egin beharko dira legeak eskatzen duenera, hori bai, langileek aurretiaz irabazitako eskubideak galdu beharrik gabe eta 8/2002 Legeak ezarritako arau iragankorrei eta gaikuntzei ere kasu eginez.

50. Badira izendapen batzuk legeak lotuta uzten dituenak gauza batzuetarako. Kontu egin dezagun 8/2022 Legean araututako lau lanbide horietako batean aritzen naizela, baina boluntario. Erabil al ditzakete izendapen horiek?

Bai, 8/2022 Legeko 11.3 artikulua araber, boluntario ari garenean ere erabil ditzakegu izen horiek -bakoitza bere kirolean-, arauak eskatzen dituen kualifikazioak errespetatzen badituzte.

51. Kirol-teknikariak kualifikazioaren arabera sailkatu nahi badituzte, Euskadiko kirol-federazioek eta antzeko beste kirol-erakundeek erabil al ditzakete izen desberdinak?

Bai, horretarako gaituta baitaude 8/2022 Legearen 11.4 artikuluan, baina gomendatzen da, nahasterik eragin ez dezaten, 8/2022 Legean ezarritakora ahalik eta gehien egokitzeko.

Nomenklatura desberdinen adibide bat Espainiako Futboleko Errege Federazioaren Erregelamendu Orokorra da (2022ko uztaileko edizioa): entrenatzaile titularra, entrenatzaile laguntzailea, hondartzako entrenatzaile titularra, hondartzako entrenatzaile laguntzailea, praktiketako entrenatzailea, praktiketako entrenatzaile tutorea, atezainen entrenatzaile espezialista eta abar.

52. 8/2022 Legeak eragiten al die urpekaritza profesionalarekin lotutako jarduera profesionalei, hau da, kirolerako edo aisialdiko ez den urpekaritza?

Ez. Joan 1,6. artikulura, eta ikusiko duzu jarduera horiek beren beregiz kanpoan uzten dituela. Aitzitik, 8/2022 LEGEAREN esparruan sartuta daude aisialdirako urpekaritza eta kirol-urpekaritza.

Har dezagun ekainaren 2ko 550/2020 Errege Dekretua, goazen 3. artikulura -han zehazten baitira urpekaritza-jardueren segurtasun-baldintzak-, eta ikus dezagun urpekaritza profesionalaren definizioa: jarduera ekonomiko edo enpresa-jarduera batean egiten den modalitatea da, eta ezingo da gainerako urpekaritza-modalitateen babesean garatu.

53. Zer da kirol-urpekaritza?

550/2020 Errege Dekretuko 3. artikularen arabera, kirol-urpekaritzatzat hartzen da *“aquella modalidad cuya finalidad es el ejercicio de una actividad deportiva de ámbito competitivo o preparatoria de ésta”*.

54. Eta aisialdirako urpekaritza?

Goazen, berriro, 550/2020 Errege Dekretuko 3. artikulura: *“que puede tener por finalidad el deporte no competitivo, la diversión, el recreo, el pasatiempo o el ejercicio físico”*.

55. Eta kirolarekin zerikusirik ez duen salbamendu eta sorospenari eragiten al dio 8/2022 Legeak?

Bai, baina azal dezagun: 8/2022 Legea, berez, kirol-salbamendu eta -sorospenera mugatzen da, hango monitore, entrenatzaile eta abarren lanbideak soilik arautzen ditu, baina, zortzigarren xedapen gehigarrian, kirolaz kanpoko lanbide bati ere eragiten dio: kirola egiteko ez den uretako sorospenari. Aurrerago azalduko dugu, atal berezi batean.

56. Eta kirolerako ez den parakaidismoa? 8/2022 Legeak ba al du hartan zeresanik?

Ez. 8/2022 LEGEAK kirol-parakaidismoko monitoreei, entrenatzaileei eta abarri soilik eragiten die, aireko kirolen modalitatearen barruan.

57. Kirolerako ez diren ibilgailu edo tresna motordunak: 8/2022 LEGEAK arautzen al du zer kualifikazio profesional eska daitekeen halakoak gidatzeko?

Ez. 8/2022 LEGEAK diziplina hauetako monitoreei eta entrenatzaileei soilik eragiten die: automobilismoa (mendia, rallya, zirkuitua, autokrosa, kartinga eta abar), motoziklismoa (triala, minimotorrak, motokrosa eta abar) eta motordun aparatuak edo ibilgailuak darabiltzaten gainerako diziplinak.

58. 8/2022 Legeak arautzen al du zer kualifikazio eska daitezkeen itsasontziak maneiatzeko edo gobernatzeko?

Ez. 8/2022 LEGEak uretako kiroltako monitoreei, entrenatzaileei eta abarri soilik eragiten die.

59. Eta kirol-instalazio edo -erakundeen kudeatzaile edo gerenteei eragiten al die 8/2022 Legeak?

Ez; ez, behintzat, ez badute betetzen kirol-zuzendarien funtzio espezifikorik jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatuz.

Baina, beste kudeaketa-funtzio batzuez gain, kirol-zuzendarien funtzio espezifikorik ere betetzen badute jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatuz, orduan bai, 8/2022 LEGEA bete beharko dute, lanpostuaren izena edozein dela ere.

60. Nori zer kualifikazio dagokion jakiteko, zer da garrantzitsuagoa: Lanpostuaren izena? Edo benetan zer funtzio betetzen dituen edo zertan jarduten duen?

Kontraesanik baldin badago lanpostuaren izenaren eta benetan betetzen diren funtzio profesionalen artean, azken horiei eman behar zaie lehentasuna.

Adibidez, klub profesional batean aritzen zara. Zure postuak Kirol Zuzendari izena du, baina, benetan, idazkaritza teknikoko lanak besterik ez duzu egiten (jokalarien edo entrenatzaileen fitxaketak, altak, bajak, berritzeak eta abar); bada, zuri ez zaizu 8/2022 LEGEA aplikatuko, gauza batean izan ezik: debekatuta daukazu lanbide baterako gordetako izendapena erabiltzea.

Baina, kontrara, "entrenatzaile" izena baldin baduzu lan-kontratuan, baina kirol-zuzendariaren eginkizunak soilik betetzen badituzu, azken lanbide horri dagokion kualifikazioa eskatu behar zaizu.

61. Goazen umeen eta gazteen aisialdira. Arlo horretako jarduera profesionali ere eragiten al die 8/2022 LEGEAK?

Dena delako kirol-jarduera hori nabarmen minoritarioa baldin bada jardueren programazio orokorrean, ez.

Ikus dezagun zer jartzen duen 2.5.k artikuluan: umeen eta gazteen aisialdirako jarduera profesionalak legearen aplikazio-eremutik at geratuko dira, "betiere kirol-jarduera fisikoak ez badu gaintitzen jardueraren programazio orokorraren % 25, eta haren helburu nagusia bada hezkuntza-eta jolas-aisia sustatzea, bai eta denbora librea okupatzea ere, baina ez kirol-helburu hutsa".

62. Ba, nik, militarrek fisikoki prestatzen lan egiten dut, indar armatuek EAEn duten zentro batean. 8/2022 LEGEA bete beharra daukat?

Ez. Goazen 8/2022 Legeko 2.g artikulura: beren beregiz dio ezen profesionalki prestakuntza fisikoa ematen jarduten baduzu indar armatuek EAEn dauzkaten zentroetan, zure jarduera horiek ez daudela legearen aplikazio-eremuan.

63. Mendi-bideetako teknikaria naiz. 8/2022 LEGEAK dakartzan kualifikazio-eskakizunak nik ere bete behar al ditut?

Ez. Mendi-bideetako teknikarien berezko jarduera profesionalak legearen aplikazio-eremutik kanpo daude, hala dio beren beregiz 8/2022 Legeko 2.h artikulua. Izan ere, berez, zurea ez da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbidea, ez baitu eskatzen jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatzea.

64. Dantzako irakaslea naiz. 8/2022 LEGEak dakartzan kualifikazio profesionalak nik ere bete behar al ditut?

Ez. 8/2022 LEGEA bete behar duten irakasle bakarrak Gorputz Hezkuntzako irakasleak dira.

65. Kirol-dantzako entrenatzailea naiz. Inork eska al diezazkidak 8/2022 LEGEko kualifikazioak?

Bai. Jarduera profesional gutxi geratzen da 8/2022 Legearen aplikazio-eremutik kanpo: bakar-bakarrak, kirol-arlokoak ez diren dantzak.

66. Jarduera fisikoarekin eta kirolarekin lotutako lanbideak 8/2022 Legean arautzen al dira?

Ez. Jarduera fisikoaren eta kirolaren berezko lanbide batzuk baino ez dira arautzen, eta ez, besterik gabe, arlo horretara "lotuta" dauden lanbideak. Izan ere, kirolera lotuta dauden lanbide batzuetan ez dira aplikatu behar jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak, horra hor, adibidez: kiroleko abokatu espezialistak, kirol-psikologoak, kirol-medikuak, kirol-fisioterapeutak eta abar; eta lanbide horiek beste lege batzuen mende daude.

67. Zer dira Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko berezko lanbideak?

Lege honen ondorioetarako, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko berezko lanbidea da kirol-arloan garatzen dena eta jarduera fisikoaren eta kirolaren zientzien arloko jakintza eta teknikak aplikatzea eskatzen duena.

68. 8/2022 LEGEAREN ondorioetarako, zer da kirola: lehia-kirola eta ofizialki aitortutako modalitateak? Hori da kirola?

Ez. 8/2022 LEGEAREN ondorioetarako, gauza gehiago dira jarduera fisikoa edo kirola. Kirola izan daiteke osasuna sustatzeko, sasoi fisikoa edo psikikoa erakusteko edo hobetzeko, lagunarteak sortzeko edo edozein mailatako lehiaketetan emaitza batzuk lortzeko, eta parte hartu daiteke antolaturik edo beste era batera: horrelako jarduera fisiko guztiak dira kirola.

69. Estatuko Administrazio Orokorreko lan egiten dut; 8/2022 LEGEA bete behar dut?

Ez. Ikus dezagun 2.8 artikulua. Han jartzen duenez, aipatzen denean sektore publikoan nola sartu eta jardun behar den kirol-arloko lanbideetan, ulertu behar da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta Foru eta Toki Administrazioeko sektore publikoaz ari garela, bai lanpostuetara sartzeari dagokionez, bai zerbitzu profesionalak kontratatzeari dagokionez.

70. 8/2022 Legeak lanbide bakoitzari esleitzen dizkion eginkizunen artean, sar al daiteke azterlanak, irizpenak edo txostenak egitea?

Bai. 8/2022 Lege honetan lanbide bakoitzari esleitzen zaizkion eginkizunen barruan sartzen da irizpenak, ikerlanak, txostenak, aditu-txostenak eta antzekoak egitea, baldin eta dena delako lanbidera iristeko kualifikazioek eginkizun horiek bete beharra eskatzen badute, edo egiaztatzen bada gaitasun horiek beste bide batzuetatik eskuratu direla.

71. Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua daukat. Zer egin dezaket? 8/2022 LEGEAN nire unibertsitate-titulurako aipatzen diren lanak bakarrik?

Ez. 8/2022 Lege honetan araututako lanbide bakoitzak eginkizun batzuk ditu esleiturik, baina eginkizun horiek ez dute mugatzen titulazioen esparru profesionala (kualifikazioak egiaztatzeko titulazioez ari gara).

Zuk, esate baterako, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Graduak unibertsitate-titulua daukazu, bada, 8/2022 Legean araututako lanbideez gain, Batxilergoko irakasle ere izan zaitezke beste irakasgai batzuetan (Gorputz Hezkuntzan ez), Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko irakasle izan zaitezke, udal bateko kirol-instalazioetako teknikari eta abar.

II.- JARDUERA FISIKOAREN ETA KIROLAREN ARLOKO LANBIDEETARAKO KUALIFIKAZIOAK

72. Zer kualifikazio eduki behar da, 8/2022 Legean araututako lanbide eta jarduera profesionaletan aritzeko?

ERANSKINA ikusi azken orrialdean, han zehaztu baitugu, taula batean, zer lanbidetan aritu zaitezketen, eta zer kualifikazio profesional eskatuko zaizuen.

73. Eta bi lanbide baldin badauzkat, eta bakoitzerako kualifikazio ezberdinak behar badira? Bi kualifikazioak behar al ditut?

Bai.

74. Titulazio batzuek jarduera profesional batean aritzeko atea zabaltzen dute, baina beste batzuek ez: zer irizpide erabili da erabaki horiek hartzeko?

Jarduera profesional bakoitzerako, titulazio batzuk edo prestakuntza-modu batzuk eskatzen ditugu, titulazio-preskuntza horien curriculumari begiratuta; alegia, dena delako curriculumak gaindituz gero, badakizu nahikoa, bazara gai, dena delako lanbidean aritzeko. Hori izan da irizpidea. Halaber, kirol-arloko eremu edo diziplina jakin batzuetarako, kasuan kasuko titulazio edo prestakuntza espezifikoak gainditu dituzten pertsonen gain, lanbide horretan jardun ahalko dute prestakuntza orokorra gainditu duten eta dagozkien kirol-eremu edo -diziplinetan nolabaiteko prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia eduki edo eskuratu dutela egiaztatzen duten

pertsonek.

75. 8/2022 LEGEAn lanbide-kualifikazioak (edo kualifikazio profesionalak) aipatzen dira etengabe, eta ez titulazio akademikoak. Zergatik? Zer esan nahi du?

Lanbide-kualifikazioa titulazio akademikoa baino kontzeptu zabalagoa da, beste era batzuetara ere egiazta baitaiteke, ez bakarrik titulazio akademikoa egiaztatzen den bezala.

Lanbide-kualifikazioa, lege honen ondorioetarako, lanbide jakin batean sartzeko edo jarduteko gaitasuna da, ofizialki egiaztatzen dena prestakuntza-titulu baten bidez, gaitasun-ziurtagiri baten bidez edo formalki onartutako lan-esperientziaren bidez. Lege honetako lanbideetara iristeko kualifikazioak honela egiaztatu ahal izango dira: legean bertan (artikuluetan) adierazten diren titulu akademikoen bidez edo lanbide-mailako agiri baliokideen bidez, edo une bakoitzean indarrean den ordenamenduan ofizialtzat jotzen diren beste titulu edo ziurtagiri ofizial batzuen bidez.

76. 8/2022 LEGEAn, titulu edo ziurtagiri ofizialak aipatzen dira behin baino gehiagotan. Zein dira titulu edo ziurtagiri horiek?

8/2022 Lege honen ondorioetarako, honako hauek izango dira titulu edo ziurtagiri ofizialak: Hezkuntza Administrazioak hezkuntza-arloko legeen bidez araututako ikasketetan ematen dituen titulu eta ziurtagiriak, Lan Administrazioak lanbide-kualifikazioei buruzko legeen esparruan ematen dituenak eta Kirol Administrazioak kirol-legeen esparruan ematen dituenak.

77. Zer dira profesionaltasun-ziurtagiriak, eta jarduera fisikoen eta kirolaren familian zer ziurtagiri daude?

Profesionaltasun-ziurtagiriek lan-administrazioan (gure Lanbiden) kualifikazio profesionalak ofizialki egiaztatzeko balio dute (gaztelaniaz, "certificados de profesionalidad" esaten zaie, baina "certificados profesionales" ere izena dute, izen hori ere erabiltzen baita Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzeko martxoaren 31ko 3/2022 Lege Organiko berrian (oraindik itzuli gabe dago). Lanbide batean aritzeko, gaitasun profesional batzuk behar dira, bada, ziurtagiri horiek horretarako daude, gaitasun horiek egiaztatzeko. Estatu osoan dira ofizialak eta baliozkoak.

78. 8/2022 LEGEAREN ondorioetarako ofizialak al dira federazio-diplomak?

Ez, baina kirol-federazioak zentro baimenduak ere izan daitezke, eta prestakuntza akademikoa ere eskain dezakete, kirol-teknikariaren edo goi-mailako kirol-teknikariaren titulu akademiko ofizialak lortzeko.

79. Amaitu dut eskolako monitore izateko prestakuntza, foru-aldundiak antolatua. Jardun al dezaket eskola-kiroleko entrenatzaile edo monitore gisa?

Foru-aldundiek antolatu baldin badute, legearen arabera, eskolako monitore-prestakuntza ez da aski, ez da nahikoa egiaztatzeko prestaturik zaudela kirol-arloko lanbide batean jarduteko orokorrean.

Nolanahi ere, legea indarrean jarri baino lehen prestakuntza hori gainditu dutenak behin-behinean gaituta egongo dira eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretan entrenatzaile edo monitore izateko, 2026ko urtarrilaren 1era arte.

Behin-behineko gaikuntza eskuratu duten gainerako pertsonak bezala, ondoren, eskuratutako konpetentziak aitortzeko prozesua gainditu beharko dute, esperientziaren eta prestakuntza formalaz bestekoaren bidez.

80. Langile batzuek prestakuntza-kontratuak dauzkate (Langileen Estatutuko 11. artikuluan datoz jasota). Eska al dakieke kualifikazio profesionalik?

Ez. Prestakuntza-kontratu horiek dauzkaten langileei ezin zaie kualifikazio profesionalik eskatu (8/2022 Legean aurreikusitako kualifikazioez ari gara, jakina).

Baina langile horiek erantzukizunpeko adierazpena bai aurkeztu beharko dute EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalek Erregistroan, gerora kontrola egin ahal izateko (egin behar bada).

81. Jarduera Fisikoen Zientzietako Gradua edo legean jasotako beste edozein titulazio ikasten ari direnak izan al daitezke monitore edo entrenatzaile, ikasketak egin bitartean?

Legearen arabera, eskatzen den kualifikazioa egiaztatzeko, dagokion titulua edo ziurtagiria eduki behar du, eta, beraz, hasiera batean behintzat, ez, ezingo luke.

Nolanahi ere, legea arian-arian aplikatzea aurreikusi da. Hori dela eta, egiaztatzen bada une jakin batean ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen nahikoa profesionalik eskaintzari behar bezala erantzuteko, kualifikazio apalagoa edo antzeko beste prestakuntza-mota bat dutenak gaituko dira behin-behinekoz. Kasu horretan, ikasketen zati bat gainditu duten ikasleak egon ahalko dira behin-behinean gaitutako pertsonen artean.

82. Eta ikasketetako praktikak egiten dituzten bitartean?

Ezta ere. Ez da nahikoa ondo erantzuteko 8/2022 Legean ezarritako betebeharrak guztiei. Praktikak titulazio akademiko baten ikasketen parte dira, eta gainditu arte ez da titulazioa eskuratzen.

83. Aldi iragankorrean (transitorioan) badira kirol-prestakuntza batzuk ofizialki aitortuak. 8/2022 LEGEAK kirol-teknikariaren eta goi-mailako kirol-teknikariaren titulazio akademikoak aipatzen dituenean, beste haiek ere baliozkotzat hartzen al ditu?

Bai. 8/2022 Legeko zazpigarren xedapen gehigarriaren arabera, Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulazio akademikoak egiten zaizkien aipamenek (lege honetan ezarri dira titulu horiek) honako prestakuntza hauetatik eratorritako titulazioetarako ere balio dute:

a) Aldi iragankorreko kirol-prestakuntzak, ofizialki onartuta baldin badaude.

b) Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulua daukaten modalitate edo espezialitateetan, lehenagoko prestakuntza federatiboak, baldin eta onargarriak badira indarreko

legeriaren arabera.

c) Kirol-teknikariaren eta Goi-mailako kirol-teknikariaren titulurik ez duten modalitate edo espezialitateetan, lehenagoko prestakuntza federatiboak, baldin eta aukera ematen badute aldi iragankorreko kirol-prestakuntzetara sartzeko, edo aitortza gerorago lortzeko.

84. 8/2022 LEGEAK Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua aipatzen duenean, bi titulu akademiko hauek baliokidetzat jotzen al dira: Gorputz Hezkuntzako Lizentziatura eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatura?

Bai.

85. Amaitu dut Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua. Kirol-arloko edozein jarduera profesionalean aritu naiteke?

Amaitu baldin baduzu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua, prestakuntza zabala izango duzu jarduera fisikoaren eta kirolaren esparruan, eta, horregatik, aski gaituta zaude 8/2022 LEGEAN aurreikusitako lanbide-jarduera gehienetarako.

Baina, esparru batzuetan lan egin ahal izateko, esperientzia ere beharko duzu (zehatza eta egokia), edo prestakuntza espezifiko, ikasketetan bertan edo ikasketetatik kanpo lortua. Adibidez, entrenatzaile izan nahi baldin baduzu, ikusi beharko da zer modalitate edo diziplinatarako daukazu esperientzia egokia edo prestakuntza espezifiko, eta hartan bakarrik jardun ahal izango duzu.

86. Jarduera profesional batzuetarako, 8/2022 Legeak, dagokion kualifikazio nagusiaz gain, nolabaiteko esperientzia egokia edo prestakuntza espezifiko ere eskatzen du. Zer esan nahi du horrek?

Jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbide batean sartzeko, 8/2022 Legeak, oro har, prestakuntza akademiko nagusi bat eskatzen du, hori da oinarritzko euskarria; baina, gainera, eremu profesional jakin batzuetan lan egiteko (arisku-kirolak, desgaitasuna dutenekin lan egiteko, kirol-modalitate edo -diziplina jakin batzuetan eta abar), osagarri bat eskatzen da, alegia, esperientzia egokia edo prestakuntza espezifiko.

Adibidez, errendimenduko kirol-lehiaketetan entrenatzaile gisa jarduteko. Halakoetan, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua dutenek ere jardun dezakete, baina dena delako modalitatean prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia edukitzea eskatzen zaie.

87. Nola egiazta daiteke prestakuntza espezifiko?

Oraindik ez dago zehazturik; garapen-dekretu baten zain gaude.

Baina, 8/2022 Legearen arabera, arau orokor gisa, prestakuntza espezifiko egiaztatu ahal izango da titulu, ziurtagiri edo prestakuntza ofizialen bidez. Era berean, baliteke dena delako kirol-jarduera edo -modalitatetarako prestakuntza espezifiko titulazio orokor jakin batzuetan sartuta egotea; bada, 8/2022 Legearen arabera, horrela ere egiazta daiteke prestakuntza espezifiko.

8/2022 Legearen arabera, halaber, amaitu gabeko prestakuntza ofizialak ere onar daitezke, titulu

edo ziurtagiri ofizial baten zati bati dagozkionak, jakina.

88. Baina nork zehaztu behar du kasu bakoitzean zenbatekoa izan behar duen prestakuntza espezifiko eta esperientzia egoki horrek eta nola aitortu behar den?

Hasiera batean behintzat, Eusko Jaurlaritzak, eta zehatzago esanda, kirol-arloko eskumena duen sailak.

89. Eta ez baldin badago nahikoa prestakuntza espezifiko ofizialik? Zer gertatzen da?

Kasu hori bigarren xedapen iragankorrean dago berariaz aurreikusita. Han jartzen duenez, prestakuntza-eskaintza ofizialik ez badago edo eskaintza horiek nahikoak ez badira, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak behin-behineko gaikuntza eman ahal izango die kualifikazio txikiagoa edo antzeko prestakuntza egiaztatzen dutenei.

Halakoetan, behin-behineko gaikuntzarako, ofizialak ez diren prestakuntza, titulu edo ziurtagiriak ere onar daitezke, baldin eta gutxieneko kalitate-baldintza batzuk betetzen badituzte. Ofizialak ez diren prestakuntza horien adibide bat federazio-diplomak izan daitezke.

90. Prestakuntza espezifiko eta esperientzia egokia egiaztatzeko baldintzak eta prozedura oraindik ez dira erregelamendu bidez arautu. Bien bitartean, jardun al daiteke lanbidean, prestakuntza espezifiko eta esperientzia egokia egiaztatu gabe?

Ez.

91. Amaitu dut Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua. Orain, gustatuko litzaidake lan egitea prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia eskatzen duten jarduera profesional batzuetan. Prestakuntza espezifikoren bat egin nahian nabil, baina, ba al dakizue, gutxi gorabehera, zenbat ordu eskatuko zaizkidan?

Oraindik ez gara dekretua izapidetzen hasi, baina, hasiera batean behintzat, asmoa da gutxienez 60 orduko prestakuntza teoriko-praktikoa eskatzea.

92. Ba al dakizue gutxi gorabehera zenbat ordu eskatuko zaizkidan, erakusteko dena delako kirol-modalitatean badudala esperientzia egokia?

Oraindik ez gara dekretua izapidetzen hasi, baina, hasiera batean behintzat, beheko kirol-mailetan, asmoa da gutxienez urtebeteko edo 600 orduko esperientzia espezializatua eskatzea.

93. Prestakuntza espezifiko horrek ofiziala izan beharko du?

Hasiera batean, bai.

Behin bakarrik onartuko dira, salbuespen modura, ofizialak ez diren titulu edo ziurtagiriak: prestakuntza-eskaintza ofizialik ez badago edo nahikoak ez badira; baina kasu horiek aldeztu aurretik

aitortuko dira, Autonomia Erkidegoko Kirol Administrazioaren dagokion ebazpenaren bidez.

94. Prestakuntza ofizial hori zer izan behar da: titulu zehatz bat, edo beste titulazio baten parte izan daiteke?

Edo titulazio, ziurtagiri edo prestakuntza ofizialen bidez egiaztatzen duzue, edo titulazio akademiko orokor jakin batzuen bidez, baina, orokorrak izangatik ere, kirol-arlo edo -jarduera horretako prestakuntza espezifikoa erakutsi beharko dute.

Egin dezagun kontu Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua daukazula, eta kirol-modalitate jakin batean lan egin nahi duzula, bada, baliteke modalitate horretako kirol-teknikariaren hasierako zikloa ikasita edukitzea.

Edo agian -beste adibide bat jartzearen-, baliteke unibertsitate-graduan bertan 60 ordu baino gehiago egin izana kirol-modalitate jakin bati buruz.

95. Eskola-adineko kirolariek egiten diren jardueretan, ez dago titulu ofizial edo profesionaltasun-ziurtagiri espezifiko nahikorik kirol anitzeko jardueretan lan egiten duten monitoreentzat. Zer gertatuko da kasu horretan?

8/2022 LEGEAK aurreikusten du kasu horretan Kirolaren Euskal Eskolak prestakuntza-ekintza espezifikoak sustatuko dituela eskola-adineko kirolariek lan egiten dutenentzat.

Prestakuntza horiek gainditu izana egiaztatzen dutenek, hortaz, eskola-kiroleko kirol anitzeko jardueretan monitore eta entrenatzaile izateko gaikuntza izango dute. Aritu daitezke, halaber, modalitate bakar batera bideratuta dauden eta hastapenekoak edo oinarritzko mailakoak diren eskola-kiroleko jardueretan, baldin eta prestakuntza-jarduerak dagozkion modalitate edo diziplinako modulu espezifikoak izan baditu eta kirola arriskukoa ez bada.

96. 8/2022 LEGEAK behin baino gehiagotan aipatzen ditu profesionaltasun-ziurtagiriak. Zer dira profesionaltasun-ziurtagiriak, eta zer ziurtagiri daude jarduera fisikoen eta kirolaren familian?

8/2022 LEGEAK "profesionaltasun-ziurtagiriak" aipatzen ditu; kontzeptu hori darabil. 3/2022 Lege Organikoak, ordea, "Ziurtagiri profesionala" darabil (martxoaren 31ko Legea, Lanbide Heziketa Antolatu eta Integratzekoa). Lege Organiko horretako bigarren xedapen iragankorraren arabera, profesionaltasun-ziurtagirien araubideak indarrean jarraituko du *harik eta Lanbide Heziketako Sistema berriaren barruan erregelamendu bidez garatzen den arte*.

Profesionaltasun-ziurtagiriak urtarilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretuan daude arauturik, kualifikazio profesionalak ofizialki egiaztatzeko tresnak dira, ofizialak eta baliozkoak dira Estatu osoan, eta lan-jarduera bat garatzeko gaitzen duten konpetentzia profesionalen multzoa egiaztatzen dute.

97. Egin kontu jakin nahi dugula zer profesionaltasun-ziurtagiri dauden Jarduera Fisikoen eta Kirol Jardueren familia profesionallean. Non begiratu daiteke?

Esteka honetan, jarduera fisikoen eta kirol-jardueren lanbide-arloko profesionaltasun-ziurtagiriak kontsulta ditzakezu:

<https://sepe.es/HomeSepe/eu/Personas/formacion/certificados-profesionalidad/familias-profesionales/actividades-fisicas-deportivas.html>

III.- GORPUTZ-HEZKUNTZAKO IRAKASLEA

98. Gorputz Hezkuntzako irakasleak dagoeneko arauturik daude hezkuntza-sisteman, bai zati batean behintzat; beraz, lege honek nola eragiten die?

Gorputz Hezkuntzako irakasleei, jakina, Estatuko eta autonomia-erkidegoko hezkuntza-araudia aplikatzen zaie, eta, gainera, 8/2022 Legeko xedapen espezifikoak. Arau osagarriak dira, ez du batak bestea baztertzen.

Orokorrean, kirol-arloko gainerako profesionalei bezala eragiten die, baina badira berezitasun batzuk. Gorputz Hezkuntzako irakasle izateko, honako baldintza hauek bete behar dituzte:

a) Kualifikazio jakin bat eduki beharko dute. Legeak, kasu honetan, ez du zehazten gorputz-hezkuntzako irakasleek zein kualifikazio zehatz eduki behar duten. Horren orde, hezkuntzaren gaineko legedian ezarritakora jotzen du.

b) Lehen sorospenetako prestakuntza ere eduki beharko dute.

c) Estatuko legeriak hala egin behar dutela xedatzen badu, dagokien elkargo profesionalen sartu beharko dute, edo, bestela, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan, non eta ez diren jada administrazio publikoan lanean ari administrazio-zuzenbidearen edo laneko-zuzenbidearen bidez loturik, baina, hala bada ere, administrazio publikoak Erregistroa bidali beharko du legeko 12. artikuluan ezarritako informazioa.

99. 8/2022 LEGEAREN arabera, Gorputz Hezkuntzako irakaslearen lanbideak zer egiteko aukera ematen du?

Dagokizuen hezkuntza-mailan Gorputz Hezkuntzako eskolak emateko; eta hezkuntza-legerian aurreikusitako funtzio instrumental edo eratorri guztiak betetzeko.

Gainera, 8/2022 Legeak beste jarduera profesional batzuetarako ere gaitzen zaituzte, hala nola hezitzaile gisa jarduteko eskola-kirolean edo eskola-adinekoen jarduera fisiko edo kirolean. Halaber, arlo horietan koordinazio-lanak egiteko gaituta egongo zarete, baita plangintza-, ebaluazio-, zuzendaritza- eta jarraipen-lanak egiteko ere.

100. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz. Ikasleei eskolak emateko orduan derrigorrezkoa al da ni ere bertan egotea?

Bai. 8/2022 LEGEAK betebeharrak hori ezartzen du, arrazoi bategatik: Gorputz Hezkuntzan gertatu izan da ikasleek istripuak izatea eta irakaslea han ez egotea; atzetik, gero, erantzun zibileko eta ondare-erantzukizuneko demandak etortzen dira irakasleen aurka, ikastetxeen aurka eta abar, eta

arazo hori konpondu nahian ezarri da betebeharrak hori.

Hala ere, koordinazio-, plangintza-, ebaluazio-, zuzendaritza- eta jarraipen-lanak egiten dituztenean, ez duzue zertan bertan egon.

101. Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea naiz, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Sailean). Eskolak unibertsitatean ematen ditudanez, niri eragiten al di? Legeak?

Ez. 8/2022 Legearen arabera, kirol-arloko irakasle batzuk at geratzen dira, hain zuzen ere, unibertsitatekoak, lanbide-heziketakoak, araubide bereziko kirol-irakaskuntzetakoak, karrera militarrekoak, formalak ez diren prestakuntza-jardueretakoak eta berez Gorputz Hezkuntzakoak ez diren beste gai batzuk ematen dituztena.

102. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz. Niretzat derrigorra al da erantzukizun zibileko aseguruaren kontratatzea?

Ez. 8/2022 Legeak dio, berariaz, ikastetxe publikoetan lan egiten duten Gorputz Hezkuntzako irakasleek ez dutela obligazio hori, beste araudi bat dutelako, beraienak.

Gorputz-hezkuntzako beste irakasle batzuk ikastetxe pribatuetan aritzen dira besteren kontura, eta badutenez beren erantzukizun-aseguru edo antzeko bermea, haiek ere ez dute erantzukizun zibileko aseguru hori harpidetu beharrik izango.

103. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, lanaldi partzialean aritzen naiz, itunpeko ikastetxe pribatu batean. Arratsaldeetan pilates eta aerobik irakasten dut udal-kiroldegian, langile autonomo gisa. Kontratatu behar al dut erantzukizun zibileko aseguruari?

Goizez Gorputz Hezkuntzako irakasle izateko, ez; baina bai arratsaldean udal-kiroldegian Kirol Monitore autonomo gisa lan egiteko.

104. Gorputz-hezkuntzako irakasleok, bertan egon gabe ere egin al dezakegu gure lana?

Ez. Ikasleei Gorputz Hezkuntzako eskolak ematen zaizkienean, irakasleak bertan egon behar du.

Hala ere, baliteke eskola-adinekoen jarduera fisiko eta kirolaren esparruan aritzea baina koordinazio-, plangintza-, ebaluazio-, zuzendaritza- eta jarraipen-lanetan, orduan ez dute zertan bertan egon.

105. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, eta jakin nahi dut ea eskola-orduetatik kanpo edo beste erakunde batzuetan ere aritu naitekeen kirol-zuzendari gisa eskolako kirol-jardueretan.

Bai. Egin dezagun kontu baduzula nahikoa kualifikazio Gorputz Hezkuntzako irakaslea izateko, orduan, bazara gai orobat zure ikastetxean ordutegiz kanpo edo beste erakunde batzuetan programatzen diren eskolako kirol-jarduerak sustatu, planifikatu, programatu, koordinatu, ebaluatu edo zuzentzeko. Hala jartzen du 8/2022 Legeko 10.7 artikuluan.

Baina egin dezagun kontu, ordea, modalitate edo diziplina bakarreko lehiaketetan aritzen zarela, edo naturan egiten diren jardueretan, edo animaliekin, orduan, dena delako kirol-jarduerarako prestakuntza espezifiko ere eskatuko zaizu.

106. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz; entrenatzailea ere izan naiteke?

Bai. 8/2022 LEGEko 9.6 artikularen arabera, Gorputz Hezkuntzako Irakaslearen lanbidean jarduteko beharrezkoa den kualifikazioa dutenek ahalmena izango dute Entrenatzaile lanbidean jarduteko, bigarren eta hirugarren apartatuetan aipatzen diren kirol-lehiaketetan, bai ikastetxeetan irakastorduez kanpo programatzen direnetan, bai beste erakunde batzuetan programatzen direnetan. Baina, horretarako, irakaslearen kualifikazioak bateragarria izan behar du ikasleen adinarekin, edo ikasle horiek gazteagoak izan behar dute.

Ordea, kirol-modalitate edo -diziplina bakarreko lehiaketetan aritzen bazara, edo naturan edo animaliekin egiten diren jardueretan aritzen bazara, dagokion kirol-jarduerarako prestakuntza espezifiko ere eskatuko zaizu.

107. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz; monitore ere izan naiteke?

Goazen 8.8 artikulura; honela dio,hitzez hitz: “Gorputz Hezkuntzako irakaslearen lanbidean jarduteko beharrezkoa den kualifikazioa dutenek ahalmena izango dute kirol-monitorearen lanbidean jarduteko, bai ikastetxeetan irakastorduez kanpo programatzen diren kirol-jardueretan, bai beste erakunde batzuetan programatzen direnetan, betiere, ikasleen adina bat badator beren irakaskuntza-kualifikazioarekin. Kirol-modalitate edo -azpimodalitate bakarrera espezifikoki bideratutako jardueretan edo artikulua honen seigarren zenbakian jasotako arriskudun jardueretan arituz gero, aurreko ez gain, dagokion kirol-modalitateko prestakuntza espezifiko edo esperientzia egokia eskatuko da.”

IV.- KIROLETAKO MONITOREA

108. Zer alde dago kiroleko monitorearen eta entrenatzailearen artean?

Entrenatzailearen lana lehiara bideratuta dago; monitorearena, ordea, ez.

109. Beste izenik bada kirol-monitorearentzat?

Baliteke, monitore izan arren, egokitzen zerbitzuak besterik ez ematea edo entrenamenduan egitea, edo prestakuntza pertsonalean baino ez jardutea; orduan, 8/2022 Legearen arabera, izenez, entrenatzaile pertsonala ere izan zaitezke.

Baliteke, era berean, kirolarien edo kirolari-taldearen kirol-monitore izatea baina haien prestakuntza fisikoa besterik ez lantzea eta lehiarako bakarrik; orduan, izenez, prestatzaile fisikoa ere izan zaitezke. Halakoetan, lan egiteko, Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Gradua eduki behar da.

110. Kirol-etako monitorea baldin bazara, baliteke egokitzapen fisikoa lantzen jardutea, edo irakatsi-ikasi alorrean lan egitea. Zer alde dago?

Diferentzia da lehenengo helburua zein duten, eta zer ikuspegi darabilten. Egokitzapen fisikoa lantzen baduzu (fitness arloko gauza gehienak: aerobik, indoor zikloa, pilates, muskulazioa, eta abar), kirolgileen sasoi fisikoa hobetu edo mantentzeko ari zara batez ere, hori da zure lehen helburua; ordea, irakaskuntzan ari bazara, ikasleek jarduera bat edo batzuk ikas ditzaten ari zara, kirol-arlokoak edo fisikoak izango dira, baina ez lehiarako (igeriketa, patinajea, kirol anitza, kirol-jokoak, eta abar), edo besterik gabe ondo pasa dezaten (mendian ibiltzea, parapentea, abentura anitza...).

111. Zer funtzio betetzeko aukera ematen du Kirol Monitorearen lanbideak?

Funtzio hauek: plangintza, instrukzioa, ikaskuntza, animazioa, egokitze fisikoa, sasoi berreskuratzea edo hobetzea, entrenamendu edo prestaketa pertsonala, monitorizazioa, kontrola, gidaritza, laguntza, ebaluazioa eta antzekoak. Edozein kirolari edo kirolari-talderentzat egin ditzakezu, baina dena delako jarduera horrek ezin du egon bideratuta errendimenduko kirol-lehiaketetara.

112. Kirol-monitorea naiz. Prestakuntzako edo hastapeneko lehiaketetan ere egin al dezaket nire monitore-lana?

Bada ibilbide bat kirolean parte hartzeko, eta lehiaketa horiek ibilbide horren barruan baldin badaude berez, bai, alegia, "eskema hautatzaile hutsetik kanpo garatzen" badira; hala jartzen du Eskola Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuko 7. artikuluan.

Dekretu horretako 7,2 artikuluan, aitzitik, errendimenduari ekiteko lehiaketak edo lehiaketa muriztuak aipatzen dira; bada, funtzio profesionalak lehiaketa horietan betetzen badituzu, izan kirolariek edo izan ekipoekin, zu, lanbidez, entrenatzailea zara.

113. Gazte-kategoriako lehiaketak hastapeneko edo oinarrizko kategoriatzat hartuko al dira?

Oro har, adin horretan dauden kirolariek denbora bat daramate dena delako modalitate horretan, eta, beraz, lehia-kategoria horiek ezin dira hastapen-kategoria gisa izendatu.

Izan ere, umeen kategorian bertan ere bada lehiaketarik errendimendura bideratua, jokalariek alde aurretik hautatuta (adibidez, futbola).

Ikus dezagun zer dioten 8/2022 Legeak, bigarren xedapen iragankorrean, hitzez hitz: "Apartatu honen ondorioetarako baino ez, hastapeneko edo oinarrizko kirolaren eremukoak izango dira gazte-kategoriara arteko kategoria baxuagoak, kategoria hori alde batera utzita".

114. Izan al zaitezke Kirol Monitore, lana aurrez aurre egin gabe?

Adingabeekin edo beste arrisku-talde batzuekin lan egin behar baduzu, kirol-jarduerak egiten

dituztenean bertan egon behar duzu, eta jarduera horiek naturan edo animaliekin egin behar badituzte ere bertan egon behar duzu, non eta zure lana ez den plangintza eta programazioa.

V.- KIROLETAKO ENTRENATZAILEA

115. Egin kontu entrenatzailea izan nahi dudala EAEko futbol, saskibaloia edo horrelako beste kirol bateko kategoriatik goreneko talde profesional batean. Ezinbestekoa al da Goi Mailako Kirol Teknikarien titulazio ofiziala edukitzea?

Ez. 8/2022 Legeak badakar gaikuntza edo habilitazio automatikoa bat, euskal kirolariak edo taldeak parez pare lehia daitezen kategoriatik berera beste erkidego edo herrialde batzuetatik datozen lehiakideekin; alegia: errendimendu handiko lehiaketetan entrenatzaile-lanak egiten badituzu eta dena delako federazio espainiarrak edo nazioartekoak eskatzen duen titulazioa baldin badaukazu, automatikoki gaituta zaude. Noiz arte balioko duen gaikuntza horrek? 8/2022 Legeak berak kualifikazio batzuk eskatzen ditu, eta ikusi egin beharko da ea dena delako federazio espainiarrak edo nazioartekoak noiz arte uzten duen kualifikazio horiek gabe edo beste batzuekin lan egiten; ordura arte.

116. Hartu dut 8/2022 Legea, joan naiz lehen xedapen iragankorrera, eta, errendimendu handiko kirol-lehiaketak aipatzen dituenean, "bosgarren xedapen gehigarrian ezarrita" daudela dio, baina han ez dago halakoen erreferentziarik.

Akatsa da. Eusko Legebiltzarrerara igorritako lege-proposamenean, errendimendu handiko kirol-lehiaketak bosgarren xedapen gehigarrian aipatzen ziren, baina, izapidetze parlamentarioaren ondoren, 4. artikuluan geratu dira aipaturik, honela: "Lege honen arabera, goi-errendimenduko kirol-lehiaketak izango dira nazioarteko kirol-federazio eskumendunek edo dagokion nazioarteko liga profesionalak baimentzen, ikuskatzen eta arbitratzen dituzten nazioarteko lehiaketa absolutuak, kirol-egutegi ofizialetan sartuta daudenak; estatu-mailako kategoriatik absolutu goreneko lehiaketa profesional eta ez-profesionalak eta Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak zehazten dituenak".

117. Jarduera batzuk, diziplina edo kirol anitzekoak dira; beste batzuk, diziplina bakarreko jarduera bat baino gehiagokoak. Bereizketa horrek badu zeresana monitoreen eta entrenatzaileen kualifikazioan, ez baita berbera. Hortaz, nola bereizi bi jarduera mota horiek?

Diziplina anitzeko jarduera batek (kirol anitza adibidez...) hainbat kirol-diziplinako edo jarduera fisikoko jarduera, ariketa edo jolasak garatzen ditu saio berean edo hainbatean, kirol-diziplina edo modalitate batera edo gutxi batzuetara zehazki bideratu gabe.

Aitzitik, egin kontu kirolariak, ikastaro edo denboraldi guztian, adibidez bi edo hiru diziplina aukeratzen eta praktikatzen dituela, berdin dio jarraian edo blokeka; halakoetan, jarduera horiek

diziplina bakarreko jarduerak izango dira, eta, beraz, profesionalak kirol-diziplina bakoitzari dagokion kualifikazioa eduki beharko du.

118. Egin kontu gure jarduera modalitate edo diziplina bakarrekoa dela, eta jakin nahi dugula ea hastapeneko kirola edo oinarrizko kirola den. Nola jakin?

8/2022 Legeko 4. artikularen arabera, hauek izango dira kirol-hastapeneko edo oinarrizko mailako jarduerak: kirola egiten dutenek edo kirolariak, edozein adin izanda ere, jarduera ikasteko aurreneko faseetan egiten dituztenak.

119. Kirol-diziplina edo -modalitate bakar batean jarduten dugu. Nola jakin erdi-mailan edo teknika hobetzeko mailan aritzen garen?

Erantzuna 8/2022 Legeko 4. artikuluan dator: erdi-mailako jardueretan, kirolariak teknika hobetzeko etapan egoten dira, jarduera ondo menderatzen dute -edozein adin izanda ere-, eta jarduerak berezkoa du lehia.

120. Kirol-diziplina edo -modalitate bakar batean jarduten dugu. Nola jakin erdi-mailan edo teknika hobetzeko mailan aritzen garen?

Erantzuna 8/2022 Legeko 4. Artikuluan dator. Honela dio, hitzez hitz: "goi-errendimenduko kirol-lehiaketak izango dira nazioarteko kirol-federazio eskumendunek edo dagokion nazioarteko liga profesionalak baimentzen, ikuskatzen eta arbitratzen dituzten nazioarteko lehiaketa absolutuak, kirol-egutegi ofizialetan sartuta daudenak; estatu-mailako kategoria absolutu goreneko lehiaketa profesional eta ez-profesionalak eta Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak zehazten dituenak."

121. Kirol-erakunde batek nola bereiz dezake maila/eremu batzuen eta besteen arteko lerroa?

8/2022 Legeko 4. artikuluan jartzen duena errespetatu behar da beti. Jarduera antolatu duen kirol-erakundeak errespetatu behar du, edo profesional bakoitzak, eta dena delako jardueraren ezaugarrien arabera ulertu. Ikuskapena egiten bazaie, edo inork salaketa jartzen badu, arrazoitu egin beharko du irizoider erabilia.

122. Entrenatzaile laguntzaileek eduki al dezakete entrenatzaile nagusiek baino kualifikazio apalagoa?

Ez. Baliteke entrenatzaileak nor edo nor edukitzea laguntzaile modura, entrenamenduak eta lehiaketak hobeto gidatzeko, zuzentzeko edo kontrolatzeko, kirolariei jarraibideak emateko edo antzeko lanak egiteko. Bada, 8/2022 Legearen arabera, laguntzaile horiek ere entrenatzaileen lanbidean jarduten dute, eta, beraz, kualifikazio berbera eduki beharko dute.

123. Legean ondo zehazturik dago zer prestakuntza ofizialek ematen duten aukera

entrenatzaile izateko. EAEko kirol-federazioek esan al dezakete ezetz, prestakuntza horietakoren bat ez dutela onartzen beren jardura edo lehiaketetarako?

Ez. EAEko kirol-federazioek legean aurreikusitako kualifikazio-baldintzak zaindu beharko dituzte.

124. Monitorean edo entrenatzaileen lanbideari buruzko atal batzuetan, jada ezarrita dago kualifikazio egokiak zein diren. Baina, “Hori gorabehera, beste profesional batzuek ere baliatu ahal izango dituzte eskumenak, osasun-lanbideak antolatzeke legeriaren arabera”. Horrenbestez, beste osasun-profesional batzuk jardun al litezke monitore edo entrenatzailearen lanetan?

Ez. Beren osasun-titulu akademikoetan oinarrituta osasun-profesionalek ezin dute monitoreak edo entrenatzaileak izan, eta 8/2022 Legean aurreikusitako kualifikazioak eduki beharko dituzte, beti.

Legeak esan nahi duena da monitorean eta entrenatzaileen atribuzio profesionalak osasun-lanbideen atribuzio profesionalak errespetatuz egin behar direla: dietista-nutrizionista, podologo, fisioterapeuta eta abarrenak.

125. Entrenatzaileen lanbideak zer funtzio betetzeko aukera ematen du?

Kirolariak eta taldeak entrenatzea, hautatzea, aholkatzea, planifikatzea, zuzentzea, gidatzea, kontrolatzea, ebaluatzea eta jarraipena egitea, eta antzeko funtzioak, errendimenduko lehiara begira.

126. Entrenamenduetan entrenatzaileari laguntzen aritzen naiz: entrenamendua kontrolatzen eta jarraibideak ematen. Nik ere bete behar al dut 8/2022 Legeak entrenatzaileei ezartzen dizkien eskakizunak?

Bai. 8/2022 Legeko 9.7 artikularen arabera, entrenatzaileari laguntzen aritzen bazara entrenamenduak eta lehiaketak gidatzen, bideratzen, zuzentzen edo kontrolatzen, kirolariei jarraibideak ematen edo antzeko gauzetan, zuk ere entrenatzaile-lana egiten duzu, eta, hortaz, zuk ere bete behar dituzu 5. artikuluko horrek dakartzan kualifikazioak.

127. Ez dakit oso ondo zer alde dagoen monitore baten eta entrenatzaile baten artean, eta, beraz, ez dakit zer lanbidetan ari naizen 8/2022 Legearen arabera.

Monitorearen jardura ez dago lehiaketara bideratuta; entrenatzailearen jardura, berriz, bete-betean errendimendu-lehiaketara dago bideratuta.

128. Izan al zaitezke lanbidez entrenatzaile, entrenamenduetan bertan egon gabe?

Adingabeekin edo beste arrisku-talde batzuekin lan egin behar baduzu, kirola egiten dutenean zuk ere han egon behar duzu, eta kirol hori naturan edo animaliekin egin behar badute ere bertan egon behar duzu, non eta zure lana ez den plangintza eta programazio hutsa.

129. Lanbidez, prestatzaile fisikoa naiz. Zer funtzio bete ditzaket entrenamenduetan?

Funtzio hauek bete ditzakezu: aholkularitza-, plangintza-, diseinua, ebaluazio tekniko-zientifikoa, kirol-jarduera fisikoak garatzea eta exekutatzeko eta ariketa fisikoak pertsonen sasoia eta koordinazio-gaitasunak mantentzeko, garatzeko, hobetzeko, doitzeko, eta berreskuratzeke, haien bizi-kalitatea eta osasuna hobetearren, bai eta lesio eta patologiak prebenitzea edo berreztea, berregokitzea eta berriro entrenatzea, haien ezaugarri eta premietara egokitutako kirol-jarduera fisikoen eta ariketa fisikoen bidez, betiere osasun-profesionalekiko lankidetzan eta haien lanbide-eremuak errespetatuz.

130. Udalaren lokal batzuetan gimnasia leuneko oinarrizko egokitzapen-saioak ematen ditut (hala esaten baitzaie pilates, yoga eta antzekoei). 8/2022 Legearen arabera, zer naiz, monitorea edo prestatzaile fisikoa?

8/2022 Legeko 8.2 artikulua arabera, zure lanbidea Kirol Monitorea izango litzateke.

131. Fisioterapeuta naiz, baina jarduera fisikoak erabiltzen ditut pazienteekin. Nik ere bete behar al dut 8/2022 LEGEA?

Hasiera batean, ez. Zure lanbidea sanitarioa da, eta ez, berez, kirolakoa. Ondorioz, Lanbide Sanitarioen Antolamenduari buruzko azaroaren 21eko 44/2003 Legea bete behar duzu.

Hala ere, fisioterapeuta izanik, 8/2022 Legean araututako lanbideetako baten funtzioen bat betetzen baduzu, orduan bai. Gauza bera gertatzen zaie prestatzaile fisikoei: fisioterapeuten, dietista-nutrizionisten eta abarren berezko eginkizunak betetzen badituzte, osasun-lanbideen antolamenduari buruzko aipatutako legeriaren mende egongo dira.

132. Izan al zaitezke prestatzaile fisikoa, prestaketetan bertan egon gabe?

Adingabeekin lan egin behar baduzu, edo arreta berezia eskatzen duten beste batzuekin, edo ariketa eta kirola egiteko zailtasun bereziak dituztenekin, patologiak edo osasun-arazoak dituztenekin, bai, bertan egon behar duzu.

Bertan egon beharrik ez duzu izango baldin eta zure lana plangintza edo programazio hutsa bada.

133. Atleten entrenatzailea naiz. Lehiaketa batzuk irekiak izaten dira, mistoak, atleta batzuk punta-puntakoak dira, eta beste batzuk herrikoiak, (maratoiak, esaterako). Zer gertatzen da halakoetan? Zer kualifikazio eskatzen zait?

Kirol-lehiaketa errendimendu handikoa baina, aldi berean, irekia edo mistoa baldin bada, entrenatzen duzun kirolaria errendimendu handikoa baldin bada bakarrik eskatuko zaizu errendimendu handiko kualifikazio profesionala.

VI.- KIROLETAKO ZUZENDARIA

134. 8/2022 Legearen arabera, zer funtzio ditu kirol-etako zuzendariak?

Kirol-zientzietako ezaguerak eta teknikak aplikatuz, esparru hauetako jarduerak edo zerbitzu profesionalak egin edo eskaini ditzake: zuzendaritza teknikoak, programazioak, plangintza, koordinazioak, orientazioak, kontrolak, gainbegiratze-lanak, ebaluazioak, balorazioak eta antzekoak. Non? Kirol-zentro, -zerbitzu, -jarduerak eta -erakunde publiko nahiz pribatuak.

Kirol-zuzendariari dagokio, halaber, kirol-monitorearen eta kirol-entrenatzailearen lanbideetan dihardutenen eginkizun teknikoak koordinatzea, gainbegiratzea eta ebaluatzea.

135. Klub bateko kirol-zuzendaria naizen aldetik, egin al ditzaket kudeaketa-lan instrumentalak edo osagarriak, hala nola kontratazioak?

Bai.

8/2022 Legeak berariaz aitortzen du kirol-zuzendariak, batzuetan, kudeaketa-funtzio instrumentalak ere izan ditzakeela.

136. 8/2022 Legearen arabera, zer desberdintasun dago kirol-zuzendarien eta kirol-instalazio edo -erakundeetako kudeatzaileen artean?

Funtzio ezberdinak dituzte. Kirol-zuzendariak jarduerak fisikoaren eta kirolaren zientzia guztiak edo batzuk aplikatzen ditu bere eginkizunetan (hala nola entrenamenduaren plangintza eta teoria, fisiologia, pedagogia eta psikologia), beste kirol-teknikari batzuen lana koordinatzen du, errendimendua ebaluatzen du edo kirol-teknikarien taldeak zuzentzen ditu edo, zuzenean, errendimendu handiko kirolariak zuzentzen ditu; horietatik funtsezko zereginak.

Jakina, gerta liteke pertsona berak egitea kudeaketa-lanak (aurrekontuak, kontratuak, espazioen kudeaketa eta abar) eta zuzendari-lanak, alegia, bi lanbideak betetzea.

137. Euskal federazio bateko kirol-zuzendaria naiz. Gure kirol-selekzioen kirol-jardueretan, nahitaez nik ere bertan egon behar al dut?

Ez. 8/2022 Legeak betebeharrak horretatik salbuesten ditu kirol-zuzendariak, haien funtzio petoan programazioak, plangintza, koordinazioak eta abar direlako.

138. Kirol-klub bateko idazkaritza teknikoan aritzen naiz. Entrenatzaileak, jokariak, atletak, txirrindulariak eta abar fitxatu behar direnean, edo berritu, edo baja eman behar zaienean, lan horiek -eta antzeko beste batzuk- nik egiten ditut. Ni ere, izenez, kirol-zuzendaria naiz?

Ez. Are gehiago, hortik zehar erabiltzen diren beste izen batzuek ere sor dezakete nahasmenik 8/2022 LEGEko lanbideekiko -esanahiarengatik edo antzekotasunagatik-, eta aurrerantzean ezingo dira erabili.

139. Txirrindulari-talde bateko kirol-zuzendaria naiz. Entrenamenduak prestatzen dizkiet eta, txirrindularitza-lasterketetan, nik zuzentzen ditut. 8/2022 LEGEAN zer naiz ni? Entrenatzailea edo kirol-zuzendaria?

Esate baterako futbola edo txirrindularitzaren moduko modalitateetan, era bat baino gehiagotara ulertzen da zer den kirol-zuzendaria.

Txirrindulari-talde bat entrenatu eta lehiaketan zuzendu egiten baduzu, entrenatzaile-funtzioa betetzen ari zara, ez kirol-zuzendariarena.

140. Euskadin, txirrindularitza-federazioen araudietan nola ebazten da terminologia-arazoa?

Oso erraza da. 2026ko urtarrilaren 1erako, kirol-federazioen araudiek 8/2022 Legea egokituta behar dute egon. Federazioek, funtsean, bi aukera dituzte:

a) 8/2022 Legeak ematen dien izendapena soilik erabiltzea (entrenatzailea).

b) Federazio-araudian bi izen horiek erabiltzea, hartara estatuko federazioaren eta nazioarteko federazioaren araudiekin sinkronizatzeko, baina argi eta garbi ohartarazita, 8/2022 Legearen ondorioetarako, lanbidea entrenatzailearena dela.

141. Gure federazioak edo erakundeak (kluba, kirol-elkartea, ikastetxea, guraso-elkartea) kirol-diziplina bat baino gehiago lantzen du. Izan al dezakegu kirol-zuzendari bat bakarrik diziplina guztietarako?

Bai, baina ikusi beharko da kirol-zuzendari horrek zer funtzio dituen eta zer kualifikazio duen; hori da gakoa. Zuen federazioak edo erakundeak diziplina bat baino gehiago jorratzen badu baina kirol-zuzendari orokor bakarra nahi baldin baduzue, hartara hark planifika eta koordina ditzan - orokorrean- jarduerak, lehiaketak, ekitaldiak edo prestakuntzak, eta hark ezar ditzan metodologia-jarraibideak jardueretarako, oinarritzat hartuz, batez ere, alderdi orokorrak, heziketa, alderdi sozialak, prestakuntza fisikoa eta abar... bai, kirol-zuzendari bakarra eduki dezakezue, baina Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien gradua eduki beharko du.

Edonola ere, baliteke kirol-zuzendaritzako funtzio zehatzak ere egin nahi izatea kirol-diziplina batean, batzuetan edo guztietan, dena delako diziplina horretako berezko funtzioak alegia, adibidez, diziplina planifikatzea edo metodologia-jarraibide tekniko edo taktiko zehatzak ezartzea. Orduan, hori bai, zuen erakundeak, kirol-diziplina bakoitzerako, langile berezituak eduki beharko ditu, hots, langile horiek kualifikazio berezia eduki beharko dute, kirol-zuzendari gisa jarduteko bakoitzak justu bere diziplinan, eta hartan bakarrik. Kasu horretan, goi-mailako kiroleko teknikariaren titulua beharko dute, edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradua, dagokion kirol-diziplinan prestakuntza espezifiko emateko.

142. Badira bi titulu orain arte aipatu gabeak: Jarduera Fisikoko eta Kiroleko Animazioko goi-mailako teknikariaren titulua eta Gizarte eta Kiroleko Irakaskuntza eta Animazioko goi-mailako teknikariaren titulua. Egin kontu haien pareko prestakuntza daukadala; bada, legearen arabera, zer animazio-jardueratan aritu naiteke kirol-zuzendari gisa?

Orokorrean, ondo pasatzeko besterik ez diren jarduera fisikoak eta kirolak koordinatzeko lanak aipatzen ditu, konparazio baterako instalazio turistikoetan egin daitezkeenak, edo aisialdiko jardueretan, edo kirol-campusetako edo -kanpalekuetako atal ludikoetan eta abar.

143. Arabako kirol-instalazio bateko kirol-zuzendaria naiz. Administrazioa kudeatzeko lanik ere egin al dezaket (langileak, dirulaguntzak, zerbitzu-kontratuak eta abar)?

8/2022 Legeak ez du eragozten zuzendari batek administrazio-kudeaketako eginkizunak ere betetzea. Kudeaketaren arloan bakarrik jarduten baduzu, jarduera fisikoaren eta kirolaren zientziak aplikatu beharrik gabe, ez duzu 8/2022 LEGEA bete beharko.

144. Har dezagun 8/2022 Legea eta ikus dezagun zer funtzio edo atribuzio zerrendatzen dituen kirol-zuzendariarentzat. Zerrenda hori zer da, zerrenda hutsa, ala muga bat ezartzen du?

8/2022 Legeak lanbidez-lanbide zehazten dituen atribuzio-zerrendek lanbide bakoitzerako eremu funtzional orokorra ezartzen dute, ez dute mugarik ezartzen.

VII.- KIROL-LANBIDEETAN SARTZEA ETA JARDUTEA

145. Zer da Euskal Autonomia Erkidegoko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa, eta zertarako balio du?

Kirol Administrazioaren tresna bat da. Han egongo dira izenemanda jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak, haietako bakoitzak zer kualifikazio dituen jakin dezaten zerbitzu-erabiltzaileek, gurasoek, tutoreek, kirol-klubek, kirol-federazioek eta beste edozein pertsona fisiko eta juridikok.

146. Zer izaera du erregistroak? Profesionalen elkargoren batekoa al da?

Ez da inongo elkargo profesionalena. Administrazio-erregistroa da, publikoa, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrera atxikita dago.

147. Erregistroan inskribatutako kirol-profesionalen datuak publikoak al dira?

Bai, baina ez denak. Lanbideari eta kualifikazioei buruzko datuak publikoak dira, eta lanetik apartatzeko zehapenei buruzkoak ere publikoak dira.

Erregistroko datu batzuk publikoak dira, Eusko Legebiltzarrak kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak hobeto defendatzeko tresnatzat hartu baitu erregistro hori.

148. Zer helburu du erregistroak?

Helburu bat baino gehiago dauka. Ikus ditzagun batzuk, adibide modura:

- a) Administrazioari laguntzea hobeto ezagutzen jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideak zertan diren EAEn.
- b) Jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideen estatistikak-eta egiteko iturri izatea.
- c) Kirol-ikuskaritzari lana samurtzea, errazago kontrola dezan nor ari den lan egiten jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan.
- d) Kirol-administrazioari laguntzea, agindu zaizkion sustapen-, programazio- eta plangintza-jarduerak egiten, jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideen eremuan.
- e) Kirol-profesionalen kualifikazioari buruzko informazioa ematea kontsumitzaileei eta erabiltzaileei, enpresa enplegatzaileei edo interesa duen beste edonori, bai eta aipatutako profesionalei ezarritako desgaitasun-eharpenei buruzko informazioa ere.
- f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileak babesik gabe ez geratzea zergatik eta lanean dihardutenek gutxieneko kualifikaziorik ez dutelako.

149. Nola dago egituratuta erregistroa?

Oraindik ez da onartu 8/2022 Legea garatzeko erregelamendua, baina, hasiera batean behintzat, asmoa da erregistroa atal hauetan egituratzea:

- a) Pertsona fisikoaren azpiatala.
- b) Sozietate profesionalen azpiatala.
- a) Pertsona gaituen azpiatala.

150. Neska gazte baten gurasoak gara. Nahiko genuke jakin ea erregistro horretan ikusi ahal izango dugun zer kualifikazio profesional daukan gure alabaren eskola-kiroleko monitoreak. Erabilgarri jartzen duzuenean, erregistroa elektronikoki eta doan sartu ahal izango gara?

Bai. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen eskubideak hobeto defendatzeko, Erregistroak oinarritzko informazioa emango du, argi, doan eta elektronikoki eskuratzeko moduan, adibidez -eta batez ere- monitore horren lanbide-prestakuntza.

151. Erregistroan inskribatzen naizenean, nire zer datu agertuko dira bertan?

Legea dekretu baten bidez garatu behar da, baina oraindik ez da onartu. Hala ere, hasiera batean, hiru datu nagusi argitaratzeko asmoa dago: izen-abizenak, lanerako kualifikazioari buruzko datuak eta zure lanbidea. Litekeena da datu gehiago eskatzea, nahiz eta argitaratu ez.

152. Egin kontu erantzukizunpeko adierazpenean nire telefonoa, posta elektronikoa eta

helbidea eman ditudala. Hirugarrenak elektronikoki eskuratu ahal izango dituzte datu horiek?

Ez. Erregistroaren publizitateak ez du aukerarik emango horrelako datu pertsonalak eskuratzeko: helbidea, egoera zibila, telefonoa, posta elektronikoa eta abar. Erregistrora eramaten dituzuen agirietan agertuko dira agian, baina ez dute zertan publiko izan, halakoak zabaldu gabe ere erregistroak beteko baitu bere lana.

153. Nork egon behar du erregistroan inskribaturik?

Arau orokor gisa, 8/2022 Legean jasotako lanbideetako batean EAEn profesional gisa -ordaina jasoz- diharduen edo jardun nahi duen edozeinek.

154. Agian, boluntario lan egingo duzu, eta gastuak besterik ez dizkizute ordaintzen (kalteordain gisa); zuk ere eman behar duzu izena?

Ez.

155. Inskriba al naiteke orain bertan?

Ez. Dekretu bat behar da erregistroa arautzeko, baina oraindik ez da onartu.

156. Nola inskriba naiteke Erregistroan?

Asmoa da eskabidea nahitaez telematikoki egin behar izatea.

157. Noiz aurkez dezaket izena emateko dokumentazioa?

Erregistroa arautzeko dekretuan adieraziko dugu, baina oraindik ez dugu idatzi.

158. Beste norbaitek aurkez al dezake nire erantzukizunpeko adierazpena, nire izenean eta ni ordezkatzuz?

Bai. Beste norbaitek ordezkari izan daitezke (ordezkaritza), edozein administrazio-prozeduratan bezala.

159. Gimnasio bateko titularra naiz, titularra besterik ez, eta ez dut zerbitzu profesionalik ematen. Nik ere aurkeztu behar al dut erantzukizunpeko adierazpena?

Ez. 8/2022 Legean arautu diren lanbideetakoaren batean diharduten pertsona fisikoek bakarrik aurkeztu behar dute, edo, lanbide-sozietateek.

Kirol-etxe bat edukitze hutsak ez dakar betebeharrak hori, eta berdin dio pertsona fisikoa edo juridikoa zaren, publikoa edo pribatua.

160. Zer informazio eman beharko dut erantzukizunpeko adierazpenarekin batera?

Dekretuan zehaztuko dugu.

161. Zer da, benetan, erantzukizunpeko adierazpena?

Har dezagun Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 69. artikulua: "erantzukizunpeko adierazpena da interesdunak sinatutako dokumentu bat zeinean adierazten baitu, bere erantzukizunaren pean, betetzen dituela indarrean den araudiak eskubide edo ahalmen bat aitortzeko edo hura baliatzeko ezarritako betekizunak, baduela hori egiaztatzen duen dokumentazioa, Administrazioaren esku jarriko duela hark hala eskatzen dionean, eta konpromisoa hartzen duela aurreko betebeharrak betetzeko aitortpen edo baliatze horri dagokion denbora guztian."

162. Entrenatzaile profesionala naiz, baina nire kirola ez da berdin ageri EAEko federazioetan eta estatukoetan; modalitate diferenteak dira han eta hemen. Erantzukizunpeko adierazpenean, zer jarri behar dut?

Oraindik ez dugu dekretua idatzi, baina, hasiera batean behintzat, asmoa da horrelako zalantzak gertatzen direnean gure Modalitate eta Espezialitateen Katalogoan oinarritu behar izatea: Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Administrazioak onartuta dago eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratuta.

Azken katalogoa 2012ko azaroaren 27ko EHAA-n argitaratu zen.

163. Non eskura ditzaket erregistroan inskribatzeko agiriaren ereduak?

Eredu horiek elektronikoki deskargatu ahal izango dira. Horretarako, Erregistrorako esteka bat sortu eta argitaratuko dugu. Handik deskargatu ahal izango dituzue dokumentuen ereduak.

Erregistroan inskribatzeko dokumentuen ereduak formatu elektronikoko editagarrian eskuratu ahal izango dira, izapideak telematikoki egin ahal izateko.

164. Inskripzioa telematikoki egin behar badut, zer identifikazio-modu onartuko duzue?

Sartu ahal izeko identifikazio-bideak, printzipioz, hiru izango dira: Ziurtagiri Digitala, NAN elektronikoa, edo cl@ve kredentziala.

165. Gustura arituko nintzateke jarduera Fisikoaren eta kirolaren arloko lanbide batean. Kolegiaturik egon behar al dut?

Estatuko lege batean eskatzen bada bakarrik izango da derrigorra kolegiaturik egotea 8/2022 Legeko lanbideetan sartzeko eta jarduteko

166. Egin dezagun kontu baietz, kolegiaturik nagoela, Euskal Autonomia Erkidegoko Gorputz Hezkuntzako eta Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziatuen Elkargo Ofizialean. Nik ere aurkeztu behar al dut nire eskabidea erregistroan inskribatzeko (Jarduera

Fisikoaren eta Kirolaren Euskal Autonomia Erkidegoko Profesionalen Erregistroan)?

Estatuko lege batek ezartzen ez duen bitartean ezinbestekoa dela elkargo profesional horretan sartzea 8/2022 Legeko lanbideetan sartzeko eta jarduteko, elkargokide bakoitzak Erregistroan inskribatzeko eskaera indibiduala egin beharko du.

Estatuko lege batek agintzen baldin badu ezinbestekoa dela elkargoko kide egitea, Erregistroari elkargo profesional horrek eman beharko dio inskripzioa egiteko informazioa.

167. Atletismoko entrenatzailea naiz. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak automatikoki zabalitzen dit bidea nire lanbidean jarduteko? Edo itxaron egin behar dut, ea baimena ematen didaten?

Orokorrean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea nahikoa izango da lan egin ahal izateko, aurkezten den egunetik aurrera.

168. Noiz arte?

Erantzukizunpeko adierazpena aurkezteak automatikoki ematen duen gaikuntza profesional horrek ez du epe-mugarik, baina egiaztapen-, kontrol- eta ikuskapen-ahalmenak ahaztu gabe.

Erantzukizunpeko adierazpen baten barruan edo harekin batera aurkezten diren datu, adierazpen eta dokumentuetan funtsezko zerbaite zuzena ez bada, gezurra bada edo jarri gabe utzi bada, edo datu eta dokumentu horiek aurkezten ez badira, hala gertatu dela jakiten denetik aurrera ezin izango da lanbidean jardun (aurrez, administrazio-prozedura bat izapidetuko da), eta horrek hainbat erantzukizun ekar ditzake, gainera.

169. Aurkeztu ditudan datu batzuk ez dira zuzenak, baina ni Erregistroan inskribaturik nago; horrenbestez, datu horik baleko modura geratzen dira?

Ez.

170. Gorputz Hezkuntzako Irakaslea naiz (ez dut beste lanik), eta administrazio publikorako lan egiten dut, administrazio- edo lan-zuzenbidearen pean. Orain, EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan inskribatu behar dut: banakako eskaera aurkeztu behar al dut?

Ez. Zure kasuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak bidali beharko du informazioa Erregistroa (erregelamendu bidez zehaztuko da zer informazio).

171. Erregistroan inskribatu ondoren, alda al ditzaket nire datu pertsonalak? Eta kualifikazioak aldatu? Edo kualifikazio berriak gehitu?

Bai. Erregistroan inskribatu ondoren, baliteke datu pertsonalak aldatu nahi izatea, edo kualifikazioak aldatu edo berriak gehitu, edo lehen sorospenetan duzun prestakuntza eguneratu, edo beharrezkoa den beste edozein datu eman; ez dago arazorik, baina eskaera zuk zeuk tramitatu beharko duzu.

Eskabide hori telematikoki egin beharko da.

172. Egin dezagun kontu jarduera fisikoko eta kiroleko lanbide batean aritzen naizela baina ez naizela erregistroan inskribatzen. Zer gertatuko da?

Erregistroan inskribatzea nahitaezkoa da 8/2022 Legeko lanbideetan sartzeko eta jarduteko, non eta ez zaren boluntario aritzen klub, federazio, guraso-elkarte eta abarretan.

Ez baduzu betetzen 8/2022 Legean jartzen duena (eta lanbide horietakoren batean ari bazara), administrazio-erantzukizunak, diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak eska dakizkizuke, ordenamendu juridiko aplikagarriaren arabera.

173. 8/2022 Legeko lanbideetako batean sartzeko eta jarduteko, egiaztatu behar al dut sexu-delituen ziurtagiria?

Zure asmoa baldin bada kirol-monitore, entrenatzaile, kirol-zuzendari edo prestakuntza fisikoko zuzendari modura lanean hastea edo lan egitea, egiaztatu beharko duzu ez zaituztela epai irmo bidez kondenatu sexu-askatasun eta -ukigabetasunaren aurkako delituen batengatik. Bi eratara egiaztatu dezakezu: edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, aldi berean baimena eman ez datuak kontsulta ditzagun Sexu Delitugileen eta Gizakien Salerosketen Erregistro Nagusian; edo, bestela, erregistro horren ezezko ziurtagiria aurkeztu.

174. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, Eusko Jaurlaritzako Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean, eta lehen ere aurkeztu nion sexu-delituen ziurtagiri hori Hezkuntza Sailari. Berrir aurkeztu behar al dut?

Hezkuntza Sailak agindutakoa bete beharko duzu; eta berdin dio zure ikastetxea publikoa edo pribatua den, itunpekoa edo ez.

175. Non lor dezaket sexu-delituen ziurtagiria?

Esteka honetan duzu informazio guztia. Hor ikusiko duzu nola eskatu eta lortu sexu-delituen ziurtagiria.

<https://sede.mjusticia.gob.es/es/tramites/certificado-registro-central>

176. Kirol-zuzendaria naiz, toki-administrazioan. Entzuna dut Gorputz Hezkuntzako irakasle publikoek ez dutela erantzukizunpeko adierazpena banan bana aurkeztu behar erregistroan. Eta, guk, Toki Administrazioko enplegatu publikook, guk ere badugu aukera hori, haiek bezalaxe?

Oraingoz, ez; baina ari gara aztertzen ea zer egin daitekeen administrazio publiko enplegatzailerak aurkez dezan erantzukizunpeko adierazpena.

177. 8/2022 LEGEA onartu ondoren, kirol-arloko lanbideak lanbide-sozietateen bidez gauzatu ahal izango dira?

8/2022 Legeak ez du gauza handirik esaten. 15.3 artikuluan dio, bakar-bakarrik, bertan araututako lanbideetan sozietate profesionalen bidez jardun ahal izango dela, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera.

Salbuespen batzuetarako soilik ixten du aukera hori: enplegu publikora sartzeko kasu logikoak; eta gorputz-hezkuntzako irakasleei dagokienez hezkuntza-arloko legerian onartzen ez diren kasuak.

178. Gaur egun, posible al da sozietate profesionalik eratzea, Lanbide Sozietateei buruzko martxoaren 15eko 2/2007 Legeari lotuta?

Ez. Ikus dezagun zer dioten lege horrek: *“es actividad profesional aquella para cuyo desempeño se requiere titulación universitaria oficial, o titulación profesional para cuyo ejercicio sea necesario acreditar una titulación universitaria e inscripción en el correspondiente Colegio Profesional”*.

Hau da, Estatuko lege batek agindu behar du ezinbestekoa dela kolegiatzea, bestela, kirol-arloko lanbideetan ezin da sozietate gisa jardun.

179. Sozietate profesional bat eratu ahal izango balitz, 8/2022 LEGEAK agintzen al du sozietate-forma zehatzik?

Ez. Legeetan aurreikusitako edozein sozietate-mota erabil daiteke, betiere 2/2007 Legean ezarritako baldintzak betez.

180. Dena delako lanbidean diharduten sozietate profesionalak eta pertsona fisikoek betebeharrak al daukate?

Bai. Sozietate profesionalak betebeharrak dituzte.

VIII.- LEHEN SOROSPENAK

181. 8/2022 Legeko lanbideetako batean sartzeko eta jarduteko, lehen sorospenetako hasierako prestakuntza ere egiaztatzea behar du?

8/2022 Legeko lanbideetako batean jardun nahi baduzu Euskadin, eta lan hori derrigor aurrez aurre egin behar baduzu, lehen sorospenetako gutxieneko prestakuntza ere eduki behar duzu.

182. Zein da lehen sorospenetako prestakuntza horren gutxieneko edukia?

Oraindik ez dugu egin gai hori arautzeko xedapenaren proiektua, baina asmoa da, hasiera batean behintzat, gutxienez sei (6) orduko prestakuntza teoriko-praktikoa eskatzea. Eta sei ordu

horietako gutxienez hiru (3) presentzialak izan beharko dira.

183. Nola egiaztatu behar dut lehen sorospenetako hasierako prestakuntza hori?

Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan aritu nahi baldin baduzu Euskadin, eta lan hori aurrez aurre egin beharra baldin badaukazu, lehen sorospenetako prestakuntza egiaztatu beharko duzu, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez. Adierazpenaren eredu normalizatu bat baino gehiago dago, interneten argitaratuko ditugu, eta haietako bat erabili behar duzu.

Beste batzuek, berriz, behin-behineko gaikuntza edo habilitazioa beharko dute, hala jartzen baitu 8/2022 Legeko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan; bada, horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dute.

184. Zer da erantzukizunpeko adierazpen hori?

Zer adierazi behar du? Sinatzaileak adierazi behar du, bere ardurapean, baduela nahikoa prestakuntza lehen sorospenetan (alegia, betetzen dituela jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko eskatzen zaizkion baldintzak); baduela hala dela egiaztatzeko dokumentazioa; agiri horiek administrazioan aurkeztuko dituela hark eskatzen dizkionean; eta hitza ematen duela baldintza horiek betetzen jarraituko duela lanean ari den bitarte guztian. Erregelamendu bat onartuko da, baldintza horiek zein diren zehazteko.

185. Zer datu eman beharko dituzu erantzukizunpeko adierazpen horretan?

Ikusi beharko da -iristen denean- zer jartzen duen Erregistroa arautzeko erregelamendu-proiektuan, baina, edonola ere, hasierako asmoa da gutxienez datu hauek eskatzea:

- a) Prestakuntzaren ardura duen zentroaren, erakundearen edo administrazioaren datuak.
- b) Noiz egin duzun prestakuntza.
- c) Zure datu pertsonalak.
- d) Ikastaroaren edukia eta zenbat ordutakoa izan den (presentzialak eta urrunetik egindakoak).

186. Erregistroan izena emateko ere aurkeztu beharko dugu erantzukizunpeko adierazpena. Hori nahikoa da, ala, gainera, beste hau ere behar da?

Hasiera batean, ez. Erregistroak berak bere webean adierazpen-eredu batzuk jarriko ditu, izena emateko interesa duen ororen eskura, eta, eredu horietan, lehen sorospeneko prestakuntzari buruzko informazioa ere eskatuko da.

Edonola ere, egoera berezi batzuetarako eredurik ere egongo da, adibidez, prestakuntza eguneratu izana inskribatzeko.

187. Boluntarioek ere izan behar al dute prestakuntza hori?

Bai.

188. Eta ez baldin badaukat prestakuntza hori? Zer gertatzen da?

Bada, 2026ko urtarrilaren 1era arte izango duzu prestakuntza hori egiteko, hortik aurrera ezingo duzu lanean jarraitu, hala jartzen baitu 8/2022 Legeko hirugarren xedapen iragankorrean.

2026ko urtarrilaren 1ean, gutxieneko prestakuntza hori izan gabe Euskadin ezingo da jarduera fisikoko eta kiroleko lanbide batean jardun, ez behintzat aurrez aurre egin behar baduzu.

Baldintza hori betetzen ez bada, baliteke administrazio-zehapena jartzea.

189. Eta, kualifikazio hori lortzen ez badut, enpresatik kalera bota nazakete?

Garaiz lortzen ez baduzu -obligazioa baita-, pentsa daiteke halako batean ezgai gelditu zarela, Langileen Estatutuan jartzen duen bezala, 52 a) artikuluan (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen).

190. Eta beste zehapenik etor dakidake, legezko obligazio hori bete ezean?

Bai. Aipatu ditugu bi ondorio (ezin izatea lanean jarraitu edo baita kalera botatzea ere), baina, gainera, administrazio-zehapenik ere etor dakizuke, 8/2022 LEGEA urratzeagatik.

191. 8/2022 LEGEA indarrean jarri aurretik ere, kirol-arloko lanbideetako batean jarduten nuen, jarraian; baina ez daukat lege horrek eskatzen duen kualifikazio orokorra. Horietako bat naiz ni. Eduki behar al dut lehen sorospenetako prestakuntza?

Bai.

192. Jakin nahiko nuke prestakuntza horretan zer eskatzen den gutxienez, zer programa-edo.

Erregelamendu bidez ezarriko da hasierako prestakuntzaren gutxieneko edukia eta programa.

193. Prestakuntza hori erabat online egin daiteke?

Oraindik ez dugu erregelamendua idatzi, baina, hasiera batean behintzat, asmoa da hiru ordu, behinik behin, aurrez aurrekoak izan daitezen eskatzea.

194. Gorputz Hezkuntzako irakaslea naiz, administrazio publikoak kontratataturik. Nik ere egiaztatutako behar al dut prestakuntza hori?

Bai.

195. Ni, berriz, kirolerako monitorea naiz, udal-kiroldegi batean. Oposizioetarako ere aurkeztu nuen lehen sorospenetako ziurtagiri hori. Erregistroan ere egiaztatu behar al dut prestakuntza hori?

Bai. Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan aritu nahi baldin baduzu Euskadin, eta lan hori aurrez aurre egin beharra baldin badaukazu, lehen sorospenetako prestakuntza egiaztatu beharko duzu, Erregistroan erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuz. Adierazpenaren eredu normalizatu bat baino gehiago dago, hango web atarian argitaratuko ditugu, eta haietako bat erabili behar duzu.

196. Boluntarioek ere aurkeztu behar al dute erantzukizunpeko adierazpena?

Bai, Erregistroan aurkeztu behar dute, nahiz eta, gero, ez inskribatu, eta datu horiek inork ez argitaratu.

197. Zein dira bide nagusiak, lehen sorospenetako hasierako prestakuntza egiaztatzeko?

Batez ere bi eratara egin daiteke: titulazio akademikoaren beraren bidez; edo dena delako lanbidean sartzeko eta jarduteko gaitzen duen ziurtagiri ofizialaren bidez. Halaber, erregelamenduan beste biderik zabalitzen bada, hura ere erabili ahal izango da.

198. Kontu egin entrenatzailea naizela, edo monitorea, eta badaukadala titulazio akademiko hori, edo lanbidean jarduteko gaitasuna ematen didan ziurtagiria. Lehen sorospeneko prestakuntza ziurtatzeko, edozein prestakuntza-mota erabil dezake?

Ez. Oraindik ez dugu dekretua idatzi, baina asmoa da bi gauza behintzat eskatzea: gutxienez 6 prestakuntza-ordu (ikasketa-planaren arabera); eta, prestakuntza horren barruan, bihotz-birikak bizkortzen jakiteko oinarri batzuk ikasi izana.

199. Kontu egin badudala titulazio akademikoa, edo badudala monitorea edo entrenatzaile modura lanean hasteko eta jarduteko gaitasun-ziurtagiria (habilitatzailea), baina, han ez dela ageri -ez berariaz behintzat- lehen sorospenetako hasierako prestakuntzarik. Nola egiaztatuko dut?

Oraindik ez dugu dekretua idatzi, baina hasierako asmoa da egoera hauetakoren batean daudenek baldintza hori betetzen dutela jotzea:

a) Eginda edukitzea "0020 Lehen Sorospenak" lanbide-modulua (Lanbide Heziketako titulu bat baino gehiagotan dago).

b) UC0272-2 konpetentzia-atala egiaztatu ahal izatea: "Istripu edo larrialdietan lehen parte-hartzaile gisa aritzea". Era bat baino gehiagotan egiaztatu daiteke: "MF0272-2: Lehen Sorospenak" prestakuntza-modulua gaindituta, (profesionaltasun-ziurtagiri batzuetan ere egoten da); konpetentzia profesionala ebaluatzeko, aitortzeko eta egiaztatzeko prozedura erabiliz; edo konpetentzia-atal hori egiaztatzen duten beste modulu profesional batzuk gaindituta, Lanbide Heziketako tituluetan betiere.

c) Goi-mailako kirol-technikariaren edozein titulu ofizial edukitzea.

d) Egiaztatu ahal izatea eginda duzuela prestakuntza-ikastaro egoki bat, administrazioak homologatutako edo onartutako zentro batek emanda. Eta zer izango den egokia? Gai honen inguruan gutxienez 6 prestakuntza-ordu eduki behar ditu, eta, prestakuntza horren barruan, bihotza eta birrikak pizten jakiteko oinarriak ikasi behar dira.

200. Edozein zentrok eman al dezake prestakuntza hori?

Ez. Prestakuntza hori zentro aitortuek emana behar du izan. Eusko Jaurlaritzak egiteke daukan dekretu horretan zehaztuko dugu zein diren zentro horiek.

201. Lehen sorospenei buruzko prestakuntza Frantziako zentro batean egin dut. Balio al du?

Bai. Antzeko ikastaro batzuk beste autonomia-erkidego batzuetako edo Europar Batasuneko beste estatu batzuetako arauetan oinarritzen dira, baina, berdin-berdin balio dute lehen sorospenetako prestakuntza egiaztatzeko (erakundeek edo pertsonak emanda egonda ere).

202. Eta, osasun-adarreko prestakuntza akademikoren bat badut, balioko al lidake akreditazio gisa?

Ikusi egin behar. Osasun-adarreko unibertsitate-titulurik edo lanbide-prestakuntzarik baldin badaukazu, han ikasitako edukiren batek lehen-sorospenekin zerikusia badu eta aurrez aurre gutxienez sei (6) orduko prestakuntza eman badizute arlo horretan, hasierako asmoa da -oraindik ez baitugu erregelamendua idatzi- aitortzea baietz, baduzula lehen sorospeneko hasierako prestakuntza, nahiz eta lanean hasteko erabili duzun titulazioak gaitasun hori erakutsi ez.

203. Entrenatzailea naiz eta badaukat lehen sorospenen hasierako prestakuntza. Prestakuntza hori eguneratu egin behar al dut?

Bai.

204. Boluntarioek ere eguneratu behar al dute prestakuntza hori?

Bai. Bai, behintzat, 8/2022 Legeko lanbideetan diharduten bitartean.

205. Zenbatean behin egin behar da eguneratze hori?

Oraindik ez dugu lehen sorospenen inguruko erregelamendua onartu, baina hasierako asmoa da prestakuntza hori gutxienez bi (2) urtean behin eguneratu behar izatea, eta eguneraketa gutxienez bi (2) ordukoa izatea, nahitaez aurrez aurre.

206. Non egin behar da eguneraketa?

Legea garatzeko araudian jarriko du zer zentro onartzen diren (oraindik ez da onartu araudi hori).

207. Eta administrazio publikoarentzat lan egiten duten gorputz-hezkuntzako irakasleak (bai lan-legepean bai administrazio-legepean ari direnak)? Haiek ere egin behar al dute eguneratze-prestakuntza ikastetxe egiaztaturen batean?

Ez du nahitaez horrela izan behar. Ikasturte bakoitzean prestakuntza-ordu batzuk egin beharra izaten duzue; bada, eguneratze-prestakuntza ere ordu horietan egin dezakezue, hasierako prestakuntza bezala. Eta, horretarako, Hezkuntza Sailak prestakuntza-jarduera hori ere sartuko du Irakasleen Prestakuntza Planean.

208. Egiaztatu egin behar al da eguneratze hori?

Bai, eguneratzea Erregistroan aurkeztu beharko da, erantzukizunpeko adierazpena erabiliz, adierazpen-eredu normalizatu baten arabera (erregistroko web atarian argitaratuko dira eredu horiek).

209. Nola aurkeztu behar dut lehen sorospenetako prestakuntza eguneratzeko dokumentazioa?

Eguneraketa hori inskribatzeko eskaera telematikoki izapidetu beharko da.

210. Ikastetxe bateko titularra naiz, eta guk ere emango genuke prestakuntza hori. Zer prozedura edo izapide jarraitu behar ditut?

Erregelamendu bidezko dugu.

211. Zentro edo ikastetxe egiaztatu batera joan naiz eta prestakuntza-saio bat burutu dut. Ba al dut eskubidea ziurtagiria eman diezadaten?

Bai. Oraindik ez dugu onartu lehen sorospenetako prestakuntzaren erregelamendua, baina hasierako asmoa da baietz, ikastaroa amaitu eta gainditu baduzu, ziurtagiria eman beharko dizutela, ikastaroa egin duzula ziurtatzeko. Prestakuntza eman dizun entitateak edo pertsonak emango dizu, Osasun Sailak onartzen duen dena delako eredu bat betez.

212. Prestakuntza ematen dugun erakundeok izan behar al dugu erregistrorik han jasota uzteko ikasleek zer ikastaro egin dituzten eta guk zer ziurtagiri eman ditugun?

Oraindik ez dugu onartu lehen sorospeneko prestakuntza arautzeko erregelamendua, baina hasiera batean asmoa da baietz, zentro akreditatuei baldintza hori eskatuko zaiela.

213. Eta ez baldin baditut egiaztatzen hasierako prestakuntza edo aldian aldiko eguneraketak? Zer gertatzen da?

Ezingo duzu lanean jarraitu. Ez baduzu egiaztatzen lehen sorospenetako lehen prestakuntza hori, edo haren indarraldia amaitu eta ez baduzu eguneratzen, esan nahi du Euskadin ezin duzula 8/2022 Legeko lanbide batean jardun, ez behintzat aurrez aurre egin behar baldin baduzu; ezta boluntarioa bazara ere.

Lanbide horietan, 8/2022 Legean xedaturik dagoen bezala jardun beharra dago; bestela, erantzukizun administratiboak, diziplinazkoak eta penalak eskatuko zaizkizu, ordenamendu juridiko aplikagarriaren arabera.

IX.- FEDERAZIO-PRESTAKUNTZAK. KIROL-FEDERAZIOEK KUALIFIKAZIOAK ESKATZEA

214. Euskadiko kirol-federazioek eta lurralde-federazioek jarraitu al dezakete federazio-diplomak edo prestakuntza ez-ofizialak eskaintzen?

8/2022 LEGEA indarrean sartzen denetik aurrera, Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-federazioek beharrezkoak diren prestakuntza-eskaintza ofizialak sustatu beharko dituzte etorkizuneko entrenatzaileek legean eskatzen diren kualifikazioak lor ditzaten.

Edonola ere, federazioek federazio-prestakuntza eskaintzen jarraitu ahal izango dute, arlo hauetan: etengabeko prestakuntza, hobekuntza, espezializazioa eta antzeko esparruetan.

215. Baliozkoak al dira kirol-federazioek emandako titulazioak?

Kirol-federazioek emandako titulazioek, titulazio akademiko ofizialak ez direnez, oro har ez dute gaitasunik ematen 8/2022 Legean araututako kirol-lanbideetan aritzeko. Hala ere, zenbait kasutan federazio-prestakuntza batzuk bai aitortzen dira, ondoren azalduko den bezala.

216. Lege hau onartu baino lehen, federazioek ematen zituzten titulu batzuk -ofizialak ez-. Lege honen arabera, nola egingo da haien homologatzea/baliozkotzea?

8/2022 LEGEAK ez dakar inolako prozesurik federazio-titulazioak homologatzeko edo baliozkotzeko. Lanbidera iristeko, bide hauek dituzue:

- a) Gaur egungo prestakuntza ofizialak egitea.
- b) Lan egiteko gaikuntza lortzea (habilitazioa), daukazuen lan-esperientzia aitortzen zaizuelako, behar bezala egiaztatu ondoren.
- c) Eta lehengo prestakuntza aitortuz (ez zen ofiziala), gaikuntza lortzea, baldin eta behar bezala egiazta badezakezue (ordu-kopurua, gaiak eta abar).

217. Lehiaketa federatuetan entrenatzaile izateko, ezinbestekoa al da dena delako federazio-titulua edukitzea?

Ez. Kualifikazio-baldintzak 8/2022 Legean datoz, eta kirol-federazioek errespetatu egin behar dituzte. Federazioetatik at lortutako prestakuntza ezin da inola ere baztertu, debekatuta dago.

1990etik, Kirolaren Legearen bidez (10/1990 Estatuako Legea, urriaren 15ekoa, 55. artikulua), kirol-teknikarien prestakuntza Estatuak eta autonomia-erkidegoek onartutako zentroetan egin daiteke, eta, kirol-federazioek, titulaziorik eskatzen badute jarduera teknikoak egiteko, legez aitortuta dauden zentroek emandako tituluak onartu beharko dituzte.

Jakina, lehiaketa federatuetan entrenatzeko, ezinbestekoa da entrenatzaileek federazio-lizentzia izatea, hala ezartzen baitu Euskadiko Kirol Federazioei buruzko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuak.

218. Egin kontu nik erakutsi dudan titulazioa ez dela federazioek emana; kirol-federazioak erabaki al dezake niri lizentziarik ez ematea?

Legean dago zehazturik zein diren kualifikazio-baldintzak, eta kirol-federazioek errespetatu egin behar dute, hala dio bai estatu-mailan kirolaren arloan indarrean dagoen legediak bai 8/2022 LEGEak. Hortaz, debekatuta dago federazio-zentroetatik kanpo lortutako edozein prestakuntza baztertea.

EAEko kirol-federazio batek legezko aurreikuspen horiek urratuko balitu eta, bazterkeriaz, federazio-mailako lizentzia bat ukatuko balio entrenatzaile bati, nahiz eta hark ondo bete 8/2022 Legeak eskatzen dituen kualifikazio-baldintzak, administrazio-errekurtsioa jarri ahalko litzateke Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzan. Gainera, gerta daiteke administrazioak bere esku hartzea federazio-lizentziak emateko funtzio publikoa -funtzio publikoa baita, eskuordetuta egon arren-, eta lehia zaintzeko eskumena duen agintariek administrazio-zehapenik ezartzea, lehia mugatzeko ahaleaginean ibiltzeagatik.

219. 8/2022 Legean badira kualifikazio-baldintza batzuk; zer dira, gutxieneko baldintzak, ala gehienekoak?

Kualifikazio-baldintzak gutxienekotzat hartu behar dira, eta, horregatik, kirol-federazioak berariaz gaituta daude, 8/2022 Legeko gutxieneko kualifikazio horiez gain, beste prestakuntza espezifiko batzuk eskatzeko beren eremu pribaturako, baldin eta ez badaukarte diskriminaziorik federazioetatik kanpoko zentroetan lortutako prestakuntzen aurka.

Adibidez, futboleko atezainen entrenatzaile espezialistak.

220. Egin kontu Euskadiko lehiaketa federatuetan monitore gisa lan egin nahi dudala, edo entrenatzaile, prestatzaile fisiko edo kirol-zuzendari gisa. Euskadiko kirol-federazioek lizentziarik eska diezadakete?

Bai. Izan ere, kirol-arloko lanbideetan sartzeko eta jarduteko kualifikazio-baldintzak 8/2022 Legean datoz ezarrita, bai, baina horrek ez du esan nahi beste lizentzia, baimen, titulu edo baldintza gehigarriarik eskatu ezin denik, betiere arauen arabera.

Gainera, Kirolaren Legean ere (14/1998 Legea, ekainaren 11koa) erabakita dago federatu-lizentzia eduki beharra dagoela federatu-lehiaketa ofizialetan parte hartzeko, bai jokalaria gisa, bai entrenatzaile gisa.

221. Egin kontu federatu-lehiaketetatik kanpo monitore gisa lan egin nahi dudala, edo entrenatzaile, prestatzaile fisiko edo kirol-zuzendari gisa. Euskadiko kirol-federazioek eta lurralde-federazioek eska al diezadakete federatu-lizentziarik?

Ez. 8/2022 Legeko 16. artikuluan araber, federatu-lehiaketetatik kanpo kirol-arloko lanbideetan jarduteko ezin da federazio-lizentziarik eskatu.

222. Eta prestakuntza akademiko ofizialik egin nahi izanez gero, Euskal kirol-federazioek eta lurralde-federazioek eska al diezadakete federazio-lizentziarik?

Ez, berariaz debekatuta dago 8/2022 Legean, 16. artikuluan, inork ez dezan itxita eduki lanbide-kualifikazioak lortzeko bidea. Gehiegieria izan zitekeen, azpian geratzen dena zanpatzea.

223. Katgoria bereko lehiaketetan, euskal kirol-federazioek eta lurralde-federazioek eska al dezakete lanbide-kualifikazio desberdina gizonezkoen eta emakumezkoen lehiaketarako?

Ez. Egia da ez dagoela berariaz debekatuta, baina ulertuko litzateke arrazoirik gabeko tratu diskriminatzailea dela.

224. Ba al da epe bat, Euskadiko kirol-federazioek eta lurralde-federazioek federazio-erregelamendua 8/2022 Legea egokitzeko (egokitu beharra izatekotan)?

Bai, 2026ko urtarrilaren 1a baino lehenago, kirol-federazio guztiek 8/2022 LEGEaren arabera onartuak eduki behar dituzte federazio-erregelamenduak.

225. Kontu egin nire kirol-federazioak daukan federazio-erregelamendua ez datorrela bat 8/2022 LEGEAN xedatutakoarekin. Zer geratzen da?

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, 8/2022 LEGEAN aurreikusitako kualifikazioak eskatu behar dira. Federazio-xedapenek bestelakorik baldin badiote, ez dira aintzakotzat hartuko.

Horrek ez du esan nahi administrazio publikoak ezin duenik esku hartu -bai baitu ahalmena- dena delako federazioaren administrazio-funtzio publikoetan, betiere Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen babesean. Eta administrazioaren ahalmen horietako bat, hain zuzen ere, federazioetako erregelamenduak egitea eta onartzea da.

226. Euskal federazio bakoitzak erregelamenduetan dauka zehaztuta zer titulazio behar den lehiaketetan entrenatzaile aritzeko. Baina, euskal lizentziaz lehiatzen den lehiaketa guztietan eskatuko al da? Baita federazio horiek antolatu ez dituztenetan ere?

Esate baterako: entrenatzailea zara, eta euskal lizentzia batekin lan egiten duzu, dena delako

kategoriatan. Bada, euskal federazioaren araudian lizentzia hori lortzeko eskatzen diren kualifikazio-baldintzak bete beharko dituzu, baina araudi horrek 8/2022 LEGEA bete beharko du. Eta berdin dio lehiaketa horiek lurraldekoak, erkidegokoak, estatukoak edo nazioartekoak diren.

Euskal klubetako entrenatzaileek, hortaz, 8/2022 Legean eskatzen diren kualifikazio-baldintzak bete behar dituzte, eta, gainera, beharrezkoa bada, lehiaketa antolatzen duen federazioak ezarritako baldintzak.

227. Hastapen-jardueretan edo oinarrizko jardueretan, boluntario modura aritzen diren monitoreek eta entrenatzaileek zilegi al dute federazio-tituluak baliatzea?

2026ko urtarrilaren 1era arte soilik, hala baitio 8/2022 LEGEko bigarren xedapen iragankorrak, azken xedapenetako lehenengoarekin bat etorritz.

Konparazio baterako: monitoreak zara, eta boluntario lan egiten duzu, hasierako edo oinarrizko kirol-mailan. Kirol-federazioek dena delako kategoriatarako onartzen dituzten tituluak baldin badituzu gutxienez, 2026ko urtarrilaren 1era arteko egongo zara habilitaturik, nahiz eta 8/2022 Legean eskatzen diren kualifikazio profesionalak eduki ez.

228. Boluntarioa zara hortaz, eta hasierako edo oinarrizko kirol-mailetan aritzen zara, federazio-tituluak lagun. Dagokizun habilitazioak esparru guztietarako balio al du?

Ez. Federazioen eremurako bakarrik.

229. Baina, gure aztergai honetan, zer da hasierako (hastepeneko) edo oinarrizko kirola?

Legearen bigarren xedapen iragankorraren arabera, beheko kategoriak dira hasierako edo oinarrizko kirola, gazte-kategoriaraino.

230. Ba al dago aukerarik federazioetako beste diploma batzuk ere habilitatzeko?

Kirolerako eskumena duen sailak egin dezake, agindu bidez. 8/2022 Legeak ematen baitio, beren beregiz, horretarako gaitasuna (bigarren xedapen iragankorreko 4. apartatuan), baina betiere kirol-modalitate jakin batzuen egoera kontuan harturik egin beharko du. Zehazki, beste federazio-diploma batzuk gaitzeko (habilitatzeko) ahalmena ematen dio, bigarren xedapen iragankorreko apartatu horretan zehazturik daudenez gainera.

231. Kontu egin Federazio-titulu bat daukadala. Jardun al dezaket entrenatzaile edo monitore gisa, nire kirol-modalitate edo -diziplinan?

Egin dezagun kontu baduzula federazio-diploma bat, 8/2022 Legea indarrean jarri aurretik lortua, Kirol Ikaskuntzen Errege Dekretuak edo dagozkion erregelamenduzko xedapenek araututako kirol-ikasketetatik kanpo (urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua, urriaren 24koa), bada, 8/2022 Legeko bigarren xedapen iragankorraren arabera, zuk ere baduzu entrenatzaile gisa jarduteko gaitzuntza (habilitazioa).

Ohartarazi behar da gaikuntza hori eta bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako gainerakoak behin-behineko edo aldi baterako gaikuntzak direla, legeak aurreikusten dituenak legearen aplikazio progresiboa ahalbidetzeko, eta legeak eskatzen dituen kualifikazioak dituzten profesionalen gabezia-egoerei erantzuten dietela, dagokion prestakuntza ofizialik ez dagoelako edo kirol-esparru berriak daudelako.

232. Federazio-diplomen habilitazio horrek zer esan nahi du, ofizialki baliozkoak direla? (8/2022 Legeko lehen eta bigarren xedapen iragankorretan dator habilitazio hori)

Ez. Aldi baterako habilitaturik zaudela besterik ez. Ez da baliozkoa eta ez du prestakuntza-prozesurik egiaztatzen ez ondorio akademikoetarako ez profesionaletarako. Diploma horien bidez, lehiaketa federatuetan bakarrik esku hartu ahal izango duzu, eta aldi batean baino ez.

233. Federazio-diploma baliatuz, nik, nahi baldin badut, badaukat entrenatzaile gisa jarduteko gaikuntza hori. Baina, jardun al dezaket antzeko beste kirol-modalitate edo -diziplina batzuetan edo goi-mailako kirol-mailetan?

Ez. Zure tituluari dagokion kirol-modalitate edo diziplinan eta kirol-mailan jardun ahal izango duzu bakarrik. Hori bai, goragoko beste kirol-maila batzuetarako ere habilitaturik egon zaitezke, baldin eta 8/2022 LEGEA indarrean jarri eta bi urteko epean dagokion federazio-diploma ekuratzen baduzu.

234. Trantsizio-aldiko I., II. eta III. mailetako prestakuntza ofizialak balizkoak al dira?

Bai. Ikusi Legeak zer esaten duen kirol-teknikarien eta goi-mailako kirol-teknikarien titulazio akademikoetarako, berdin-berdin balio du-eta aldian iragankorrean eskuratutako I., II. eta III. mailako titulazioetarako ere.

235. Euskal kirol-klub bat gara. Gure talde bat estatuko lehiaketa ofizial batean aritzen da, lehen mailan (maila gorenean). Orain, entrenatzailea kontratatu nahi dugu, baina ez dauka 9.5 artikuluan aurreikusitako titulu akademikoa (goi-mailako kirol-teknikaria, edo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako gradu-tituluduna gehi prestakuntza edo esperientzia egokia). Ordea, badu federazio-titulu bat; titulu hori Espainiako federazioak eta nazioarteko federazioak ere eskatzen dute, eta, hari esker, beste klub batzuk entrena ditzake, bai Espainiako ligan bai Europako beste liga batzuetan, maila berean. Hala ere, ezin al dugu kontratatu?

Asmoa izan da errendimendu handiko euskal klubetara oztoporik ez jartzea, alegia, lehiaketa bereko beste taldeen aldean ez dezatela muga gehigarririk izan entrenatzaile ospetsuak kontratatuzko, eta, horregatik, 8/2022 Legeko lehen xedapen iragankorren, bosgarren apartatua onartu zen. Hori xedaturik dagoenez, nazioarteko edo Espainiako federazioek aukera ematen duten bitartean 8/2022 Legeko kualifikaziorik gabe ere entrenatzaile-funtzioak betetzeko errendimendu handiko kirol-lehiaketetan, Espainiako edo nazioarteko dagokion federazioak eskatutako titulazioa daukatenak automatikoki gaituta geratuko dira.

236. Eta, 5. paragrafo hori aplikatzeko orduan, zer lehiaketa hartuko dira errendimendu handiko kirol-lehiaketatzat?

Asmoa da estatuko lehen bi kategoría absolutuak hartzea errendimendu handiko kirol-lehiaketatzat, beste erkidego batzuetan ere halaxe egin baitute, kirol-lanbideei buruzko legeak onartu dituztenean.

Hala ere, 8/2022 Legeko lehenengo xedapen iragankorraren 5. apartatuak berariaz jasotzen du kirol-arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailak beste kirol-lehiaketa batzuk gehitu ahal izango dituela, baldin eta euskal federazioetakoak ez diren taldeek parte hartzen badute.

X.- KUALIFIKAZIOAK ESKATZEKO DATA. BITARTEKO ARAUBIDEA (TRANSITORIOA)

237. 8/2022 Legea jarri al da indarrean?

Bai, azken xedapenetako lehenengoaren arabera, 8/2022 Legea 2022ko uztailaren 20an jarri zen indarrean, baina kualifikazio profesionalak ez dira eskatzen data horretatik aurrera.

238. Orduan, kirol-arloko lanbideetan jarduteko ezarri diren kualifikazioak, noiztik aurrera eska daitezke?

2026ko urtarrilaren 1etik aurrera. Zehaztu dezagun berriro: 8/2022 Legean arauturik dauden lanbideetan jarduteko kualifikazio profesionalak ari gara (bolutarioak barne). Ordura arte, baimen orokor edo gaikuntza moduko bat dago, nahiz eta legean aurreikusitako lanbide-kualifikazioak ez eduki.

Data horretatik aurrera, inork ezingo du Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide horietako bakar batean ere jardun, ez baldin badauzka 8/2022 Legean eskatzen diren kualifikazioak, betiere salbuespenak salbuespen (dokumentu honetan azaltzen dira).

239. 8/2022 LEGEA batzuetan gaikuntzei (habilitazioei) buruz ari da. Denak berdinak al dira?

Ez. 8/2022 LEGEAK gaikuntza mota desberdinak jasotzen ditu. Adibidez, gaikuntza batzuetan, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar da, eta beste batzuetan ez; batzuetan epe jakin bat dago, eta beste batzuetan epea ez da zehazten (baina ez dira betiko); eta abar.

240. Esan dugunez, gaikuntza (habilitazio) batzuk denbora jakin baterako dira, eta erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe ere ematen dizkigute. Adibiderik jarriko?

Adibidez, bada habilitazio bat, 2026ko urtarrilaren 1era arte izenak libreki erabiltzeko; bada beste bat, 2026ko urtarrilaren 1era arte lehen sorospenetako kualifikaziorik gabe jardun ahal izateko

jarduera fisiko eta kirolaren arloko lanbideetan; eta bada beste bat, hasierako edo oinarritzko kirolean boluntario modura aritzen diren monitoreek eta entrenatzaileek 2026ko urtarrilaren 1era arte lanean jarraitu ahal izan dezaten kirol-federazioek dena delako kategoriatarako onartzen duten titulazioarekin.

Gaikuntza horietarako, ez da erantzukizunpeko adierazpenik aurkeztu behar; izan ere, erabakita dago kualifikazio profesionalak eskatu behar hori 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera orokortuko dela, eta erabaki hori ez dute urratzen.

241. Beste gaikuntza batzuk aldi baterako izaten dira, baina epe-muga zehaztu gabe izaten dute, eta erantzukizunpeko adierazpena eskatzen dute. Adibiderik?

Adibiderik argiena 8/2022 Legeko lehen xedapen iragankorrarena da: egiaztatzen baldin baduzu ezen legea indarrean jarri zen egunean jada lanean ari zinela -jarraian lanean, ez noizean behin-lege horretan araututako lanbideetan, gaituta zaude zure dena delako lanbide horretan jarduteko.

Hori bai, gaikuntza hori lortzeko, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko duzu.

242. Euskal federazio bat gara, eta 2026ko urtarrilaren 1aren ondoren, Kirol Zuzendari baterako deialdia egin nahi dugu. 8/2022 Legeko gauza batzuk oraindik ez dira erregelamendu bidez garatu, baina, hala ere, bete behar al ditugu kualifikazio-baldintzak?

Bai, beste galdera batean erantzun den bezala, lanbide-kualifikazioak edukitzeko betebeharra 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera eska daiteke. Hala ere, obligazio formal batzuk erregelamendugarapenaren mende daude, eta halakoak eska daitezkeen edo ez beste kontu bat da, adibidez erantzukizunpeko adierazpena.

243. 2005. urteaz geroztik entrenatzaile pertsonal gisa ari naiz lanean. 8/2022 LEGEAN irakurri dudanez, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar dut, eta adierazpen horrek gaitzen nau lanbidean jarduteko. Baina zer gertatzen da Erregistroari buruzko dekretua ez baldin bada argitaratzen 2026ko urtarrilaren 1erako (EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroa)?

Erregistroa erregelamendu bidez garatu behar da, garapen hori Eusko Jaurlaritzak onartu behar du, eta, onartzen ez duen bitartean, profesionalai ezin zaie eskatu erantzukizunpeko adierazpena aurkezteko; baina bai eska dakieke 8/2022 Legean ezartzen den kualifikazioaz jardun dezatela dena delako lanbidean. Bi betebeharrak desberdin dira.

Beraz, entrenatzaile pertsonal modura lan egiten jarraitu ahal izango duzu, baldin eta 8/2022 Legeak eskatzen duen kualifikazioa badaukazu.

244. Nik, berriz, 8/2022 Legean arauturik dauden lanbideetakoren batean jarduten dut, ez daukat legeak eskatzen dituen kualifikazioak, baina kontua da legea indarrean jarri aurretik ari naizela lanean.

8/2022 Legea indarrean sartu aurretik ari bazara lan egiten han arauturiko lanbideetakoren batean baina ez badaukazu han eskatzen diren kualifikazioak, izango dira prozesu batzuk behin behineko gaikuntza lortzeko eta zure gaitasunak aintzatesteko, aitortuz eskarmentuz dituzula atxikiak, edo formalaz besteko prestakuntzaz. Erregelamendu bidez onartuko da nola egingo diren (zehaztasunak eta baldintzak).

245. Erregelamenduz onartu al dira zehaztasun eta baldintza horiek?

Oraindik ez.

246. Zer gertatzen da zehaztasun eta baldintza horiek erregelamendu bidez lotzen ez diren bitartean?

8/2022 LEGEA indarrean sartu aurretik ari bazinen lanean jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideetakoren batean -jarraian lanean, ez noizean behin-, baina ez baldin badaukazu lege horretan eskatzen den kualifikazioa, dagokion dekretuak ezartzen duen egunera arte jarraitu ahal izango duzu lanean.

247. Zer da “jarraian, ez noizean behin” lan egitea?

Dagokion dekretuan zehaztuko da, baina, hala ere, bada hasierako ideia bat, nahiz eta oraindik ez duen bere bidea egin administrazioan; hara: egiaztatzen baldin baduzu 8/2022 Legea indarrean sartu aurretik gutxienez bi (2) urtez aritu zarela jarraian (lan-legepean, administrazio-legepean edo boluntario), edo indarrean sartu aurreko sei (6) urteetan zatika bi urtez aritu zarela (2), eta gutxienez mila eta berrehun orduko dedikazioa edo lan-esperientzia baldin badaukazu (1.200), joko dugu jarraian lan egin duzula, eta ez noizean behin.

248. Nik, beste askok bezala, errugbiko talde batean lan egiten nuen, jarraian, entrenatzaile modura, baina 8/2022 Legean eskatzen den lanbide-kualifikaziorik gabe. Nola egiaztatu dezaket jarraian aritu naizela lanean?

Nahiz eta oraindik ez den egin gaikuntzak arautzeko dekretu-proiektua, (lehenengo xedapen iragankorra garatzeaz batera egingo da), badago hasierako ideia bat: lan- edo administrazio-esperientzia justifikatzeko, hasiera batean, dokumentu hauek erabiliko dira:

a) Soldatapeko langilea baldin bazara, bi agiriok: Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorren ziurtagiria -edo mutualitatearena edo antzeko beste erakunderen batena-, garbi erakutsiz zer enpresa, lan-kategoria (kotizazio-talde) eta kontratazio-alditan jardun duzun; eta, bestetik, zure enpresaren ziurtagiria (laneko esperientzia metatu duzun hartakoa), zehatz-mehatz erakutsiz kontratu-aldien iraupena, zer jarduera profesionaletan aritu zaren, eta zer datatik zer datara jardun duzun. Enplegatutako publikoa bazara, lanean aritu zaren administrazio publikoaren ziurtagiria.

b) Langile autonomoa edo zure konturako langilea bazara, bi agiri hauek: Ekonomia Jardueren Zergako alta-agiria; eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Nagusiaren ziurtagiria -edo mutualitatearena edo antzeko beste erakunderen batena-, garbi erakutsiz zer alta-aldi izan dituzun dagokizun araubide berezian, eta ondo deskribatuz zer jarduera profesionaletan aritu zaren eta zer datatik zer datara.

Ziurtagiri horietan, zenbat dedikazio-ordu edo lan-ordu egin dituzun ere azaldu beharko duzu, eta berdin dio soldatapeko langilea zaren edo norberaren konturako langilea.

249. Ni, ordea, boluntarioa izan naiz, eta lana bai egin dut, baina ordainsaririk gabe eta kontraturik gabe. Nola egiazta dezaket esperientzia?

Oraindik ez dugu egin garapen-dekretua, baina azalduko dizuegu hasierako asmoa: boluntario ibili bazara, ibili zaren antolakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko duzu, eta, harekin batera, derrigor, hango datuak egiazkoak direla ziurtatzeko agiriak, esate baterako, federazio-lizentzia, arriskuak aseguratze dokumentu izenduna, boluntariotza-konpromisoa edo antzeko beste edozein dokumentu.

250. 8/2022 LEGEA indarrean jarri zenean, ni, ordurako, kirol-arloko lanbideetako batean aritzen nintzen lanean, jarraian, ez noizbehinka. Habilitaturik geratu naizenez, habilitazio horri esker edozein jarduera profesionalean aritu al naiteke?

Ez. Aritzen zinen dena delako lan edo mailan aritzeko besterik ez du balio habilitazioak (orduko erakundean edo beste batean).

251. Eta, esperientziaren bidez edo prestakuntza ez-formalen bitartez eskuratutako gaitasunak? Jada ez dut haien ziurtagiria eskatu beharrik?

Bai. Aldi baterako gaikuntzak ez du inor obligazio horretatik salbuetsita uzten: gaitasunak aitortzeko eskatu beharra daukazu, konpetentzia profesionalak ebaluatze eta egiaztatze etengabeko prozedura irekiaren bidez.

252. Nola lortu beharko da behin-behineko gaikuntza?

Behin-behineko gaikuntza horiei buruzko xehetasun guztiak (baldintzak, eta nola lortu) Eusko Jaurlaritzak garatu behar ditu erregelamendu bidez.

Hasiera batean behintzat, 8/2022 Legean indarrean sartu baino lehenago ere han araututako lanbide batean ari bazinen, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko duzu, eta hark emango dio taxua habilitazioari.

253. Aurkeztu dut erantzukizunpeko adierazpena. Orain, itxaron egin behar al dut zuek berariaz ebatzi arte ematen didazuela habilitazioa?

Ez. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezte hutsak (etorkizuneko Dekretuan ezarri bezala eta baldintzetan) aldi baterako gaituko du deklaratzailerak, aurkezten den egunetik aurrera, ordura arte egiten zuen jarduera profesionalean aritzeko, baina 8/2022 LEGEA indarrean jarri aurretik egiten zuen zereginerako edo mailarako besterik ez, hori bai, erakunde berean edo beste batean.

254. Eta, habilitazioa lortzen dutenei, Euskal kirol-federaziook ezin al diegu kualifikazioa eskatu?

Ez. Zuen kirol-federazioan kualifikazioa eskatzen baduzue entrenatzaile izateko, ziurrenik habilitazioa (gaikuntza) ez duzue aintzakotzat hartu beharrik izango; hori da behintzat hasierako asmoa, nahiz eta oraindik ez dugun dekretua egin.

255. Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharra daukat behin-behineko gaikuntza lortzeko. Eredu ofizialen baten arabera egin behar al dut?

Bai, eredu normalizatua erabili behar duzu. Erregistroaren webgune ofizialean izango da, interesdun ororen eskura.

256. Behin-behineko gaikuntza lortzeko erantzukizunpeko adierazpen horretan zer informazio eman behar dut?

Oraindik ez da onartu 8/2022 Legeko lehen xedapen iragankorra garatzeko dekretua, baina, hasiera batean behintzat, informazio hau eskatzeko asmoa dago:

- a) Zu (kiroletako profesionala) identifikatzeko datuak.
- b) Erantzukizun zibileko aseguru-polizaren datuak, edo, aseguru hori kontratatzetik salbuetsita bazaude, horixe adierazteko erantzukizunpeko adierazpena.
- c) Ea 2022ko uztailaren 20a baino lehen zer kirol-lanbidetan aritu zaren, eta ea aurrez aurre egin beharreko lanak ziren.
- d) Jarduera profesional horretan zer egiten zenuen edo zer mailatan. Entrenatzaile profesional gisa jarduten bazenuen, maila hauetako zeinetan zehatz-mehatz: oinarrizko maila, erdiko maila eta errendimendu-maila.
- e) Bide formaletatik kanpoko prestakuntzaren edo esperientzia profesionalaren datuak (lanbideetan jarduteko).
- f) Jarraian (edo ez noizean behin) egindako lanaren datuak.
- g) Ea zer prestakuntza duzun lehen sorospenetan, betiere arlo horretako gutxieneko prestakuntza-baldintzak arautzen dituen Dekretuaren arabera.
- h) Zehapen penal edo administratibo irmoak (lanbidean jarduteko ezinduta uzten zaituztenak). Kirol-federazioek utzi bazaituzte aldi baterako lanetik kanpo edo ezinduta, zehapen horiek ez aipatu.

257. Zuekiko harremanak bitarteko elektroniko bidez izan behar al ditut derrigor?

Indarrean dagoen legeriaren arabera, pertsona fisikoek, arau orokor gisa, edozein unetan aukera dezakete Administrazio Publikoarekin bitarteko elektronikoen bidez komunikatzen diren ala ez.

Hala ere, azalduko dizuegu hasierako ideia: 8/2022 Legean araututako jarduera profesionalean aritzen diren pertsona juridikoak (39/2015 Legeko 14.2 artikuluan datoz zehazturik) eta langile autonomoak derrigor elektronikoki erlazionatu beharko dira, eta hala zehaztuta utziko da habilitazioak arautzeko etorkizuneko dekretuan (8/2022 Legeko lehen xedapen iragankorrean dituzue habilitazio horiek).

258. Nik ordea, ez daukat nahikoa prestakuntzarik Administrazioarekin bitarteko elektronikoak erabiltzeko. Lagunduko al didazue?

Har dezagun Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legea (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa), eta, 12. artikuluan, ikusiko dugu "kirol-administrazioak bermatu egin beharko diela interesdunei bitarteko elektronikoen bidez izan dezaketela harremana Erregistroarekin. Horretarako, haien esku jarriko ditu beharrezko diren irispide-kanalak eta kasu bakoitzerako erabakitzen diren sistema eta aplikazioak".

259. Noiz aurkeztu beharko dut erantzukizunpeko adierazpena, gaituta egoteko?

Oraindik ez dugu onartu lehenengo xedapen iragankorra garatzeko dekretua. Han zehaztuko da epea.

260. Eta noiz arte iraungo du behin-behineko gaikuntza horrek?

Gaitasun profesionalak aitortzeko eta egiaztatzeko epea amaitzen den arte (erregelamendu bidez zehaztuko da). Dena dela, ikus ditzagun hasierako ideia batzuk:

Egin dezagun kontu gaitasun profesionalak aitortzeko eta egiaztatzeko prozeduran parte hartu nahi duzula; egin duzu eskaria; onartu zaituzte prozeduran; baina ez duzu inskripzioa formalizatzen; orduan, gaikuntza galdu egingo duzu, lehen xedapen iragankorreko gaikuntza aldi baterako baita.

Beste bat: prozeduran parte hartu duzu, baina ez duzu ebaluaketa-prozesua gainditu eta ez dituzu egiaztatu zure habilitazioko lanbidean jarduteko gaitasun-unitateak: habilitazioa galdu egingo duzu.

Kontuan izan behar da 8/2022 Legeak oso epe zabala ematen duela zuen lanbide-prestakuntza osatzen joan zaitezten.

261. Orain arte, berez 8/2022 Legeko lanbideetan egiten diren jardueretan ibili naiz, boluntario, baina orain eskatzen zaidan kualifikaziorik gabe. Nik ere eska al dezaket behin-behineko gaikuntza hori?

Bai. Boluntarioek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko duzue behin-behinean gaituta geratzeko, baina ez duzue inskribatu beharko EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan.

262. Hortaz, 8/2022 Legea indarrean jarri aurretik ere ni banebilen jarduera profesionalotan lanean. Orain, habilitazioa lortzeko, non aurkeztu behar dut erantzukizunpeko adierazpena?

Edo EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroko plataforma elektronikoan; edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako gainerako lekuetan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 16.4 artikulua). Oraindik ez dugu Dekretua egin, baina horixe da asmoa.

263. Zer gertatuko da gaikuntzarako erantzukizunpeko adierazpena ez baldin badut aurkezten erregelamenduz aurreikusitako epean?

Erantzukizunpeko adierazpena erregelamenduz ezarritako epean aurkezten ez bada, ezingo da gaikuntza lortu. Era berean, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe jardutea zehapen-prozedura hasteko arrazoia izango da, hargatik eragotzi gabe Administrazioak ahalmena izatea jardun profesionala eteteko egin beharrekoa egiteko.

264. Aurkeztu dut erantzukizunpeko adierazpena, gaikuntza lortzeko; eta orain? Gerta daiteke zuek zerbait egiaztatu edo ikuskatu behar izatea?

Organo eskudunak edozein unetan erabaki dezake zerbait ikuskatzea edo egiaztatzea, jakiteko ea eman dituzun datuak benetakoak diren; eta, beharrezkoa bada, hartu beharreko kautela- edo zehapen-neurriak hartuko ditu.

265. Zer gertatzen da ikusten baldin baduzue nire adierazpenean badela okerrik edo gezurrik?

Ikusten baldin badugu erantzukizunpeko adierazpenean badela -idatzita edo erantsita- datu, adierazpen edo dokumentu oker edo faltsurik eta funtsezkoa baldin bada; ez baduzu adierazpena aurkezten; edo ez baldin badira legeko baldintzak betetzen, ezingo duzu lan egin; eta gero datoz balizko erantzukizun penal, zibil edo administratiboak.

Halakoetan, organo eskudunak, interesdunari (zuri) entzun ondoren, ebazpena idatziko du, hori dena han azalduz. Ebazpen horretan, aginduko du ezeztaturik uzteko EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan zenuen inskripzioa, eta interesdunak (zuk) lanbidea utzi egin beharko du.

266. Zer datu edo dokumentu joko dira funtsezkotzat?

Dekretua oraindik egin ez bada ere, hasierako ideia da funtsezkotzat jotzea erantzukizunpeko adierazpenean jasotako edozein datutan, adierazpenetan edo dokumentutan zer edo zer okerra edo gezurra izatea, baldin eta eragiten badio kualifikazio pertsonalari, edo lanbideari, edo erantzukizun zibil profesionaleko aseguruari.

267. Aurreikusi al da behin-behineko beste gaikuntza-modurik 8/2022 LEGEAN araututako kirol-arloko lanbideetan jarduteko?

Bai, baina lehen xedapen iragankorrekoak ez diren beste kasu batzuetarako.

Adibidez? Har dezagun 8/2022 Legeko bigarren xedapen iragankorra. Han jartzen duenez, "Kirol Monitore, Entrenatzaile edo Kirol Zuzendariaren lanbideei dagozkien eremu material guztietan, Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak bere eskumenen esparru eskusiboan egiaztatzen badu ez dagoela lege honetan aurreikusitako kualifikazioak dituen profesionalik une bakoitzean dagoen eskaintzari behar bezala erantzuteko, edo ez dagoela prestakuntza ofizialik edo kirol-esparru berriak sortu direla, behin-behinean gaituko ditu kualifikazio baxuagoa edo prestakuntza analogoa dutela egiaztatzen duten pertsonak."

268. Araututa al dago bigarren xedapen iragankor horren erregelamendu-garapena?

Ez. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailari dagokio gaikuntza profesional horien araubidea ezartzea; zertarako? Jakiteko dena delako gaikuntza eskatzen digutenek badauzkatela gaitasun profesional jakin batzuk, esperientziaren bidez edo prestakuntza-bide formaletatik kanpo eskuratuta.

269. Gaikuntza horiek behin betikoak izango dira?

Ez. Gaikuntza horiek behin-behineko ondorio profesionalak izango dituzte.

270. Behin-behineko gaikuntza horietako bat baldin badaukat, nire prestakuntza-prozesuak edo esperientzia ere ofizialki baliozkotuta edo egiaztatuta al dauzkat?

Ez. Bada prozedura bat, etenik gabe zabalik, gaitasun profesionalak aitortzeko eta egiaztatzeko, baina gaikuntza horiek ez dute harekin zerikusirik. Beraz, behin-behineko gaikuntza horiek ez dakarte berekin prestakuntza-prozesuak edo esperientzia ofizialki baliozkotzea edo egiaztatzea.

271. Legeko lehen eta bigarren xedapen iragankorren babesean gaituta nago. Ni ere inskribatu behar al naiz Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan?

Bai. 8/2022 Legea garatzeko erregelamenduan azpiatal berezi bat sortuko dugu zure modukoentzat (habilitazioa edo gaikuntza duzuenentzat).

272. Enpresatik kalera bota al nazakete ez baldin badut lanbide-kualifikazioaren egiaztigiri hori garaiz lortzen (dagokion Dekretuak ezartzen duen epean)?

Bai. Garaiz lortzen ez baduzu -obligazioa baita-, pentsa daiteke halako batean ezgaitasuna etorri zaizula, Langileen Estatutuan jartzen duen bezala, 52 a) (urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen).

273. Lanbide-kualifikaziorik gabe lanean jarraitzeko gaikuntzak jarduera guztietarako balioko al du?

Ez. Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak baliorik gabe utzi ahal izango du lanbidean jarduteko gaikuntza, baldin eta, jarduerak nolako ezaugarriak dituen kontuan hartuta, ikusten bada lanbidean kualifikaziorik gabe jarduteak arrisku zuzen eta larrian jartzen duela pertsonen osasuna eta segurtasuna.

274. Aurreikusitako gaikuntza lortzen badut, nire gaitasun profesionalen aitortpen ofiziala lortzen ari al naiz, benetan?

Ez. Gaikuntza hori ezin da ulertu gaitasun profesionalen aitortpen ofizial moduko baten gisara, ez baitakar ondorio akademikorik, eta ez baitakar gaitasunak edo titulazioak homologatzea, aitortzea

edo baliozkotzea.

Gaikuntza horren bidez gauza bat bakarrik lortu nahi da: 8/2022 Legearen aurretik Euskadin kirol-arloko lanbideetan ari zirenak merkatutik ez erazutzea, araudi berriak eskatzen duen kualifikaziorik ez dutela-eta.

275. Gaikuntza lortzen badut, ez al dut zertan parte hartu gaitasunak aitortzeko eta egiaztatzeko etengabe irekita dagoen prozeduran?

Ez zaude salbuetsita. Gaikuntzak ez zaitu salbuetsiko gaitasun profesionalak aitortzeko eta egiaztatzeko eten gabe irekita dagoen prozeduran parte hartzeko eskaera egin beharretik.

276. Lortu dut gaikuntza (habilitazioa). Baina goazen Gaitasun Profesionalen Estandarren Katalogo Nazionalera, eta ikusiko dugu kirol-arloko kualifikazio batzuk ez daudela han sartuta edo erreferentziatuta. Orduan, zer gertatzen da ezin badut parte hartu gaitasunak egiaztatzeko prozeduretan?

Arazoak ez du zerikusirik zurekin, profesional habilitatu zaren horrekin, eta, hortaz, ez duzu eragozpenik jarduera profesionala garatzeko; izan ere, habilitazio-prozedura irekitzen ez den bitartean, ezingo da habilitaziorik baliorik gabe utzi.

XI.- ARAUHAUSTEAK ETA ZEHAPENAK

277. Euskadiko udal bat gara, eta zalantza hau daukagu: Zein administrazioek dauka ardura legean ezarritakoa betetzen dela zaintzeko?

Kirol-ikuskaritzari dagokio ikuskaritza-lanak egitea eta 8/2022 Legeko xedapenak betetzen direla kontrolatzea, eta Ikuskaritza hori, gaur egun, Euskadiko Kirolaren Legean dago arauturik (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, 119. artikulua).

278. Zer ondorio ditu 8/2022 Legean ezarritako betebeharrak ez betetzeak?

Ez badituzu betetzen 8/2022 Legean eta gainerako xedapen aplikagarrietan datozen preskripzioak, eta berdin dio zer edo zer eginez edo egin gabe utziz ez dituzun betetzen, jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideen arauak hausten ari zara.

279. Zehapen-araubide hau aplika al dakieke sektore publikoan lan egiten duten Gorputz Hezkuntzako irakasleei?

Ez. Irakasle horiei diziplina galdegiteko orduan, funtzio publikoaren eta hezkuntzaren arloan indarrean dagoen araudia bete beharko da.

280. 8/2022 LEGEAN tipifikatutako lanbideez ari garelarik, zer ondorio izan ditzake araua hausteak?

Zehapen-espeditentia zabalduko da, eta, gero, dagokizun administrazio-zehapena ezarriko zaizu. Espediente hori administrazio publikoen zehapen-ahalari buruzko legeriaren arabera garatuko da.

281. 8/2022 Legearen arabera, hizpide ditugun lanbideetan nolako arauhausteak gerta daitezke?

Kirolaren arloan arautu ditugun lanbideetan, arauhausteak hiru eratakoak izan daitezke: oso astunak, astunak eta arinak.

282. Zein dira oso astunak?

Hauek dira oso astunak:

a) Legeko 14. artikuluko a, b, c eta e letretan jasotako betebeharrak ez betetzea, baldin eta pertsonen osasunari edo osotasun fisiko edo psikikoari kalte larria eragiten bazaio.

b) Legeak eskatutako lanbide-kualifikaziorik gabe ematea zerbitzu profesionalak, betiere doloa badago.

c) Profesionalen kontratazioan nahitaezko lanbide-kualifikazioa ez eskatzea, betiere doloa badago.

d) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan egiten diren ikuskatze-lanak oztopatzea edo haien aurka egitea.

e) Legean arauturiko lanbideetarako gordeta dauden jarduera edo funtzioetan ari bazara baina ez badituzu kasuan kasu eskatzen diren baldintzak betetzen, eta EAEko administrazio orokorrean kirolaren eskumena duen zuzendaritzak ez jarraitzeko eskatzen badizu, errekerimendu horiei ez kasu egitea.

283. Zein dira arauhauste astunak?

Hauek dira astunak:

Derrigorra izan arren, elkargoko kide ez egitea edo Erregistroan ez inskribatzea (EAEko Jarduera fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan), bai eta erantzukizun zibileko aseguruik edo legeak agintzen duen finantza-berme baliokiderik ez edukitzea ere, hori ere derrigorra izan arren.

b) Legeak eskatutako kualifikaziorik gabe ematea zerbitzu profesionalak.

c) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloan, profesionalak kontratatzeko orduan eskatu behar den kualifikazio profesionala ez eskatzea.

d) Kirol-lanbideen izenak erreserbatzeko betebeharra ez betetzea.

- e) Ez betetzea Legeko 14. artikuluko a, b, c eta e letretan datozen betebeharrak profesionalak, baldin eta arriskurik eragin badezake pertsonen osasunean eta segurtasunean.
- f) Ez betetzea informazioaren eta publizitatearen arloko obligazioak (lege honetan zehaztu direnak, jakina).
- g) Lanbidea plataforma birtualen edo IKTen bidez gauzatzeko orduan, ez betetzea Legeko 18. artikuluko 1, 2 eta 3 paragrafoan datozen obligazioak.
- b) Legeak eskatutako kualifikazio profesionala eduki ez arren, zerbitzuak boluntario modura ematea.
- i) Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko programetan boluntarioak erabiltzea, nahitaezko kualifikazioa eskatu gabe.
- j) Ikuskatze-lanari laguntasuna ukatzea behin eta berriz.

284. Zein dira arauhauste arinak?

Hauek dira arauhauste arinak:

- j) Ikuskatze-lanari laguntasuna ukatzea, betebeharra baita.

a) e) Ez betetzea Legeko 14. artikuluko a, b, c eta e letretan datozen betebeharrak profesionalak, baina arriskurik eragin gabe jarduera fisikoa edo kirola egiten ari diren pertsonen osasunean eta segurtasunean.

285. Arau-hauste oso astunengatik zer zehapen aurreikusten ditu 8/2022 LEGEAK?

Zehapen hauek jar daitezke oso arau-auste astunengatik:

- a) Lanerako desgaitzea, gutxienez urtebete eta egun batez eta gehienez bi urtez.
- b) 3.001 euro eta 30.001 euro arteko isuna.

286. Arau-hauste astunengatik zer zehapen aurreikusten ditu 8/2022 LEGEAK?

Zehapen hauek jar daitezke arauhauste astunengatik:

- a) Lanerako desgaitzea, gehienez ere urtebetez.
- b) 1.001 euro eta 3.000 euro arteko isuna.

287. Arauhauste arinengatik zer zehapen aurreikusten ditu 8/2022 LEGEAK?

Zehapen hauek jar daitezke arauhauste arinengatik:

- a) 1.000 eurorainoko isuna.

b) Kargu-hartzea.

288. 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera kualifikazioak eskatu beharko dira; hori badakigu, baina zer gertatuko da profesional modura jarduten duen norbaitek oraindik ez baldin badauka kualifikazioa, edo ez badu eskuratu habilitazio profesionala?

Ezingo du jarraitu jarduera profesional horretan.

Dena delako lanbide horretan ez baldin badu jarduten lege honek xedatu bezala, ordenamendu juridiko aplikagarriaren arabera administrazio-erantzukizunak, diziplina-erantzukizunak eta erantzukizun penalak eskatuko dira.

289. Eta izango al da ondoriorik pertsona hori kontratatu duen erakundearentzat?

8/2022 LEGEAK arauhauste astuntzat jotzen du kualifikaziorik gabeko langileak edo profesionalak kontratatzea, baldin eta kontratua, osorik edo zati batean, kirol-lanbideei dagozkien lanak egiteko bada.

290. Zer administrazioek dauka zehapen-ahala?

8/2022 Legeko 23. artikuluan jartzen du Eusko Jaurlaritzan kirol-arloko eskumena duen sailak izango duela zehatzeko ahala lege honetan ezarritakoa hausten bada.

291. Elkargo profesionalok diziplina-ahala erabil al dezakegu gure elkargokideekiko, 8/2022 LEGEA betetzen ez badute?

Elkargo barruko diziplina-ahala erabil dezakezue, berariaz hala xedatuta baitago Elkargo Profesionalei buruzko otsailaren 13ko 2/1974 Legean. Ikus dezagun lege horretako 5. artikulua; *"corresponde a los Colegios Profesionales el ejercicio de las siguientes funciones, en su ámbito territorial: (...)ejercer la facultad disciplinaria en el orden profesional y colegial"*.

Jakina, diziplina-ahal hori muga batzuen barruan erabili behar da: estatutuetan berariaz tipifikatuta daudenak soilik izango dira elkargo barruko diziplina-arauhausteak; estatutuetan tipifikatutako zehapenak baino ezin izango dira ezarri; *non bis in ídem* printzipioa errespetatu beharko da, ezer ez dadin bi bider zehatu; alegia, baldin badakigu nork urratu duen araua, zer arau urratu duen, funtsa eta abar, eta zehapena jarrita badago zigor-bidean edo administrazio-bidean, ezin da beste zehapenik jarri.

292. Euskadiko udal bat gara. Badakigu Eusko Jaurlaritzak daukala administrazio-zehapenak jartzeko ahala (kirol-arloko sailak); baina, kontu egin badugula funtzionario bat kirol-monitore gisa lan egiten duena; adingabeekiko jardueretan aurrez aurre egon beharra zeukan, baina ez du bete obligazio hori eta, inor begira ez zutenez, adingabe batek min hartu du; guk, udal modura, ezar al diezaiokegu diziplina-zehapenik?

Bai, udalek diziplina-ahala erabil dezakete beren funtzionarioen eta lan-araubideko enplegatuen gainean.

Har dezagun Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (40/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Zehapen-printzipioak atariko tituluko III. kapituluko xedapenetan datoz; bada, 25.3 artikulua dioenez, xedapen horiek: *“berdin aplikatuko dira administrazio publikoek beren diziplina-ahala baliatzen dutenean beren zerbitzuko langileekiko, enplegu-harremanaren izaera juridikoa edonolako dela ere”*.

XII.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

293. Kirol-arloko lanbideetan jarduteko, behar al da asegururik erantzukizun zibilerako?

Bai, baina kasu batzuetan bakarrik.

294. Zergatik da beharrezkoa kirol-arloko profesionalek erantzukizun zibileko aseguru bat sinatzea?

Horrela, haien zerbitzu profesionalen hartzaileak, kontsumitzaileak eta erabiltzaileak babestu nahi dira.

295. Zer estaltzen du erantzukizun zibileko aseguruak?

Zerbitzu profesionalak ematen ari garelarik, gerta daiteke kontsumitzaile edo erabiltzaileei kalterik eragitea. Kalte horiek nahi dira estali erantzukizun zibileko aseguruaren bidez.

296. Derrigor behar al da erantzukizun zibileko aseguru? Ez dago beste aukerarik?

8/2022 Legean jartzen du edo erantzukizun zibileko aseguru edo *“finantza-berme baliokidea”*.

297. Zer da finantza-berme baliokidea?

8/2022 LEGEAK ez ditu finantza-berme baliokideak arautzen, eta gai hori lege horren erregelamendu-garapenean jorratuko da. Hala ere, administrazioak kontratatzen dituenean aseguruak, finantza-berme baliokidetzat onartuta daude bai abalak bai kauzio-aseguruak.

298. Noiz ez da beharrezkoa erantzukizun zibileko aseguru kontratatzea?

Kasu hauetan ezin da derrigor eskatu:

- a) Dena delako profesionalak administrazio publiko batean lan egiten du, eta ez beste inon.
- b) Hirugarren baten kontura bakarrik lan egiten du, eta hirugarren horrek aseguraturik dauka jardueraren arriskuen estaldura.

299. Nik, esate baterako, goizetan, besteren kontura egiten dut lan, profesional gisa;

baina, arratsaldeetan eta asteburuetan, autonomo modura edo nire kontura aritzen naiz. Zer gertatuko da?

Erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu beharko duzu, autonomo gisa edo zerorren kontura egiten dituzun jarduera profesionaletarako.

300. Ni, berriz, gimnasio bateko titularra naiz, eta, han, gainera, spinning-saioak ematen edo zuzentzen ditut nire bezeroekin. Badut erantzukizun-aseguru bat kontratatutik, nire lokalak bezero horiei eragin diezazkiekeen kalteetarako. Aseguru horrekin nahikoa al da?

Ez. profesionalak lanean eragin ditzakeen kalteak ere estali behar ditu erantzukizun zibileko aseguruak.

Beraz, aseguru-etxearekin polizaren gehigarri bat sinatu beharko duzu, edo, nahiago baduzu, beste aseguru bat.

301. Kirol-klub bat gara, eta erantzukizun zibileko aseguru bat daukagu kontratatuta, badaezpada hirugarrenei kalterik eragiten badiegu ere partidak antolatzen ditugunean, entrenamenduetan, bidaletan eta abar. Kalte horiek gure jokalariek eragin ditzakete, edo teknikariek, edo zuzendariak. Kluba da aseguru-polizaren hartzailea, eta kluba bera ere aseguraturik dago polizan. Nahikoa al da poliza hori?

Ez. Gauza bat da klubari zer kalte erreklamatzeko zaizkion zuen teknikarien erruz, eta hori estalita eduki behar duzue, baina, gainera, teknikariak berak ere aseguraturik eduki behar dituzue, badaezpada teknikariak eramaten dituzten auzitara, eta ez kluba; aseguruak erantzun beharko baitu.

302. Entrenatzaile gisa lan egiten dut euskal kirol-federazio batentzat, baina ez dakit erantzukizun zibileko asegururik badudan. Eska al dezaket asegura nazaten?

Bai.

303. Profesional batzuen artean sozietate profesional bat sortu dugu. Ematen ditugun zerbitzuak, berez, jarduera fisikoaren eta kirolaren lanbideei dagozkie. Nork kontratatu behar du erantzukizun zibileko aseguru?

Zuen sozietate profesionalak berez lanbide horiei dagozkien zerbitzuak ematen dituenek, aseguru bat hitzartu beharko duzue, eta han behar bezala estalita utzi zuen kontura aritzen diren kirol-profesionalek, zer edo zer egiteagatik edo egin gabe uzteagatik, zuengan eragin dezaketen erantzukizun zibila.

304. Zeintzuk dira ziurtatu beharreko gutxieneko kapitalak?

Gutxieneko kapital horiek erregelamendu bidez ezarriko dira. Eusko Jaurlaritzak oraindik ez du dekretua onartu.

Erregelamendu bidezko garapenik ezean, hasiera batean uste da aseguraturako gutxieneko zenbatekoa 100.000 euro ingurukoa izango dela biktima eta ezbehar bakoitzeko, eta 600.000 euro ingurukoa urte bakoitzeko.

305. Oraindik ez da onartu garapen-erregelamendua, baina, hala ere, derrigor sinatu behar al dut erantzukizun zibileko asegurua?

Bai. Kirol-lanbideetan jarduteko erantzukizun zibilerako aseguruez 8/2022 Legeak dioena garatzen ez den bitartean, nahitaezkoa izango da erantzukizun zibileko aseguru-kontratuak sinatzea, nahiz eta, kasu horretan, asegurua hartzailleek libreki zehaztuko dituzten gutxieneko kapitala eta gainerako aseguru-baldintzak.

306. Bakoitzak bere asegurua kontratatatu behar al dut? Ala atxiki naiteke aseguru kolektibo batera, adibidez elkargo profesional, elkarte profesional edo antzeko erakunde bateko aseguru kolektibo batera?

Ez da beharrezkoa asegurua banaka kontratatzea. Hau da, ez da beharrezkoa jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionala izatea polizaren hartzailea.

8/2022 LEGEak eskatzen duena da jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak estalita izatea kontingentzia edo arrisku hori, eta berdin dio poliza banaka harpidetzen duen, edo polizaren hartzailea elkarte, korporazio edo antzeko talderen bat den eta haren babestean dagoen estalita.

307. Entrenatzailea naiz eta dagokidan elkargoko kide (Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako Lizentziadunen Euskadiko Elkargo Ofiziala). Nire elkargoak badu erantzukizun zibileko aseguru kolektibo bat elkargokide guztientzat. Hala ere, erantzukizun zibileko beste aseguru bat kontratatatu behar al dut, neurea alegia?

Ez. 8/2022 LEGEan jartzen du aseguraturik egon behar duzuela, ez bakoitzak bere asegurua eduki behar duela. Zilegi da elkargoak aseguru kolektibo bat hartzea, eta kide guztiak haren barruan aseguraturik edukitzea.

308. Nire asegurua ondo estalita uzten ditu lanean izan ditzakedan istripuak. Nahikoa da? Bete dut aseguratzeko obligazioa?

Ez. Erantzukizun zibileko asegurua eta istripu-aseguruak desberdinak dira. Istripu-aseguruak kirol-profesionalak jasandako kalteak estaltzen ditu, eta erantzukizun zibileko asegurua, berriz, profesionalak hirugarrenei eragindako kalteak. Istripu-aseguruaren bidez, profesionalak gorputzean jasandako kalteak estaltzen dira, eta erantzukizun zibileko aseguruaren bidez, berriz, profesional horrek eragindako gorputz- eta ondare-kalteak. Istripu-aseguruaren bidez, profesionalak nahigabe jasaten dituen kalteak estaltzen dira; eta erantzukizun zibileko aseguruaren bidez, berriz, profesionalak bere erruz edo zabarkeriaz hirugarrenei eragindako kalteak soilik.

309. Ikuskaria etorri zait. Nola erakutsiko diot aseguraturik nagoela?

Oraindik ez dugu garapen-erregelamendua egin, baina, hasiera batean behintzat, honela erakuts dezakezu noiz arte duzun aseguru eta zer duzun aseguraturik:

- a) aseguru-etxeak emandako ziurtagiria.
- b) elkargoak edo elkarteak emandako ziurtagiria.
- c) edo poliza eta dagokion primaren ordainagiria erakutsiz edo haren lekukotza emanaz.

310. Polizak noiz arte egon behar du indarrean?

Lanbidean jarduten duzun denbora guztian, salbuespenik gabe.

311. Profesional modura Nafarroan kokatuta nago. Orain, EAEn ere nahiko nuke kokatu, bolada batez kirolaren arloko lanbide batean aritzeko, besteren kontura edo autonomo gisa. Balio dit Nafarroan kontratatutako erantzukizun-aseguruak?

Bai, baina Euskadira eskatzen den estalduraren parekoa eduki beharko du (8/2022 Legea garatzeko dekretuan zehaztuko da).

312. Eta estaldura baliokide hori ez badu, beste poliza bat kontratatu behar dut?

Ez. Nahikoa litzateke indarrean duzun poliza aldatzea.

313. Boluntarioek ere egin behar al dute erantzukizun zibileko aseguru?

Ez. Ezetz baitio 8/2022 Legeko bigarren xedapen gehigarriak.

314. Boluntario aritzen naiz, 8/2022 Legean araututako lanbideetako batean. Zer gertatzen da, hirugarrenei kalterik eragiten badiet?

Begiratu Boluntarioei buruzko Legean (2/1998 Legea, martxoaren 27koa), 11.2 artikuluan, edo hura ordeztzen duen xedapenean, han aitortu bezala baitauek ezarritako erantzukizun zibila zu bezalako boluntarioek (jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan aritzen zirenekin).

315. Zer gertatzen da kirol-arloko lanbideetan aritzen banaiz, baina erantzukizun zibileko asegururik gabe, nahiz eta nahitaezkoa den?

Administrazio--arauhauste astuna da.

316. Zer zehapen jar diezadakete arauhauste hori egiten badut?

8/2022 Legearen arabera, arauhauste astunek zehapen hauek izan ditzakete:

- a) Lanerako desgaitzea, gehienez ere urtebetez.

b) 1.001 euro eta 3.000 euro arteko isuna.

XIII.- URETAKO SOROSLE-LANBIDEA, BAINA EZ KIROL-ARLOKOA

8/2022 Legean uretako sorosle-lanbidea kirol-lanbide gisa al dago arauturik?

Ez dago kirol-lanbide gisa arauturik. 8/2022 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian dago arauturik, kirolaz kanpoko lanbide gisa. Izan ere, araubide juridiko bereziak xedapen gehigarrietan datoz, legearen aplikazio-eremu nagusitik kanpo daudelako eta ezin direlako artikuluetan kokatu.

317. Zer funtzio ditu kirolaz kanpoko lanbide horrek?

Soroslea igerilekuetan, instalazio akuatikoetan eta bainu-leku publiko naturaletan aritzen da, jendearen segurtasuna zaintzen, baina leku horiek ez dute zertan kirol-ekipamenduak izan. Arriskutsuak izan daitezkeen egoerei aurrea hartzeko egoten da, etengabe denak zaintzeko, eta, istripurik edo larrialdirik gertatzen bada, bizkor esku hartzeko, edonolako jardueretan (jolasean, denbora pasan, hezkuntzan, kirolean eta abar).

318. Uretako soroslea naiz. Nik ere inskribatu behar al dut EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren arloko Profesionalen Erregistroan?

Ez, zurea ez baita kirol-lanbidea.

319. Kiroldegi bateko igerileku batean sorosle aritu nahi badut, zer kualifikazio behar dut?

Ikus dezagun nola egiazta dezakezun sorospen-jardueretan aritzeko kualifikazioa; ziurtagiri, titulu edo titulu baliokide hauek erabil ditzakezu:

- a) Instalazio akuatikoetan sorosle izateko profesionaltasun-ziurtagiria.
- b) Ingurune akuatiko naturaletan sorosle izateko profesionaltasun-ziurtagiria.
- c) Salbamendu eta sorospeneko kirol-teknikariaren tituluaren hasierako zikloaren ziurtagiria.
- d) Salbamenduko eta sorospeneko kirol-teknikariaren titulua.

e) Lanbide Heziketako tituluen artetik, gorputz- eta kirol-jardueren arloko beste edozein teknikari-titulu, baldin eta tituluaren lanbide-profilak zure sorosle-lanetarako ere balio badu.

Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzietako lizentziaduna edo graduduna bazara, edo jarduera fisiko eta kirolerako goi-mailako teknikaria bazara Lanbide Heziketatik, egokitzapen-ikastaro bat egin beharko duzu, arazorik gabe egin ahal izateko 8/2022 Legeko zortzigarren xedapen gehigarrian aurreikusitako sorospen-jarduerak. Erregelamendu bidez arautuko da ikastaro hori.

320. Uretako sorosle gisa lan egiten dut igerilekuetan. Ez dauzkat 8/2022 Legean eskatzen diren kualifikazioak, baina egin ditut prestakuntza-ekintza batzuk. Jarrai al dezaket sorosle-lanbidean?

Bai. Egiaztatzen baldin baduzu Legea indarrean jarri baino lehenago uretako sorosle modura lan egin duzula eta prestakuntza-ekintza batzuk ere egin dituzula, nahiz eta ez izan bigarren zenbakian zehazturik dauden tituluak edo ziurtagiriak lortzeko, aldibaterako araubidea aplikatuko zaizu (transitorioa, legeko lehen xedapen iragankorrean datorrena), eta, beraz, sorosle-lanean jarraitu ahal izango duzu, harik eta guk behar bezala taxutu arte administrazioan zer bide egin behar duzuen egiaztatzeko badauzkazuela eduki beharreko gaitasun-profesionalak.

321. Neure sorospen-zerbitzua eskaini nahi dut ur-instalazio eta -inguruneetan. Neuk ere han egon behar al dut, aurrez aurre?

Bai, jakina, ur-instalazio eta -espazioetako erabiltzaileak zaintzeaz eta sorosteaz arduratzen baita, batez ere, soroslea.

XIV.- KIROL-ZENTRO JAKIN BATZUETAN DERRIGORRA DA KIROL-ZUZENDARIA EDUKITZEA

322. Kirol-zentroek derrigor eduki behar al dute kirol-zuzendaria?

Batzuek bai, hala baitio 8/2022 Legeko bigarren xedapen hamaikagarrenak.

Egia esan, legeak eskuan, kontua ez da berria. Euskadiko Kirolaren Legean begiratu besterik ez dugu (14/1998 Legea, ekainaren 11koa, 98, artikulua): “*Eusko Jaurlaritzak araudi bidez zehaztuko du zein kirol-zentroek eduki beharko dituen ezinbestean Gorputz Jardueraren eta Kirolaren Zientzietan lizentziatua den baten zerbitzuak, bai eta lizentziatu horren baldintzak, egitekoak eta erantzukizunak ere*”. Baina erregelamendu hori (orduan “araudi” esaten zitzaion) ez zen inoiz onartu.

Orain, Eusko Legebiltzarrak zehaztu du eskakizun hori, zenbait ñabardurarekin.

323. Zer zentroek eduki behar dute, beraz, kirol-zuzendaria?

Zuen zentroak hiru monitore edo entrenatzaile baino gehiago baldin baditu eta lanaldi osoa eta mugagabea baldin badaukate, kirol-zuzendari bat izan beharko duzue, 8/2022 Legeko 10. artikuluan eskatzen den kualifikazioarekin.

324. Eta gure zentroak ez baldin baditu hainbeste entrenatzaile edo monitore lanaldi oso edo mugagabearekin?

Betebehar hori izango duzue, halaber, bost monitore edo entrenatzaile baino gehiago baldin

badituzue enplegatuta, eta, zenbaketa hori egiteko, ez du axola lan-legepean edo administrazio-legepean dituzuen kontrataturik, aldizkako kontratu finkoak edo iraupen mugatukoak dituzten, edo kontratu-modalitatea lanaldi osokoa edo lanaldi partzialekoa den.

325. Nola zenbatu behar da horrelako zenbat profesional dauzkagun?

Enpresako plantilla osoa hartu behar duzue kontuan, zenbat lantoki dituzuen begiratu gabe.

Aurreko sei hilabeteetan izan duzuen langile-kopurua hartuko da beti kontuan, ekaineko eta abenduak azken egunetan begiraturata.

326. Berdin eragiten die betebeharrak horrek zentro publikoei eta pribatuei?

Bai.

327. Noiztik aurrera eska dakiguke betebeharrak hori?

2026ko urtarilaren 1etik aurrera.

328. Nire kirol-zentroan -ni bainaiz titularra-, sei monitore dauzkatz, lanaldi partzialean. Zer gertatzen da ez baldin badut betetzen 8/2022 LEGEAN aurreikusitako obligazioa?

Arauhauste astuna izan liteke, 8/2022 Legean eskatzen den kualifikazioa eduki gabe zerbitzu profesionalak emateagatik; izan ere, legeak, monitoreen eta entrenatzaileen banakako kualifikazioa ez ezik, kirol-zuzendari baten kualifikazio gehigarria ere eskatzen du, handiagoa. Lege horretako 20.3 artikuluan datoz definiturik arauhauste astunak; besteak beste: "Jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesionalak kontratatzean nahitaezko lanbide-kualifikaziorik ez eskatzea".

329. Zer zehapen ezar diezadakete arauhauste horrengatik?

8/2022 Legearen arabera, arauhauste astunei 1.001 eurotik 3.000 eurora bitarteko isun ekonomikoa ezar dakieke, edo desgaitasun profesionala, gehienez ere urtebetez.

Dolua ere tartean bada, arauhauste oso astuna izan daiteke. Zehapen hauek jar daitezke oso arau-auste astunengatik:

a) Lanerako desgaitzea, gutxienez urtebete eta egun batez eta gehienez bi urtez.

b) 3.001 euro eta 30.000 euro arteko isuna.

330. Gure udalerrian, zerbitzuak emateko administrazio-kontratu baten bidez egiten da kirol-instalazioen kudeaketa. Nork eduki behar du kirol-zuzendaria, gure udalak ala enpresa esleipendunak?

Gakoa da ea kirol-zentro horretan beharrezkoa den gutxienerako profesional-kopuru bat egotea (lehen azaldu dugu); hala bada, udalak bermatu beharko du betetzen dela obligazio hori. Horretarako, bi aukera ditu, biak ere baliokoak:

- a) Udalak berak kontratatzea kirol-zuzendaria, dela lan-kontratua eginez, dela funtzionario-harremanaren pean.
- b) Emakida lortzen duen enpresari eskatzea, hala garbi utzita lehiaketaren pleguan.

331. Gure kirol-klubean 12 entrenatzaile ditugu futbol-talde guztietarako, baina denak boluntario modura ari dira. Guk ere eduki behar al dugu, derrigor, kirol-zuzendaria?

Derrigor, ez; baina oso gomendagarria da kirol-zuzendari bat edukitzea eta boluntarioek haren ardurapean laguntzea klubari.

332. Kirol-zuzendari bat kontratatu nahi dugu gure federaziorako. Lanaldi osoko kontratua izan behar al du?

Ez du nahitaez horrela izan behar. 8/2022 LEGEAK ez du zehazten zer lotura juridiko izan behar duen kirol-zuzendariak zentroarekin; ez da horretan sartzen.

333. Egin dezagun kontu Kiroleko Udal Patronatua garelako. Monitore dezente daukagu, kirol-jarduera zuzenduetarako. Begiratu dugu Sektore Publikoko Kontratuen Legean, eta, 17. artikuluan, zerbitzuen administrazio-kontratua ikusi dugu; erabil al dezakegu?

Bai. Aurreko galderan adierazi den bezala, 8/2022 LEGEAK ez du zehazten zer lotura juridiko izan behar duen kirol-zuzendariak zentroarekin.

334. Kirol-klub bat gara. Kirol-zuzendari bat izan nahi dugu, hark koordinatzen, teknikoki, talde guztietako entrenatzaileen lan guztia. Boluntario modura lan egin dezake, ordainsaririk gabe?

8/2022 LEGEAK ez du esaten zer-nolako lotura izan behar duen zuekiko: laborala, funtzionario gisakoa, administrazioa edo boluntario jitekoa.

335. Zeintzuk izan behar dira kirol-zuzendari horren eginkizunak (funtzioak)?

Era askotakoak dira kirol-zuzendariak egin ditzakeen jarduerak edo eskain ditzakeen zerbitzu profesionalak: izan dezakete zerikusia zuzendaritza teknikoarekin, programazioarekin, plangintzarekin, koordinazioarekin, orientazioarekin, kontrolarekin, gainbegiratzearekin, ebaluazioarekin, balorazioarekin eta antzeko funtzioekin.

XV.- EUSKARA

336. Jarduera fisiko eta kirolaren arloko lanbideez ari denean, 8/2022 Legeak esaten al du ezer hizkuntza normalizazioaz?

Bai.

Saiatzen da bermatzen herritarrok aukeratuko dugula zer hizkuntza ofizial erabili, eskubidea baitugu; berez, hala behar du, Autonomia Estatutuko 6. artikulua arabera euskara eta gaztelania baitira ofizialak; Euskararen Erabilera Normalizatzeari buruzko Oinarrizko Legeak hori eta beste hizkuntza-eskubide batzuk ere aitortzen baititu (10/1982 Legea, azaroaren 24koa); eta halaxe jartzen baitu orobat Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legean.

Bi gauza nahi ditu bermatu: herritarren hizkuntza-eskubideak; eta -legean araututako lanbideez ari garelarik- jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko zerbitzu publikoak euskaraz ematea.

337. 8/2022 Legea indarrean jarri ondoren, eskatuko al da euskarazko gaitasun-mailaren bat?

Bai.

8/2022 Legea indarrean jarri ondoren, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoetan lehen aldiz jarduera fisikoko eta kiroleko lanbideetan lanean hasteko, gutxienez B2 hizkuntza-gaitasuna egiaztatatu beharko da; beti ere, funtzio publikoaren araudian ez bada ezartzen beste maila bat eskatu behar dela, eta aplikatzekoa den indize soziolinguistikoaren arabera hala egitea baldin bada zuzena. Halaxe dio indarrean dagoen araudiak, eta nahitaez bete beharrekoa da.

338. Eta, klub eta bestelako erakunde pribatuetan? Halakoetan ere eskatu behar al da hizkuntza-gaitasunik?

8/2022 LEGEA zerbitzu publikoetara mugatzen da, ez dio ezer erakunde pribatuetako zerbitzuez.

339. Kapital publikoko merkataritza-sozietatea gara. Derrigortuta al gaude hizkuntza-maila hori eskatzera?

8/2022 LEGEA administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoetara mugatzen da soilik. Kapital publikoko merkataritza-sozietateak ez dira administrazio publikoak. Sektore publikokoak dira, baina ez dira administrazio publikoak.

Edonola ere, nahi baduzue, ez duzue eragozpenik euskara-maila hori eskatzeko, edo handiagoa; zuen esku dago.

340. Euskarazko maila hori, B2, beti eskatu behar al da?

Ez. Baldintza hauek betetzen direnean:

- a) Zerbitzu publikoak izan behar dira.
- b) Administrazio publikoek emandakoak.
- c) Funtzio publikoaren araudian ez da ezarri beste hizkuntza-gaitasunik eskatu behar denik.
- d) Eta beharrezkoa bada, gainera, arauz aplikatu beharreko indize soziolinguistikoaren arabera.

341. Zumba eta pilateseko irakaslea naiz. 8/2022 LEGEA indarrean jarri aurretik ere sektore publikoan ari nintzen lanean. Nik ere egiaztatu behar al dut hizkuntza-gaitasun hori?

Bai.

Ikus dezagun: 8/2022 LEGEA indarrean jartzen denean jada lanean ari bazara jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan, eta, gainera, administrazio publikoek ematen dituzten zerbitzu publikoetan aritzen bazara, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera gutxienez B2 hizkuntza-gaitasuna egiaztatu beharko duzu; hori, jakina, non eta zure esparrurako ez den ezarri beste hizkuntza-mailaren bat.

Hots, beste eskakizunik ez dagoen eremuetan eskatuko da B2 maila.

342. Arabako udal bat gara. Zalantzatxo bat daukagu: B2 aipatzen duzue, baina ezin dugu maila altuagorik edo apalagorik eskatu?

Bai. Ikusi behar duzue zer indize soziolinguistiko aplikatu dezakezuen, eta, horren arabera, udalak beste hizkuntza-gaitasun bat eska dezake.

343. Jada badira urte batzuk jarduera zuzendu edo dirigituetan lan egiten dudala, udal-kiroldegi batzuetarako. Ez daukat B2 hizkuntza-mailarik, eta jakin nahiko nuke ea pentsatu duzen laguntzarik-edo ematea.

Bai. 8/2022 LEGEAREN arabera, Eusko Jaurlaritzak laguntza-programa batzuk ezarriko ditu, bermatzearen zuek, lege hau bete behar duzuenok, euskaraz dohainik ikasi ahal izango duzuela, kualifikazioak derrigorrezkoak direnetik (2026ko urtarrilaren 1a) bi urte igaro arte. Euskarako ikastaroetan inskribaturik baldin bazaude, epe hori luzatu ere egin daiteke, ikastaroak amaitu arte.

344. Onartuko al da planik sektorea euskalduntzeko?

Bai.

Lau urteko plana jarriko da martxan, kirol-prestakuntza-arloa eta mintzagai ditugun lanbideak euskalduntzeko (jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideak), bai sektore publikoan bai pribatuan. Plan hori EAEko Administrazio Orokorrean hizkuntza-politikaren eskumena duen organoak taxutuko du -aurrekontuan jasota utziz-, kirol-arloan eskumena duen zuzendaritzarekin lankidetzan; hala dago erabakita 8/2022 Legean.

XVI.- DENETIK PIXKA BAT

345. Kirol-zentroetako, gimnasioetako eta kirol-zerbitzuak ematen dituzten beste edozein erakundetako pertsonak edo erakundeek ba al dute betebeharririk erabiltzaileei informazioa emateko kirol-arloko langileen kualifikazioei buruz?

Bai. Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-legeriaren arabera, kirol-zentro guztiek toki nabarmen eta ikusgarrian jarrita eduki behar dute kirol-zerbitzuak ematen dituzten langileen izenei eta lanbide-kualifikazioei buruzko informazioa.

346. Noiztik eska daiteke betebeharrak hori?

Euskadiko Kirolaren Legea indarrean denetik, hots, 1998ko ekainetik (14/1998 Legea, ekainaren 11koa).

347. Profesionalen kualifikazioari buruzko informazioa emateko betebeharrak hori administrazio publikoei ere badagokie?

Bai. Betebeharrak horretan ez dago bereizketarik pertsona fisiko eta juridikoen artean, zuzenbide publikoko edo zuzenbide pribatuko pertsonen artean.

348. Informazio hori argi eta denek ondo ikusteko moduan eman beharra daukagu. Nola, baina?

Dena delako jarduera egin behar duzuen lekuan ipiniko duzue, nabarmen eta denek ikusteko moduan (igerilekuan, gimnasioan eta abar).

Web-orririk baldin badaukazue zuen zerbitzuak iragartzeko, han ere jarri beharko duzue informazio hori.

349. Euskal kirol-federazio bat gara. Informazio hori gure instalazioetan ematera behartuta gaude?

Bai.

350. Euskadiko kirol-klubok ere informazio hori eman behar al dugu gure instalazioetan?

Bai.

351. Kirol-erakunde bat gara. Kirol-instalazio bat alokatu dugu hirugarrenei zerbitzuak emateko. Hor ere eman behar al dugu informazio hori?

Bai, 14/1998 LEGEAK ez baitu titulartasun osoa eskatzen; nahikoa da kirol-zentro hori errentamendu-kontratu baten arabera ustiatzea, edo administrazio-emakida baten eta abarren arabera.

352. Baina, informazio hori argitaratzen badugu, hala ere, errespetatu al dezakegu datu pertsonalak babesteari buruzko arautegia?

Bai. Izan ere, Legeak berak dioenez (Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak

Bermatzeari buruzko 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5koa, 8. artikulua), datu pertsonalen tratamendua oinarritutzat jo daiteke, horrela aurreikusten baita lege-mailako arau batean, eta informazioaren helburua interes publiko bat bermatzea baita, hau da, zerbitzu profesionalen hartzaileen osasuna eta segurtasuna babestea. Gainera, EAEn jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan dihardutenen kualifikazioak Profesionalen Erregistroan ere jaso behar dira (EAEko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Profesionalen Erregistroan), eta hango datu horiek publikoak dira eta hirugarrenek eskuratzeko modukoak.

353. Monitore- eta entrenatzaile-talde bat gara, Euskadin kokatuta gaude, eta gustatuko litzaiguke entrenamendu-zerbitzu profesionalak ematea plataforma birtualen bidez, hau da, informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiliz. 8/2022 Legearen arabera, posible al da?

Bai. 8/2022 Legeak monitore eta entrenatzaileentzat dakartzan funtzioak plataforma birtualen eta IKTen bidez garatu ahal izango dira, legean bertan aurreikusitako salbuespenak salbuespen, baina profesionalak 8/2022 Lege horretan aurreikusitako kualifikazioa izan beharko dute.

354. Beharrezkoa al da webgunean geure buruak pertsonalki identifikatzea eta gure kualifikazioak adieraztea?

Bai. Web-orriek eta informazioaren eta komunikazioaren gainerako plataforma teknologikoek, baldin eta entrenatzeko edo sasoian jartzeko online planak edo gisa bereko kirol-informazio teknikoa badakarte, behar bezala identifikatu behar dituzte plan horiek egiten dituzten profesionalak, eta haien kualifikazioari buruzko informazioa eman behar dute.

355. Fitness-zentro bat daukat (ni naiz titularra), Euskadin kokatuta gaude, eta plataforma birtual horiek erabiltzen ditugu bezeroekin egiten ditugun eskola edo saio kolektiboetarako. Saio edo eskola kolektiboak egiten ditugun bitartean beharrezkoa al da aretoan langile kualifikaturen bat edukitzea ?

8/2022 LEGEAK ez du eskatzen aretoan inor egotea, baina saioa gainbegiratu bai egin beharko duzue, 18.2 artikulua arabera. Legeak garbi baitio: "Egoitza edo helbide soziala Euskal Autonomia Erkidegoan duten kirol-zentro, -establezimendu edo -erakundeek plataforma edo teknologia horiek erabiltzen dituztenean entrenamendu-planak egiteko edo beren erabiltzaileekin taldekako eskolak edo saioak emateko, legearen arabera lanbide-kualifikazioa duen jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko profesional bat izan beharko dute plataforma edo teknologia horien bidez egindako jarduera gainbegiratzeko."

356. Beste profesional batzuek, berriz, entrenamendu pertsonalak eskaintzeko erabiltzen dituzte plataforma birtualak. Haiek ere bete behar al dute 8/2022 Legea?

Bai.

357. 8/2022 Legeak ba al dakar betebeharrak orokorrik kirol-profesional guztientzat?

Bai. Har dezagun 14. artikulua: "Profesionalek, lege honek xede dituen jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jardutean, betebeharrak izango dituzte":

a) "Hartzaile bakoitzak dituen baldintza eta beharizanetara egokitutako zerbitzuak ematea, unean uneko zientzia-ezagupenen egoerarekin bat etorritik, indarrean dauden arauak ezartzen dituzten kalitate- eta segurtasun-mailak betetz, eta generoa dela-eta dauden desberdinkeriak kontuan hartuta".

b) "Beren zerbitzuak hartzen dituzten pertsonen osasuna eta segurtasuna zaintzea eta lankidetzak aktiboan jardutea kirolarien osasunari kalte egiten dioten praktikak desagerrarazteko".

c) "Beren lanbide-jarduna gauzatzea kirol-jarduera egiten den lekuan bertan egonda, kirol-zuzendariaren lanbideari dagokionez bertan egoteaz 10.1 artikuluan xedatutakoari kalterik egin gabe".

d) "Lankidetzak aktiboa eskaintzea dopin-kontrolak egitean eta dopinaren aurkako legeetan aurreikusten diren betebeharrak betetzean".

e) "Beren zerbitzuak hartzen dituzten pertsonen nortasuna, duintasuna eta intimitatea errespetatzea".

f) "Jokabide egokiei buruzko kodea sinatzea jarduera fisikoaren eta kirolaren arloko lanbideetan jarduteko".

g) "Beren zuzendaritzapean egingo diren kirol-jarduera fisikoei buruzko informazio nahikoa eta ulergarria ematea zerbitzuak hartzen dituzten pertsonen".

h) "Zerbitzuen hartzaileen aurrean identifikatzea eta beren lanbide eta lanbide-kualifikazioen berri ematea".

i) "Ezagupenak etengabe eguneratzen eta hobetzen ahalegintzea".

j) "Lankidetzak aktiboan jardutea kirolariek osasun-kontrol egokia izan dezaten, dagozkion osasun-langileen bidez".

k) "Lankidetzak aktiboan jardutea kirolariei errendimendu edo osasun hobea izan dezaten lagun diezaieketen beste profesional batzuekin, betiere disfuntzio edo desgaitasun somatikoak dituzten pertsonen errekuperazio- eta errehabilitazio-zerbitzuak eman gabe fisioterapeutei dagozkien eginkizun profesionalen bidezkoak zaizkien baliabide edo agente fisikoak darabiltzaten tratamenduen bidez".

l) "Legez aitortutako hizkuntza-eskubideak benetan egikaritzeko baldintzak bermatzea".

358. Egin dezagun kontu ez dudala betetzen obligazio orokor horietakoren bat. Zer gertatuko da?

Ez badituzu betetzen printzipio eta betebeharrak horiek, ikusi egin beharko da, baina erantzukizunak eskatuko zaizkizu:

a) Administrazio-mailakoak. Kirolerako eskumenak dituen sailaren ardura da administrazio-zehapenak jartzea.

b) Diziiplina-mailakoak. Ikusi egin behar nork duen diziiplina-ahalmena bere langileekiko, elkargokideekiko eta abarrekiko, hark jarriko baititu diziiplina-zehapenak.

359. Non egin daiteke beste galderarik 8/2022 LEGEaren aplikazioari buruz?

Kirolaren Euskal Eskolak helbide hau gaitu du, edonork kontsultak egin ditzan:
kiroleskola@euskadi.eus

Galdera gehiago iritsi ahala, eta xedapen gehiago argitaratu ahala, agiri hau eguneratuz joango gara.

	UNBERTSITATEIRAKASKUNTZAK				LANBIDE HEZKETA ETA KUALIFIKAZIO SISTEMA						KIROI-IRAKASKUNTZAK		
	JARDUERA FISIKOAREN ETA KROLAREN ZENTZIAK	LEHEN HEZKUNTZA GORPUTZ HEZKUNTZA	GORPUTZ-ETA KROL-JARDUERETAKO GOMAILAKO TEKNIKARIA	ANIMAZOKO GOMAILAKO TEKNIKARIA	EGOKITZAPEN FISIKOKO GOMAILAKO TEKNIKARIA	ZALDI-JARDUERETAKO TEKNIKARIA	NATURA-INGURUNEKO GDA RITZAKO TEKNIKARIA	PROFESIONALTA SUN-ZIURTAGRIA	GOMAILAKO TEKNIKARIA	ERDI-MAILAKO TEKNIKARIA	1. MAILA		
RAKASLEA													
		Lehen Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako											
		Bigarren Hezkuntzako Gorputz Hezkuntzako	prestakuntza espezifikoa										
		Egokitzapen fisiko jardueratakoa						*					
		Izera orokorreko edo diziplina antitzeko jardueratakoa		Dagokion adina				*					
BEGRALEA		Hasierako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.	Dagokion adina	prestakuntza espezifikoa	Zaldeketa-gida	prestakuntza espezifikoa	*	*	*	*		
		Perfizionamendu-mailako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Berezko arriskua duten jardueretakoak ur-ingurunea, natura-ingurunea edo animalak	prest. espezif.	Dagokion adina	prestakuntza espezifikoa		prestakuntza espezifikoa	*	*	*	*		
		Arreta berezia behar duten pertsonentzako jarduera espezifikotakoa	prest. espezif.	Dagokion adina	prestakuntza espezifikoa			prestakuntza espezifikoa	prestakuntza espezifikoa	prestakuntza espezifikoa			
		Kirol antitzeko eskola-kiroleko jardueratakoa		Dagokion adina			Medio natural	*					
ENTRENATZALEA		Hasierako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.	Dagokion adina	prestakuntza espezifikoa		prestakuntza espezifikoa	*	*	*	*		
		Perfizionamendu-mailako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Goi-mailako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Natura-ingurune/animalietako kirol antitzeko eskola-kiroleko jarduerak	prest. espezif.	Dagokion adina	prestakuntza espezifikoa		prestakuntza espezifikoa	*					
		Egoera fisiko berreskuratzea eta hobetzea											
KROL ZUZENDARIA		Diziplina antitzeko edo kirol antitzeko jarduera edo zerbitzuetan		Dagokion adina									
		Hasierako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Perfizionamendu-mailako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Goi-mailako modalitate/diziplina bateloa	prest. espezif.						*	*			
		Animazio kirol-jardueratakoa		Dagokion adina									
	Egokitzapen fisiko jardueratakoa		Dagokion adina										

OHARRAK

- Prestakuntza espezifikoa Gaiari buruzko prestakuntza espezifikoa behar da (titulazioaren edo prestakuntza gehigarriaren barruan)
- Dagokion adina lasleen adinak bat etorri behar du Lehen Hezkuntzako Graduoko irakasuntza-kualifikazioarekin, Gorputz-Hezkuntzako aipamenarekin
- Zaldiketa-gida Zaldiketa-ibideak gida izateko edo orientatzeko jardueratan soilik
- * Prestakuntzak gaitzen dituen modalitateetan, disipletan edo kirol-jarduera fisikoetan soilik
- Lege-proiektuan sartuta dago baina ezabatu/aldatu egin daiteke Legebiltzarrean egindako zuzenketaren bidez
- Beste galkuntza eta habardura batzuk daude, hezkuntza sistemako arau-jedapenen arabera
- Unbertsitate-master ofizial bat edutitzeak kasuan kasuko jardueretan kirol-monitore izateko galkuntza ere emango du